

+ 

Euskaraz kalean kantatzearen garrantzia

Juantxo Madariaga historialariari elkarrizketa



**GEORGES
LACOMBEREN
ARTXIBOA,
ONTZAKO
URREAREN
TRUKE**



Maria Josefa Ganuzak eta Telesforo Monzonek Georges Lacombe (1879-1947) euskaltzainari erositako funtsa ikusgai ipini dute Bergarako Olaso dorrean / 4

Andres Urrutia euskaltzainburua eta Erramun Osa Euskaltzaindiko idazkariordea, Bergarako Olaso dorrean atzo.

BERGARAKO UDALA

Intxorta 1937 Kultur Elkartea omenduko du Arrasateko Udalak gaur, Memoriaren Egunean / 10

SINADURAK

	IÑAKI UGARTEBURU / 8		PILAR ETXANIZ / 26
	JOHANNA SANCHEZ / 12		LUXE MONTERO / 28
	JESUS ARREGI BENGOA / 15		AINZANE OIARBIDE / 40

INBISA

TRASTELEKUAK SALGAI | Erdiko Kalea, 35 Arrasate

Informazioa eta salmenta: 944 536 675

SEAT LEON CUPRA



Disfrutatu teknologiaz!

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70





Idoia Etxeberria. I.E.

"Herritar askok uste du hika mutilen arteko hizkera dela"

IDOIA ETXEBERRIA BADIHARDUGU EUSKARA ELKARTEKO KIDEA

Euskal Herriko I. Hika Topaketa egingo dute gaur Oñatin; hitanoa bultzatzen duten eragileak elkar ezagutzea du helburu, eta oñatiarra aritu da antolatze lanetan

Idoia Aranbarri Arzuaga OÑATI
Euskal Herriko I. Hika Topaketa egingo dute gaur Oñatiko Eltzian Badihardugu Euskara Elkarteak eta Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) antolatuta, Oñatiko Udalaren laguntzarekin. Badiharduguko kide, Ingo Xonau! proiektuko koordinatzaile nahiz topaketaren antolatzaileetako bat da Idoia Etxeberria (Oñati, 1977).
Zergatik lehen topaketa Oñatin? Ez da kasualitatea Oñatin izatea. Badihardugun 20 urte baino gehiago daramatzagu eus-

kalkiak eta hitanoa elkarrizketetan jasotzen. Beste herri batzuetan ere bai, baina Oñatin Ingo Xonau! proiektuarekin gabilta, eta sortu zenetik ekimen dezente egin ditugu. Oñatiko Udala hasieratik egon da Ingo Xonau! babesten; horre-

"TOPAKETAK BALIOKO DU ELKARRI ANIMOAK EMAN ETA IKUSTEKO EZ GAUDELA BAKARRIK"

gatik, pentsatu genuen polita izango litzatekeela beste leku batzuetako jendea ezagutu eta EHko topaketa sortzea.
Helburua da hitanoa bultzatzen duten eragileek elkar ezagutzea. Zergatik? Azken urteetan hitanoa bultzatzen gero eta jende gehiago dabil, baina azkenean, ez dugu elkar ezagutzen askotan eta sakabanatuta gaude. Topaketaren helburua hori da; apur bat indarrak batzea.
Zertan oinarritu zarete gaurko egitaraua antolatzeko?

Gaurko egitaraua

09:15 eta 09:45 bitartean, harrera eta dokumentazio banaketa egingo dute, eta ondoren ongi etorria egingo dute Oñatiko Udalak, UEUK eta topaketaren antolatzaileek. 10:00etan, Badiharduguko Aintzane Agirrebeñak *Topaketaren testuingurua* hitzaldia eskainiko du. Goizeko lehen mahai-ingurua 10:30ean izango da eta bost gonbidatuk –tartean da Etxeberria– hitanoa bultzatzeko esperientziak kontatuko dituzte. Bigarren mahai-inguruan, 12:15ean, hitanoa ikastetxeetan izango dute hizpide.

Arratsaldean, 15:00etan abiatuko da topaketa, lan-mahaietan. Taldeetan banatuta, iritziak eta esperientziak partekatu nahiz gogoetak eta proposamenak egingo dituzte. Hortik aterako dira aurrera begirako pausoak zehazten lagunduko duten ondorioak.

Goizean hitzaldiak eta mahai-ingurua egingo ditugu. Euskal Herriko txoko ezberdinetako bederatzi esperientziaren berri emango dugu ikuspegi orokor bat edukitzeko. Arratsaldean lan-mahaiak egingo ditugu talde txikietan banatuta. 80 lagun izango gara. Guztiek izango dute aukera iritziak eman, esperientziak kontatu eta proposamenak egiteko. Bilketa garrantzitsua da aurrera begira zer egin, zelan saretu eta elkarrekin zer egin dezakegun erabakitzeke. Hor jasotako informazioaren ondorioak bidaliko dizkiegu parte-hartzaileei. Balioko digu beste topaketa bat antolatzeko ere.

Lehen Topaketa ondorengo abiapuntu izango da.

Gura genuke jarraipena izan eta abiapuntu izatea. Ikusiko dugu hurrengo topaketa non, zelan eta zenbatean behin egingen dugun. Oraindik zehaztu barik dago. Uste dut honek balioko duela elkarri animoak eman eta ikusteko ez gaudela bakarrik. Hortik errazagoa izango da gauzak elkarlanean egitea.

Ingo Xonau! aipatu duzu. Zuek martxan jarritako ekimenak erreferente izan dira beste herrietan.

Halaxe da. *Oñatiko hika poltsikaran* liburuxka atera genuen, eta bertsio ezberdinak egin dituzte Durangaldean, Usurbilen, Oiartzunen eta Azkoitian. Appa Hi! aplikazioa ere atera genuen Oñatiko hitanoa ikasteko; ondoren, euskara batukoa. Eta hilabete honetan beste bi bertsio

"HITANOAK GERTUTASUNA EMATEN DU; NORTASUNA EMATEN DUEN HIZKERA DA"

aurkeztuko dira: Leintz eskualdekoa –Arrasate, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Leintz Gatzagarako– eta Eibarkoa. Harrera ona izan duen beste ekimena izan da aplikazioarena.

Nabaritzen duzu halako ekimenak martxan jartzean hitanoaren erabilera hazten dela?

Ez nizuke esango pila bat, baina aldaketak egoten dira. Nik ez nekien hika berba egiten eta orain gai naiz hika berba egiteko 10 bat lagunekin.

Hitanoaren egoera zein da?

Egoera dezente aldatzen da lekutik lekura. Bizkaiko kostaldean aspaldi galdu zen; Iparraldean, Zuberoan mantendu da ondoen. Dena den, Gipuzkoan mantendu da, batez ere, euskararen arnas guneetan. Halere, orokorra dena da nokaren egoera askoz okerragoa dela tokarena baino.

Eta hori zergatik da?

Genero ikuspegiari lotutako kontuak daude. Emakumeak hika berba egitea ikusi izan da "fina" izango ez balitz bezala, hizkera zakar modura. Orduan, finago berba egiteko zukara jo du, eta noka oso eremu intimoko zerbait bihurtu da. Faktore gehiagok ere bultzatu dute. Garai batean, mutilek bazituzten leku batzuk informalak zirenak –futbola, taberna...–. Herritar askok uste du hika mutilen arteko hizkera dela.

Zergatik animatu herritar bat hika hitz egitera?

Gertutasuna ematen du, konfiantza, erregistro berezi bat. Aberastasuna ematen dio hizkerari, oso geura da; oraindik bizirik dago, eta galtzea pena litzateke. Nortasuna ematen duen hizkera da. Matxismoarekin lotutako arazoa dago, eta horri denok eman diezaiokegu buelta, parez pare eta berdin.

Jardunaldi bat, Bailara elkarteak aurkezteko

Debagoieneko ehun sozial eta ekonomikoa indartzeko eta enpresa elkartuen irudia eta lehiakortasuna hobetzeko, Bailara elkarteak sortu dute, eskualdeko hainbat enpresatako ordezkariak; jardunaldi batean aurkeztuko dute Garaian, 28an

Eneko Azkarate Lspiur ARRASATE

Bailara Enpresa Elkartek, ISEA kooperatiba elkartearekin lan-kidetzan, *Talentua, enpresa eta lurralde lehiakortasunaren ahalmen estrategikoa* jardunaldia antolatu du. Ekitaldia azaroaren 28an izango da, martitzena, 16:00etatik aurrera, Arrasateko Garaia Parke Teknologikoaren Areto Nagusian. "Jardunaldiaren helburua da gogoeta egitea talentuak enpresa lehiakortasunean duen eraginari buruz, eta talentua garatzeko, erakartzeko eta atxikitzeo estrategia publiko pribatuak hedatzeko beharri buruz", adierazi du Bailara Enpresa Elkarteko lehendakari Daniel Miguelezek.



Sara de la Rica Ekonomia katedraduna izango da Bailararen jardunaldian. GOIENA

Hainbat hitzaldi

Enpresa, unibertsitate eta ikerkuntza alorreko hainbat lagunek jardungo dute ekitaldian. Hauek, hain justu ere: Anton Costas Bartzelonako Unibertsitateko Politika Ekonomikoaren katedradun eta Ekonomia eta Gizarte Kontseiluko -CES- presidentek berbaldua eskainiko du. Talentuaz ariko da, honako izenburuko hitzaldian: *El talento: una cualidad de las personas que la sociedad debe ayudar a desplegar*. Bestalde, Sara de la Rica EHUko Ekonomia katedradunak, *Euskadiko enpleguaren liburu zuria*-ren ondorioak aurkeztuko ditu. Azkenik, Maite Anayak eta Lierni Rabanetek, EPS-MUko ikertzaileak, Debagoieneko enpresen gaitasunen eta prestakuntza beharren azterketaren emaitzak aurkeztuko dituzte.

Jardunaldi honetan parte hartzeo izena eman behar da, mezu bat bidaliz helbide elektronikoko honetara: morobengoa@isea.eus.

Elkartea ezagutzera eman

Jardunaldiaren bitartez, Bailara elkarteak ezagutarazi nahi dute bultzagileak. Zentzu ho-

rretan, lehen agerraldi publikoa izango da. Modu honetan, Debagoiengan nagusi den kooperatiba talde eta enpresetatik harago, "bestelako enpresa eredu batzuk ere badaudela ikusarazteko eta enpresa horien artean sinergiak sortuz eraginkortasunean irabazi daitekeela erakusteko".

Debagoiengan kokatutako sektore anitzeko enpresa-taldea da Bailara. "Gure eskualdeko ehun sozial eta ekonomikoa indartzeko eta enpresa elkartuen irudia eta lehiakortasuna hobetzeko lan egiten dugu", dio elkartearen lehendakariak, Daniel Miguelezek. Hori enpresa partaideen konpromisotik eta lan-kidetzatik abiatuta egiten dutela dio: "Balio erantsi handiko zerbitzuak eskainiz, bakoitzak bere sektore eta jardueretan duen esperientziak eta ezagutzak bermatuta".

Bailara elkartearen helburuetako batzuk honakoak dira: negozio-aukera berriei erantzutea; sareko komunitate bat sortzea; digitalizazioa, talentua, ikuspegi komertziala eta komunikazioa bezalako sektore kritikoak enpresetan txertatzea...

MUK enplegu-tasa "onenetako bat" duela dio 'Forbes'-ek

Hezkuntza-ereduaren ikuspegi praktikoa eta lan-merkatuarekin duen lotura nabarmentzen ditu

Amaia Ramirez de Okariz. ARRASATE Unibertsitate-ikasleen enplegagarritasuna du hizpide *Forbes* aldizkariak, eta, horren arabera, "Estatuko unibertsitateen *top-10*-ean kokatzen da" Mondragon Unibertsitatea.

MUK azaldu duenez, unibertsitarioren artean "gehien espero den" rankingetako bat da *Forbes* aldizkariarena. "Ikasketak eta unibertsitatea aukeratzeak eragina du lan merkatuan sartzeko orduan, eta, horregatik, ranking honek garrantzi berezia hartzen du". Haren hitzetan, honek "berretsi" egiten du "MUren prestakuntza-apustua egokia" dela. "Bai hezkuntza eredu praktikoa-ri dagokionez, bai lan-merkatuaren beharretara bideratutako eskaintza akademikoari dagokionez, bai unibertsitateak enprekin eta erakundeekin dituen aliantzei dagokienez".

Hain justu, *Forbes*-ek unibertsitatearen "ikuspegi praktikoa" nabarmendu du, "egungo lan merkatuaren premiekin bat datorren prestakuntza-eredu bat sustatzen duela, hala nola ikerketa eta ezagutzaren transferentzia uztartuz". Baina baita gehiago ere. "Balio eta ideia kooperatiboekin lotura estua duen Unibertsitatea da, eta pertsonen etorkizunarekin konprometituta dago".

Gakoa, espezializazioa

Ikastetxeak zenbat eta espezializazio handiagoa izan, orduan eta aukera gehiago izango ditu ikasleentzat lana aurkitzeko. Horregatik, ingeniari-tza desberdinak dituzten politeknikoak enplegu tasa handiena dutenen artean daude, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoaren kasuan bezala.



DEBAGOIENENKO GREMIOAK



LOREZAINNTZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA
Basabe poligonoa
D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 /
616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

ARRASATE
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA
Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.



Andres Urrutia, Maite Aristegi eta Gorka Artola, Lacomberen funtsaren gaineko erakusketan. XABIER URZELAI

Georges Lacombe euskaltzainaren funtsa, herritarrendako ikusgai

Georges Lacombe euskaltzainaren funtsa erakusgai ipini dute Bergarako Olaso Dorrean, abenduaren 1era arte. Erakusketaren osagarri, bi hitzaldi ere antolatu dituzte. Lacomberen funtsa, Olaso Dorrea Fundazioaren jabetzakoa da

Miren Arregi Amasorrain BERGARA Kilo bat urreren truke erosi omen zioten Telesforo Monzonek eta Maria Josefa Ganuzak, Georges Lacombe (1879-1947) hizkuntzalari eta euskaltzain osoaren alargunari, haren agiritegia. Eta truke horri erreferentzia eginez, Euskaltzaindiak, Olaso Dorrea Fundazioak eta Bergarako Udalak antolatuta, *Ontzako urrearen truk* erakusketa ipini dute ikusgai, Bergarako Olaso dorrean. Georges Lacomberen artxiboari eta bibliotekari buruzkoa da berau. Erakusketak 12 panel eta bi bitrina hartzen ditu, eta abenduaren 1era arte egongo da ikusgai. "Euskararen eta Euskal Herriaren historia ezagutzeko ezinbesteko dokumentuak gordetzen ditu Lacomberen artxiboak, eta tartean harribitxiak daude", azaldu dute erakusketaren antolatzaileek. Xahoren

Kantutegi ospetsua edo Luis Luziano Bonaparteren gutunak dira erakusgai jarritako dokumentu deigarrienetarik bi.

Olaso Dorrearen jabetzakoa Lacomberen agiritegia Olaso Dorrearen jabetzakoa da une honetan. Hain zuzen ere, "Maria Josefa Ganuzak eta Telesforo Monzonek ondare hau Euskal Herrian gera zedin eginiko ahaleginari esker", Lacomberen agiritegia euskal herritarren esku dago. Liburuak Euskaltzaindiaren Azkue

"ONDARE HAU EZAGUTZERA EMATEN LAGUNDUKO DU ERAKUSKETAK"

MAITE ARISTEGI OLASO DORREA FUNDAZIOKO KIDEA

liburutegian daude eta artxiboa Olaso Dorrean eta Euskaltzaindiaren webgunean ere bai. "Pentsa dezakegu hau egin izan ez balute gaur ondare hau guztia munduan zehar barreiatua egongo litzatekeela, auskalo noren eskutan. Ziur gaudere, erakusketa honek ondare honen ezagutza zabaltzen lagunduko duela", azaldu zuen Maite Aristegik, Olaso Dorrea Fundazioko kideak, erakusketaren berri emateko atzo, egue-na, Olaso Dorrean egin zuten agerraldian.

"ERAKUNDE ETA ERAGILEON ELKARLANAREN EMAITZA DA HAU"

GORKA ARTOLA BERGARAKO ALKATEA

Bilduma itzela osatu zuen

Georges Lacombe (1879-1947) hizkuntzalari izan zen, eta euskaltzain osoa ia Euskaltzaindiaren sorreratik. Umetan ez zuen euskaraz ikasi, Orthezer herrian jaio baitzen, Bearnon, Euskal Herriatik kanpo. Halere, ama euskalduna zuen, Donapaleukoa (Nafarroa Behera), eta amaren laguntzaz, guztiz menperatzera iritsiko zen euskara ikasteari ekin zion gaztea zelarik. Filosofia ikasi zuen Sorbonan, eta bertako giro intelektualean mugitu zen urte askoan. Euskarari lotutako lan asko egin zituen. Aldudeko eta Zuberoako hizkeri buruzko lanak egin zituen, euskal gramatikaren gaineko saiakera bat idatzi zuen, eta euskal idazle klasikoei buruzko lanak ere argitaratu zituen. Euskarari egindako ekarpen handiena izan zen bilduma dokumental itzela osatu izana.



Georges Lacombe euskaltzaina.

Elkarlanaren emaitza

Olaso Dorrea Fundazioko Maite Aristegirekin batera, aurkezpenean izan ziren Bergarako alkate Gorka Artola eta euskaltzainburu Andres Urrutia ere. Guztiak ere, pozik azaldu ziren erakundeen arteko lanketak emandako emaitzarekin: "Telesforo Monzonek eta Maria Josefa Ganuzak erositako bilduma aberats hau ezin izan da urte luzeetan jendartera zabaldu", adierazi zuen Artolak. "Orain, hemen gauden eragileon elkarlanari esker, ehunka artxibo hauek bergarar zein euskaldun guztion eskura izango dira", gaineratu zuen.

Transmisioa jomugan

Bide beretik, Andre Urrutia euskaltzainburuak ere erakunde arteko elkarlana azpimarratu zuen eta Lacomberen bilduma gizartearen esku jarri izanaren garrantzia nabarmendu zuen: "Lacombe euskal kulturaren bilatzaile nekaezina izan zen eta Euskaltzaindiak hark jasotakoa euskal gizartearen esku jarri nahi izan du, Euskararen Akademiaren hel-

"LACOMBEK JASOTAKOA EUSKAL GIZARTEAREN ESKU UTZI NAHI IZAN DUGU"

ANDRES URRUTIA EUSKALTZAINBURUA

buruetako bat horixe baita: euskal kulturaren transmisioa".

Bi hitzaldi

Erakusketarekin batera bi hitzaldi antolatu dituzte, Lacomberen funtsaren garrantzia azaltzeko baliagarri izango direnak. Lehena azaroaren 23an izango da, 19:00etan. Bertan, Jabier Kaltzakorta ikerlari eta euskaltzain osoak Georges Lacomberen artxiboaren eta bibliotekaren nondik norakoak agertuko ditu. Bestalde, bigarren berbaldia azaroaren 29an izango da, 19:00etan hori ere, eta Pako Sodupe hizkuntzalari eta idazleak Telesforo Monzonek kulturagintza izango du berbagai. Hitzaldi biak Olaso dorrean izango dira".

Artxibo digitalizatua

Georges Lacomberen ondarea bitan banatu ohi da: biblioteka eta artxiboa. Biak digitalizatuta daude, eta Euskaltzaindiak zaintzen ditu kopia digitalak. Papezko originalak, ostera, bi lekutan daude: artxiboarenak Bergarako Olaso Dorrean eta bibliotekarenak Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan eta Artxiboan, Akademiaren Bilboko egoitzan, hain zuzen. Artxibo digitalizatua Euskaltzaindiaren webgunean ere kontsulta daiteke; guztira 18 funts daude eskuragarri, 2.000 dokumentu inguru, euskararen eta Euskal Herriaren historia ezagutzeko ezinbestekoak.



Herritar bat, Elorregiko komunera sartzen. OIHANA ELORZA

Elorregiko geltokiko komuna, erabilgarri

Komuna zabalduta, martxan da Elorregiko autobus geltoki berritua. 223.000 euroko inbertsioa eskatu du proiektuak. Aurrerantzean, Debagoieneko Mankomunitateak hartuko du bere gain Elorregiko autobus geltokia mantentzeko eta garbitzeko ardura

Miren Arregi Amasorrain ARRASATE Elorregiko autobus geltokiaren garbiketarako eta mantentzerako hitzarmena sinatu berri dute Oñatiko, Bergarako eta Arrasateko udalek Debagoieneko Mankomunitatearekin. Aurrerantzean Mankomunitateak hartuko ditu bere gain bi ardura horiek. Markesina eta komuna zabalik daude dagoeneko, eta hondakinentzako edukiontzia eta bizikletentzako aparkalekuak ere jarri dituzte. Autobusen ordutegiak jakinaraziko dituen pantaila digitala falta da bakarrik —urte bukaeran jartzea aurreikusen du Gipuzkoako Foru Aldundiak—. Orotara, 223.000 euroko inbertsioa egin da, eta proiektua egiteko, obra esleitzeko eta obraren jarraipena egiteko ardura Oñatiko Udalak hartu duen arren, udal bakoitzak —Oñatiko, Bergarako eta Arrasateko udalek— ekarpen ekonomiko bera egin du: 29.700 euro. Gainerakoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Sailak hartu du bere gain.

Oñatiko Udala, bultzatzaile

Elorregiko autobus geltokiaren egoerari gura moduko irtenbide

bat ematearena denboran asko luzatu den kontua izan da, eta horri irtenbide bat eman beharrraren urgentziak bultzatu zuen Oñatiko Udala proiektuaren prozesua bere gain hartzera. "Behar moduko geltoki baten beharra zegoen Elorregin eta halabeharrezkoa zen gune horretan komuna eskaintzea. Horren alde egin da hasieratik; ohi den moduan, herri desberdinei eta Gipuzkoako Foru Aldundiari loturiko proiektua izateak luzatu egin du prozesua", azaldu du Oñatiko alkate Izaro Elorzak. Erantsi du hori ikusita erabaki zuela Oñatiko Udalak proiektua euren gain hartzea, prozesua azkartzeko. "Emitza pozik egoteko modukoa da; azkenean, Elorregiko autobus geltoki duin bat du". Era berean, Elorzak azaldu du Elorregiko eraberritzea bat datorrela Oñatiko Udalaren mugikortasun iraunkorra bultzatzeko estrategiarekin.

Bergara eta Arrasate, pozik

Egoera bideratuta delarik, pozik azaldu dira Bergarako eta Arrasateko udalak ere. Bergarako alkate Gorka Artolak azaldu du "buruhauste asko eman dituen

proiektua" izan dela Elorregiko autobus geltokiarena, "batez ere, zailtasun teknikoengatik, eta, azkenean, aukerarik idealena ez den arren, irtenbide duin bat eman" zaiola auziari. Artolak, horrez gain, balioan jarri gura izan du eskualdeko hiru herri handien arteko

HIRU UDALEK ETA MANKOMUNITATEAK HITZARMENA SINATU DUTE MANTENU ETA GARBIKETARAKO



Komuna barrutik. OIHANA ELORZA

elkarlana. "Herritarren arazoei irtenbideak emateko egiten dugu lan, eta hori da, kasu honetan ere, egiten saiatu garena. Helburu partekatutak ditugunean errazagoa da lan egitea eta proiektu honetan hori ikusi da Bergararen, Arrasateren eta Oñatiren arteko elkarlanean".

Bide beretik eta pozik mintzatu da Arrasateko alkate Mainer Morras ere. "Elorregik merezi zuen autobus geltoki duin bat; izan ere, kokaleku estrategiko bat da Debagoieneko barne zein kanpo konexioetarako". Morrarak aurreratu duenez, agintaldian "lehentasunez" landu gura ditu garraio publikoaren kalitatea, efizientzia eta maiztasuna bezalako erronkak, "arrasatearrak hobeto konektatuta egon daitezzen eskualdearekin zein herrialdeekin, eta Arrasatera heltzen diren langile eta ikasleek garraio publikoa aukeratu dezaten".

Komuna jartzetik harago

Nagusiki, komunaren beharrak bultzatuta ekin zitzaion geltokiaren egokitze prozesuari. Halere, esku-hartze proiektua ez da horretara mugatu. Komunaz gain, hondakinendako edukiontzia, argiztapen sistema, markesina eta bizikletendako aparkalekuak eskaintzen ditu orain Elorregiko autobus geltokiak. Ez hori bakarrik; proiektuak bultzatuta, Oñatiko, Bergarako eta Arrasateko udalen eta Debagoieneko Mankomunitatearen arteko hitzarmena sinatu delako. Hori horrela, azken horrek hartuko du bere gain gunea garbitzeko eta mantentzeko ardura. "Hala, geltokiaren baldintza egokiak bermatuko ditu aurrera begira", argitu du Oñatiko alkateak.

Beskoitzeko Ikastolaren egoera larria salatuko dute

Manifestazioa egingo da Beskoitzen, azaroaren 18an; Txantxiku Ikastolan autobusa antolatu dute

M.A.A OÑATI

Datorren azaroaren 18an, zapatua, manifestazio nazionala antolatu dute Beskoitzen (Lapurdi), bertako ikastolaren alde. Manifestazioa ikastolaren egoera "larria" salatuzko izango da. Debagoienetik, Oñatiko Txantxiku Ikastolak antolatuta, autobusa egongo da Lapurdira. Zapatuan, hilak 18, goizeko zortzietan abiatuko da Oñatitik, eta, Beskoitzen egun guztian zehar izango diren ekitaldietan parte hartu ondoren, 20:00etarako Oñatin izango da bueltan autobusa. Bidaiaren kostua 10 eurokoa izango da, eta izena emateko epea azaroaren 14an bukatuko da. Interesdunek izena eman dezakete 943 78 12 04 telefonora dei eginda edo txantxiku@ikastola.eus helbidera mezua bidalita.

Aspaldiko harremana

Beskoitzeko Ikastolaren eta Oñatiko Txantxiku Ikastolaren arteko harremana luzarotik dator, eta oraingoan ere elkartasuna eta babesa erakusteko dei egin dute Oñatiko Txantxiku Ikastolatik. "Beskoitzeko Ikastola oso egoera larrian dago", azaldu dute oñatiarrek. "Udalaren aldetik zailtasunak eta oztopoak baino ez ditu jasotzen. Azkena irailaren 21ean iritsi zitzairen, alkateak ikastola berria eraikitze baimena ukatu baitzuen, eta, ondorioz, ikasturte honetako 51 ikasleek dagoeneko zaharkituta dauden eraikin prefabrikatuekin jarraitu beharko dute". Egoera horretan, hasiera-hasieratik aurrera egiteko eta konponbideak aurkitzeko ezintasuna salatu du Beskoitzeko Ikastolak. Herriko Etxearekin hitzordurik ez lortzea ere salatzen dute. "Ikastola ito nahi dute, euskara ito nahi dute", salatu dute Beskoitzeko Ikastolako kideek.

Jakin-mina programako hitzaldiak, Arrasaten

Gaur hasi eta martxoaren 24a arte, hilabete bakoitzeko ostiral batean, Jakiunde akademiako Jakin-mina programaren baitan bost hitzaldi antolatuko dira Arrasateko Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan, guztiak 17:30ean hasita

Julen Murua Mesonero ARRASATE
Jakiunde elkarteak Jakin-mina proiektua jarri du martxan, berriro ere, ikasturte berriari begira. Jakin-mina proiektuaren helburua da ikasle gazteei beren ezagutzak zabaltzen laguntzea eta ikasketak aukeratzean hobeto orientatu ahal izatea, eta, horretarako, diziplina anitzeko hitzaldi-zikloak antolatzen ditu akademiak, eskola-programaren barruan landu ohi ez diren edukiekin.

Aurtengoa hemeretzigarren edizioa izango da, eta, Jakiunde ohar bidez adierazi duenez, edizio horietan guztietan "parte hartu duten 2.000 ikasle bakoitzak gogobetetasunak" berresten du proiektuak duen indarra. Ikasturte honetan hamabost hitzaldi emango dira, hiru ziklotan banatuta, Donostian eta Arrasaten. Hilean ostiral batean izango dira, eskola-orduen ondoren, eta gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez emango dira hitzaldiak. Horietan

landuko diren gaiak askotarikoak izango dira, eta gaurkotasan handia izango dute; haien artean, eduki kulturalakoak egongo dira, historiaren, literaturaren, argazkilaritzaren eta zinemaren arloak barnean hartzen dituztenak. Baina baita gaurkotasuneko gaiak eta etorkizunak planteatzen dituen erronka berri buruzko gaiak ere. Gipuzkoako ikastetxeek DBHko 4. mailako 4/5 ikasle inskribatu ahal izango dituzte, baina adin-tartea handitu dezakete, eta diseinatutako zikloen artean aukeratu.

Hitzaldi-zikloa

Arrasaten antolatuko diren hitzaldi guztiak toki eta ordu be-

JAKIN-MINA PROGRAMAREN HEMERETZIGARREN EDIZIOA IZANGO DA AURTENGOA

rean izango dira: Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan, arratsaldeko 17:30ean hasita. Eskainiko dituzten bost hitzaldietatik lehengoak gaur izango da: *De la terapia física a la física como terapia*, Javier Martínez Ruizen eskutik. Bigarrena abenduaren 15ean eskainiko du Jon Mikel Zabala Iturriagaiti; *The absurdity of rankings: can we turn them into robust (and useful) measures?*. Urte berriarekin hasteko, urtarrilaren 19an, *Ukrainaren aurkako eraso eta Nazioarteko Zigor Auzitegiaren eskumena: eraso-krimena epaitzeko berariazko auzitegi bat sortzeko beharra?* hitzaldia emango du Miren Odriozolak; otsailaren 16an Lourdes Basaberen txanda izango da *Tecnología Lab-on-a-chip, un laboratorio en la palma de tu mano* hitzaldiarekin; eta, amaiteko, Aritz Milikuak *Energia elektrikoa sortu, gorde eta erabili* hitzaldia eskainiko du martxoaren 24an.



Elorregiko iazko topaketa. ENEKO AZURMENDI

Debagoieneko 'bibotedunak' Elorregin elkartuko dira

Movember mugimenduaren baitan, egitarau zabala antolatu dute bailarako herri ezberdinetan

J.M.M. DEBAGOIENA

Urtero gertatzen den bezala, urteko azken aurreneko hilabetearen iritsierarekin batera hasi da *Movember* mugimendua bailaran. Debagoiendar askok utzi dute dagoeneko bibotea, eta prest daude azaroan zeharreko egitarauari aurre egiteko. Egitarau horren barruan, eta urteroko ohitura jarraituta, *Movember* mugimendua jarraitzen duten debagoiendarrek topaketa egingo dute Elorregin; azaroaren 11n, 12:30ean. Aurten ere, Sanprubus inguruan egingo dute topaketa eta bertan mokadutxo hartzeko tartea ere izango dute.

Iban Arroiabe Mondravembereko kideak adierazi du "oso egun garrantzitsua" dela biharkoa *Movember* mugimendua jarraitzen dutenentzat, baina nabarmendu nahi izan du "herriari zuzendutako ekintzak" direla antolatutakoak, herrita-

rrak direlako, mugimendua jarraitzen dutenez gain, honi guztiari "indarra ematen diotenak". Arrasatearrek, gainera, mendi irteera bat egingo dute Elorregira iritsi aurretik, eta, ostean, bazkari solidarioa izango dute Hoba tabernan. *Movember* garako kidea da Eñaut Uriarte, eta adierazi du "egunaz gozatzeko oso gogotsu" daudela eta "oso garrantzitsua" dela bailarako herrien topaketa hau egitea, "sentsibilizaziorako".

Hilabete osoko egitaraua

Bergaran zein Arrasaten hilabete osoko egitaraua antolatu dute barrabiletako eta prostatako minbiziaren gaineko sentsibilizazio ekimena dela-eta. Oro har, bazkariak, bertsoak, kontzertuak edota poteo girotuak izango dira asteburuko ekintza nagusiak egitaraua antolatu duten bailarako herrietan.

Afrikako errealitateak ezagutzeko erakusketa egongo da Arrasaten

Asteleheneretik hasi eta hilaren 17a arte egongo da *Afrikan murgiltzen: (Re)contando África* erakusketa bisitatzeko aukera Arrasateko Debagoieneko Ezker Kultur Gunean; 18:00etan hasi eta 20:00ak bitartean. Debagoieneko Ezker Kultur Guneak eta Munduko Medikuek elkartek sortu duten erakusketaren helburua da "afrikar kontinentea-

ri buruz kontatu digutenari, kontatu ez digutenari eta nola kontatu digutenari buruz" gogoeta egitea.

Karina Senatore diseinatzaile grafikoak ilustratutako erakusketa da, non ezagutarazten diren *Afrikan murgiltzen* gida didaktikoko gaiak landuko dituzten bederatzia afrikar erreferente. Gida didaktikoan landutako materialarekin lortu nahi dute Euskadiko bigarren hezkuntzako ikasleei erakustea Afrikan bizi dituzten errealitateak.



Jon Mikel Zabala Deustuko Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileak emango du hitzaldietako bat. DEUSTUKO UNIBERTSITATEA

EMUN

Euskara planek enpresen lehiakortasuna indartzen dute, Emunen ikerketa baten arabera

Gehi izeneko ikerketak euskara planek enpresen lehiakortasunean eragindako ekarpenak ditu aztergai, Emun aholkularitzak sustatutakoa da eta asteen aurkeztu dituzte lehen emaitzak, hedabideen eta ikerketa eta lan munduko 80 bat pertsonaren aurrean.

Emunek 26 urte daramatza enpresetan euskara planak sustatzen. Euskarak enpresetan leku gehiago izateko aukerak aztertu eta hori aurrera eramateko bideak martxan jartzen lagundu die bezeroei, lana euskaraz egiteko bideak zabalduz.

Emunek aspalditik izan du intuizio bat: euskara planen bidez, euskara bultzatzeaz gain, beste gai batzuetan ere ekarpena egiten zitzaiela enpresei; langileen parte hartzea, pertenezia, besteak beste. Intuizio hori zuten arren, hori aztertu gabe ziren orain arte. Horregatik, orain dela urtebete, euskara planek enpresen lehiakortasunean izan duten eraginari buruzko ikerketa abiatu zuten, euren bezero diren lau enpresarekin batera. Olatz Olaso eta Onintza Legorburu Emuneko kideek jardun dute buru-belarri ikerketan.

Euskara plan bakoitzak enpresaren lehiakortasunari egiten dizkion ekarpenetan oinarritu dute ikerketa. Lehiakortasuna enpresen helburu gorenetakoa delarik, ikerketaren lehenengo partean, marko teorikoan eta kontzeptualizazioan, lehiakortasuna eta lehiakorra izatea zer den aztertu dute. Orain dela 40 urte modu oso itxi batean ulertzen zen kontzeptua; materiala merke erosi, bezeroari garesti saldu eta abar ziren helburuak. Azkeneko 40 urteetan, ordea, kontzeptua asko zabaldu da, eta gaur egungo teorian, beste ezaugarri batzuk sartzen dira, esaterako, inguruko gizarteari eta lurraldearen garapenari zer ekarpen egiten dion



Gehi ikerketako lansaiio batean.

IKERKETAREN ARABERA, NORK BERE HIZKUNTZAN LAN EGITEAN GUSTURAGO EGITEN DU LAN

EUSKARA PLANEK EGINDAKO BIDEA AZTERTU DUTE LAU KOOPERATIBATAN

EUSKARA PLANEK LEHIKORTASUNARI EGINDAKO 14 EKARPEN IDENTIFIKATU DITUZTE

enpresak. Irekitasun horren teoriak oinarrian hartuta ulertu dute lehiakortasuna ikerlariak, eta hortik begiratu diete aztergai izan dituzten lau enpresei.

Ikerketa Emunen bezero diren lau enpresetan egin da: Danobat kooperatiba, Fagor Electronica, Ikerlan eta Eika. Metodologikoki, lau kooperatiba horietan elkarriketak egin dira eta bertako dokumentazioa aztertu, bertako euskara planen ibilbideak aztertuz eta enpresari egin dizkieten ekarpenak definituz. Informazio hori osatu eta aberasteko kontraste saioak egin dira.

Ikerketari esker, besteak beste, euskara planetan gauza asko modu parte hartzailean egiten direla ikusi du Emunek. Gainera, langileak enpresaren proiektu baten parte izateak kohesioa areagotzen du, eta, ondorioz, langileak enpresan daukan inplikazioa.

Ikerketari esker, ondorioztatu dute euskara planek, gutxienez, 14 ekarpen ezberdin egiten dizkiela enpresen lehiakortasunari, eta hiru plano ezberdinetan sailkatu dituzte Olaso eta Legorburuk: enpresaren gobernantzarekin lotutakoak, enpresako langileekin lotutakoak, eta, azkenik, gizartearekin lotutakoak. Ez dituzte ekarpen den-denak aztertutako enpresa denetan atzeman, bakoitzean batzuk baino. Badaude, ordea, lau enpresetan errepikatzen diren ekarpen batzuk:

emun
Euskara eta
berrikuntza soziala

Uriburu 9, behea
227 PK 20500 Arrasate
Tel.: 943 711 847
emun@emun.eus
www.emun.eus

Langileen gogobetetzea

Langile euskaldunentzat beraien hizkuntzan lan egiteko aukera izateak lanean gusturago egotea dakarrela ikusi dute ikerketan, eta horrek enpresan ekarpen handiagoa egiteko aukera indartzen du.

Garapenari dagokionez, euskara planei esker, jende askok enpresan ikasi du euskara, beraz horrek, bai profesionalki bai pertsonalki garapen bat eragin du langilearengan. Aztertutako lau enpresetako kideek bat egin dute ekarpen honekin.

Lurraldearen garapena

Ikerketa aurrera eramanean den lau kooperatibetan oso argi dute euskara plana aurrera eramateak beraiek dauden lurraldearen garapenean ekarpena egitea dakarrela. Kooperatiba horiek, beraiei sorreratik, argi izan dute erantzukizuna daukatela euskararen biziberritzean, eta egiten duten lanari esker Euskal Herriaren euskalduntzean eta garapenean ekarpena egiten ari direla.

Langileen parte hartzea

Euskara planak, askotan, modu oso parte hartzailean eramanean dira aurrera. Langileen parte hartzea bultzatu dute: Euskara batzordeetan, Euskaraldian... Parte hartze horri esker langileak inplikatuago sentitzen direla ikusi da ikerketan eta, horri esker, ekarpen handiagoa egiten dutela.

Aurrera begira jarrita

Diagnostikoan ateratako ondorioak kontuan hartuta, Fagor Electronica, Ikerlan, Eika eta Danobat lanean ari dira etorkizunera begira. Eta galdera hau erantzuteko bideari ekin diote: Zer egingo dugu ezberdin euskara planean ekarpen handiagoa egiteko enpresari? Enpresa bakoitzak erronka bat identifikatu du, eta espermentazio fasean murgildu dira.

goiena[“]
kide

Okm: batzen gaituen distantzia



www.goiena.eus/kideak



ZABALIK

IÑAKI UGARTEBURU

Errugbiak irakatsi diguna

Urriaren 28an jokatu zen, Parisen, Munduko Koparen X. edizioaren finala, Hegoafrikako Sprinboks garaile izanik, 12-11, Zeelanda Berriko Kiwien aurka. Esaten den moduan, final-finala izan zen, gogorra, lehiatua, oso parekatua.

Azken hamarkadetan, errugbia goitik behera aldatu da. Ni neu 70eko hamarkadan hasi nintzen jokatzeko, eta orduko errugbian, adibidez, partiduan zehar ez zen jokalaria aldatzeko aurreikusten; soil-soilik, lesiogatik izan zitekeen eta epaileak onartu behar zuen. Azken urteetan, berriz, jokalarien osasuna zaintzea helburu garrantzitsua bihurtu da, eta gaur egun zortzi jokalaria daude eserlekuan aldatzeko prest; hau da, talde erdia aldatu daiteke. Horrela, beste helburu batzuk ere lortzen dira: ikuskizuna hobetu, taktika aldatu...

Egungo errugbiko araudian, jokalarien segurtasuna babesteko, *joko arriskutsua* izugarri zigortzen da. Jokaldi

JOKALARIEN ARTEAN EZ ZEN PROTESTARIK IKUSI, JOKALARIEN ARTEAN EZ ZEN ISKANBILARIK IZAN...

batean arau-hausteren bat antzematen dutenean goi mailan, TMO sistema erabiliz jokalaria kaleratu ahal dute, hasieran hamar minuturako, epaileek horrela erabakitzen badute txartel hori/gorria aterata; izan ere, jokalaria kanpoan dagoelarik, TMO

dagoen epaileak erabakiko du txartel horia den eta hamar minutuen ondoren zelaira bueltatu daitekeen, edo gorria den, eta orduan ez zaio zelaira bueltatzeko aukerarik emango. Modu horretan, joko gutxiago mozten da. Hobekuntza interesgarria hori ere.


Arestian esan dudan moduan, urriaren 28ko Munduko Koparen finala oso parekatua eta estua izan zen. Hiruzpalau kaleratze izan ziren eta, nire ustez eta beste askoren ustez ere, finalaren emaitza eragin handia izan zuten, baina zelaian zeuden jokalarien artean ez zen protestarik ikusi, jokalarien artean ez zen iskanbilarik izan, epailearekin kapitainak hitz egin zuen... A zelako erakustaldia!

Mundu mailan ikusle gehien lortzen dituzten kirol ekitaldietatik, Errugbiko Munduko Kopa hirugarrena da, Joko Olinpiarren eta Futboleko Munduko Koparen atzetik bakarrik.

Zorionak, eta ea beste kiroletako praktikatzailleok ikasten dugun.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



GUTUNAK

Esker ona Intxorta 1937 elkarteari Elgetatik

PATXI BASAURI, OXEL EROSTARBE, IRAITZ LAZKANO ETA IBON UNZETABARRENETXEA

ELGETA

Elkarbizitzaren eta memoria historikoaren berreskurapenaren alde egindako lan nekaezinagatik jasoko du Intxorta 1937 elkarteak aitortza.

Arrasateko Udaleko Bizikidetzak batzordeak emango dio.

Elgetan ere ondo asko dakigu lan nekaezin hori zenbatekoa den.

Azken hamarkadetan eskuz esku jardun dugu

lanean Intxortako frontean gertatutakoak ez ahazteko.

2004an Antzuategiko hilobien azterketekin hasi eta hamaika lan: Intxortako Atea eskultura, Memoria Historikoaren Interpretazio Zentroa, Intxortako borrokaldien errekreazioak, omenaldiak –bizirik zeuden gudari eta milizianoei, gerrako umeei, errepresaliatuak izan ziren emakumeei, elgetar errepresaliatuei...–

Etorkizuneko belaunaldiak Intxortan pasatu zenaz memoria sendoa osatzeko eta justizia eskatzen jarraitzeko ezinbesteko bidelaguna izan da eta izango da

aurrerantzean ere Intxorta 1937 elkarteak elgetarrondako.

Segi dezala luzaroan elkarlan honek.

Eskerrik asko!

NEREA OLASKOAGA

BERGARA

Orain dela asteburu bi, Labegaraletan ipini berri den bizikleta garbitzeko gunea lehenengoz estreinatzeak ohorea izan nuen.

Mendian bizikletan buelta ederra egin ostean etxera lokatzik gabe bueltatzea eskertzeko moduko luxua izan zen.

Beraz, eskerrik asko Bergarako Udalari.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.500 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

BERBAGAI

"Oso beharrezkoa da buru osasunaz hitz egitea"

LEIRE URRA PSIKOLOGOA

J. Murua Mesonero ARETXABALETA Ongizate emozionalaren gaia da gaur egun pil-pilean dagoen gaitako bat, eta, horren harira, Leire Urria (Aretxabaleta, 1984) psikologo aretxabaletarrak *Sare sozialak, alkohola, janaria... Ba al dago antsietatea kudeatzeko beste modurik?* hitzaldia eskaini zuen martitzenean Aretxabaletan. **Zeintzuk dira nahaste nagusiak?** Depresioa, antsietatea eta jokabide nahasteak dira arazo gehien sortzen dituzten nahasteak. **Nahasteek zein bilakaera izan dute belaunaldiz belaunaldi?** Datuek diote buruko gaitzen kopurua gazteen artean asko handitu dela, eta hainbat ikerketak erakutsi dute pandemiak sortutako ez-ohiko egoerak eragina izan duela, beldurra, isolamendua eta harreman sozialak murriztea ekarri duelako. Gaur egungo gizarte eredu kapitalista heteropatriarkalean indibidualismoa, exigentziak,



Leire Urria, psikologo aretxabaletarra. LEIRE URRA

lehiakortasuna edo prekaritatea ere badira ondoez emozional askoren atzean dauden errealitate gordinak. Datuak adierazleak dira, baina ez dira egia absolutuak; adibidez, ikusi da

egungo prebalentzia-azterketetan buru gaixotasun asko neskekin erlazionatu izan direla, baina azken ikerketek erakutsi dute ez dela aldatzen neska eta mutilen artean, baizik eta

desoreka laguntza eskatzerakoan gertatzen dela. **Egoera larria dela uste duzu?** Esku-hartzeko beharra badago, bai, eta lehentasunak izan behar dira heziketa emozionala, prebentzioa eta esku-hartzea gizartean orokorrean.

Behar bezain beste lantzen da gai hau egunerokotasunean?

Ez da nahikoa lantzen. Lanketa integrala eta zeharkakoa izan behar da, hau da, denontzat ongizate emozionala, eta ez modu puntualean, ikastaro solteekin. Gizarteko eremu guztietara iritsi behar da, eta gaur egun ez da horrela; ongizate emozionala sustatzeko zerbitzuak pribatuak eta garestiak dira, eta zoritxarrez jende askorentzat ez dago eskuragarri.

Norena da erantzukizuna?

Osasun publikoko arazo gisa, erakunde publikoek lehentasuna eta erantzun bat eman beharko liokete. Eta horrez gain, komunitatearen garrantzia aipatu nahiko nuke; prebentzioan norbanako gisa eta komunitate gisa daukagun ardura hartzea.

Gai tabua da?

Bai. Aldatzen ari da, batez ere, gazteengan. Haiek askoz errazago eskatzen dute

laguntza psikologikoa pertsona helduagoek baino. Beharrezkoa da buru osasunaz hitz egitea, estigma apurtzea.

Zeintzuk dira hartu beharreko neurriak?

Prebentzioan eta baliabideetan jarriko nuke arreta. Prebentzioari dagokionez, buruko osasunaren sustapena eta buru nahasmenduen prebentzioaren garrantzia azpimarratuko nituzke. Ildo horretan, aipatu nahi dut heziketa emozionala sustatzeko Hariak proiektua daukagula abian Carol Palacio eta biok, ongizate emozionala sustatzeko tailerrak eskaintzeko. Bestalde, osasun mentala zaintzeko baliabideak indartu behar dira, hutsune larriak baitaude.

Nola ikusten duzu ongizate emozionalaren gaineko etorkizuna?

Gero eta kontzientzia gehiago dago gai honekiko. Oro har, ongizate emozionala osasunaren zutabe garrantzitsutzat jotzen da. Etorkizuna ildo horretatik irudikatzen dut, aurrerapausoak ematen eta, hamarkada batzuetara, osasun emozional zein mentala zaintzea integratuago izango dugula uste dut.



Realaren eta Sevillaren arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Sevilla norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuek eta zuek aukeratutako beste lagun batek:

Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik.

Partida azaroaren 26an, 16:15ean, izango da.

Parte hartzeko azken eguna: azaroak 19.



Egin Goienakide eta Realak ikusteko aukera izango duzu!

goiena" kide

Okm: batzen gaituen distantzia

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!



1. Aplikazioa deskargatu.

2. Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu. Zorte on!



Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Arrasateko Oktubre Taldeak eta Bergarako Ondo Bihurto Taldeak jarri zituzten, nagusiki, gerora Intxorta 1937 Kultur Elkarte izango zenaren haziak. Izenak izen, ordea, 80ko hamarkadaz geroztik, helburu bera izan dute hiru taldeek: kolpista frankisten aurrean erresistentzia jarri zuten pertsonen memoria berreskuratzea, egia jakitea eta erreparazioaren alde lan egitea. Egun Intxorta 1937 Kultur Elkarte kide diren Nati Roak, Juan Ramon Garaik eta Julia Mongek ondo gogoratzen dituzte hasiera horiek. Espainiako Gerra Zibila galdu zutenen kontakizuna behar zela ikusi zuten: "Diktadorea hil ostean ere, diktadura garaian bezala, bazirudien 36ko gerran fusilatutakoak eta desagertuak ez zirela existitzen. Gudun gure herrietan egindako sarraskiak gai ukiezinak ziren, irabazlearen kontakizuna bakarririk zegoen". Hain justu, hutsune hori betetzeko konpromisoarekin hasi ziren lanean, 1985. urtean.

Orduko hartan, historia ikasketak egiten ari zen Jabi Balanzategi arrasatearra, eta erabaki zuen tesia 1934ko urriko iraultzari buruz egitea. Une horretan, Arrate Landa eta Aitor Landaluz irakasleek eta Andoni Lopez de Munain eta Juan Ramon Garaik langileek izen gabeko taldea sortu zuten, ikertzen hasteko. "Iraultza horretan parte hartutakoak elkarriketatzen eta artxiboetara joaten hasi ginen. Testigantzak jasotzerakoan, konturatu ginen 1934ko iraultza eta kolpe militarri egindako erresistentzia oso lotuta zeudela, baita XX. mendearen hasieratik bizi izandakoak ere", adierazi du Garaik.

1986an, frankisten altxamenduaren 50. urteurrena zela, jasotako informazioa aprobetxatu zuten *Memoria isilpeko argitzen* erakusketa egiteko. "Arrakasta handia izan zuen eta balio izan zigun beste testigantza batzuk, argazkiak eta dokumentu berri mordo bat lortzeko".

Lehen aldian zen gaia Arrasaten kaleratzen zutela. Gainera, erakusketa debate bat ere egin zuten Dragones batailoiko miliziano Jose Maria Arriaranek eta Saseta batailoiko gudari Joseba Elosegik, eta "oso arrakastatsua" izan zen. "Lortu genuen gaiaren inguruan herrita-



Intxorta 1937 Kultur Elkarte kide Nati Roa, Juan Ramon Garaik eta Julia Monge, Arrasaten. HASIER LARREA

Memorian gera dadin egindakoa

Memoriaren Egunarekin bat eginez, Intxorta 1937 Kultur Elkarte omenduko du gaur Arrasateko Udalak, "elkarbizitzaren eta memoria historikoaren berreskurapenaren alde egindako lan nekaziazatik"; Kulturategiaren klaustroan izango da saioa, 18:30ean

rren artean zegoen isiltasuna apurtzea, eta ahozko testigantza asko jaso genituen. Hitza eman gura genien urte haiek bizi izan zituzten errepublikanoei, ezkerrekoiei eta abertzaleei, bereziki fusilatuen senideen alargunei eta seme-alabei".

Geroz eta material gehiago

Apurka, geroz eta material gehiago batzen hasi ziren. "Paulo Kerexeta idazleak fusilatuen zerrendak eman zizkigun; Pedro Uribarrena udal artxibozain izandakoak berak gudariei egin-

dako elkarriketak eman zizkigun, eta Hernaniko eta Oiarzango eraiketen inguruko datu berriak ere jaso genituen Maite Landinen eta Manuel Lekuona apaizaren eskutik". Hala, 1986ko urrian, Oktubre Taldea sortu zuten eta, material horrekin guztiarekin, liburu baten zirriborroa ere egin zuten. "Jose Letona historiagileari eraman genion, gustatu zitzaion egindakoa, eta bere artxiboa ireki zigun. Hala, asko hobetu genuen testua".

Era berean, 1986ko urriaren 31n, Oktubre Taldeak mozio bat

aurkeztu zuen Arrasateko Udalean, fusilatuei monolito bat jartzeko. "Erantzuna ezezkoa izan zen, 'zauri zaharrak ez irekitzeko', haien esanetan".

Hori guztia izan zen oinarria *Arrasate 1936. Belaunaldi etena* liburua argitaratzeko. "Ezelako laguntzarik gabe egin genuen hori, batzuek uste baitzuten ezkutuan jarraitu behar zuela azaleratu genuen horrek". 37/87 Gernika jaialdian aurkeztu zuten liburua, 1987ko apirilaren 21ean. Horrekin batera, Arrasateko plazan omenaldi bat egin zieten eraildakoei eta plaka bat jarri zuten Arrasateko Legarre auzoan, fusilatutako pertsonen izenekin.

Eskualde mailako izaera

Oktubre Taldearen sorreratik urte batzuetara hasi zuen bere bidea Ondo Bihurto Taldeak, 1996an, eta memoria historikoa erreperatzen hasiak ziren Aretxabaletan eta Eibarren ere. 2002an, Debagoieneko Fusilatuen Senitartekoen Asanblada sortu zuten, eta hori izan abiapuntua Debagoieneko udal guztiek onar ezatzen orduko Laubide plazan monolitoa jartzea, eraildako eta

desagertuen izenekin. "Urte askotan, 1979ra arte, Guardia Zibilen kuartela egon zen leku hartan, baita gerora desagertu ziren Leintz bailarako atxilotuak ere. Omenaldi hartarako hasi ginen lanean gero Intxorta taldea sortu genuenok".

Hortik etorri zen Intxorta 1937 Kultur Elkartearen sorrera, 2005eko abenduan, eta Arrasateko, Bergarako, Oñatiko, Aretxabaleto, Elgetako eta Eibar kideek osatu zuten. "1937ko apirillean faxisten erasoak gelditu zituzten gudari eta milizianoen omenez jarri genion izena, non Arrasateko eta Aretxabaleto Dragones batailoikoak eta Oñatiko eta Bergarako UHP batailoikoak erresistentzian egon ziren", diote Intxortako kideek.

Lehen urteetako bultzada

Elkarteak bultzada handia izan zuen hasiera hartan eta, 2006an, omenaldi handi bat egin zuten Arrasaten, "gertatutakoaren lekuko zuzenak izan ziren pertsona askorekin". 2007an, halaber, *Intxortako atea* eskultura jarri zuten Elgetako Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin eta, 2010ean, Memoria Historikoaren Interpretaziorako Zentroa ireki zuten Espaloian, baita Intxorta mendietan berreskuratutako lubakietako ibilbidea ere. Urte berean sortu zuten argitaletxea ere eta, gaur egun, 28 liburu eta zazpi dokumental dituzte argitaratuta, "guztiak oroimena berreskuratzearekin lotuta". 2012an, era berean, Frankismoaren Krimenen Aurkako Kereilaren Euskal Plataformako kide egin zen elkarteak.

Emakumeen memoria argitara

Intxorta 1937 Kultur Elkartearen helburuetako bat bada emakumeen memoria kolektiboa berreskuratzea eta zabaltzea ere. "Nagusiki, historiarekin justizia egiteagatik, letra larriz idazten den Historia horrekin, non emakumeak, askotan, ikusezin bihurtu diren. Errepresioak eta diktadurak askotariko genero berezitasunak dakartzate. Izan ere, genero sistemaren posizio hierarkikoek bizi-esperientziak eta harreman sozial guttiz desberdinak inplikatzeko dituzte. Muturreko pobrezia egoeran, amatasuna, ugalketa, egunero-kotasunean bizirik irautea, ekonomia familiarra, zaintza lanen etika edota etxeko lanak beti-

Hainbat mugarri garrantzitsu

80ko harmakadatik, asko izan dira egin dituzten liburuak, dokumentalak, erakusketak eta ekintzak. Hemen hainbat mugarri:

- **1986** Oktubre Taldea sortu zuten eta *Memoria isilpeko argitzen* erakusketa egin zuten.
- **1987** *Arrasate 1936. Belaunaldi etena* liburua argitaratu zuten.
- **2003** Monolitoa jarri zuten Laubide plazan.
- **2005** Intxorta 1937 Kultur Elkarte sortu zuten.
- **2007** *Intxortako atea* jarri zuten Elgetan.
- **2012** Frankismoaren Krimenen Aurkako Kereilaren Euskal Plataformako kide egin zen elkarteak.
- **2013** Errekreazioa egiten hasi ziren Elgetan



Garai, Landaluze, Lopez de Munain, Balanzategi eta Landa. OKTUBRE TALDEA

1986an sortu zuten Oktubre Taldea

Espainiako Gerra Zibila galdutako kontakizuna jasotzeko sortu zuten Arrasaten Oktubre Taldea, 1986ko urrian, 1934ko urriko iraultzari keinu bat eginez. Argazkikoak izan ziren sustatzaile nagusiak. Hor sortu ziren Intxorta 1937 Kultur Elkartearen haziak.

danik egon dira politikaren logikatik kanpo. Aldiz, eta gizartearen garapena ulertzeko, alderdi hauek guztiak ezinbesteko elementu esanguratsu bilakatzen dira. Baina emakumea 'agente aktibo' seinalatzen duten praktika horiek oso gutxitan azaltzen dira historian 'ikasgai' gisa", nabarmendu dute.

Egindako lanari aitortza

Gaurko aitortzari dagokionez, zera diote elkarteko kideek: "Azken urteotan tratatu estua izan dugu Udalarekin. Gure lana babestu dute eta hurbiletik eza gutzen dute; badakite gauzatuak proiektuak militantzia desinteresatu baten ondorio direla eta, beraz, beti egiten du ilusioa hori guztia aitortzeak. Esker ona helarazi nahi diegu horretan parte hartu dutenei".

Horrez gain, Intxortak egiten duen lanera hurbiltzen diren pertsona guztiek atzean dagoen ahalegina aitortzen dutela uste dute elkarteko kideek. "Agian ez da gehiago handi bat, baina, gaur egun, erreferentzia handia gara memoria arloan; serio hartzen gaituzte, sinesten dute eta gure lana baloratzen dute. Seguruenik, pertsona gehien elka-

**2005EAN SORTU
ZUTEN INTXORTA 1937
KULTUR ELKARTEA,
BAILARAKO HAINBAT
HERRITAKO KIDEEK**

rrizketatu dituen elkarteak izango gara, eta hori ohore handia da guretzat. Pertsona horietako asko guk egin ahal izan diegun aitortza bakarrarekin hil dira".

2024a, "proiektuz josita"

Aurreratu dutenez, irailean gerrako haurrekin egindako tailerren jarraipena izango den erakusketa bat dute esku artean, *Basque Children of '37 Association*-ekin eta Judith Martinez Estradarekin elkarlanean. Halaber, Arrasateko emakumeen torturari buruzko liburu bat ere argitaratu dute, "lan kolektibo baten ondoren, genero ikuspegitik egina". Azkenik, gerrako haurren ikerketa Euskal Herri osora zabalduko dute eta Txile-ra ere joango dira: "Winnipeg ontziaren iritsieraren 85. urteurrena ospatuko dugu, erakusketa handi batekin eta zeharkaldi horri buruzko liburuaren bigarren edizioarekin".

Lanean jarraituko dute

Egindakoa asko izan arren, beste asko dago egiteko. "Egiaren bilaketa gu bezalakoan sorbaldetan dago oraindik, orain erakundeen laguntza handiagoa izan arren. Justizia arloan dugu erronka handiena, ehunka keirela baitaude epaitegitan, aurrera egiten ez dutenak. Gainera, artxibo askok frankismoaren bunkerrak izaten jarraitzen dute, lege zentzugabeekin". Oztopoak oztopo, baina, lanean segituko du Intxorta 1937 Kultur Elkarteak.

Euskararen kontrako oldarra dia gaitzetsi dute

EH Bildu, Elkarrekin Arrasate eta EAJ-PNV udal taldeek aurkeztutako mozioa onartu du udalbatzak, sozialistek aurka bozkatu arren; halaber, klima-aldaketari aurre egiteko hainbat neurri eskatzen dituen mozioa ere onartu dute, sozialistek aurkeztu dutena

E.A.B. ARRASATE

Arrasateko udalbatzak euskararen aurkako oldarra dia judiciala gaitzesteko mozioa onartu du azaroko ohiko osoko bilkuran, baina ezin izan dute erabateko adostasuna lortu. Izan ere, EH Bildu, Elkarrekin Arrasate eta EAJ-PNVk aurkeztu dute, baina sozialisten bi botoak aurkakoak izan dira. "Sozialistok ez gaude prest langile batek euskaraz ez jakiteagatik bere lana galtzeko. Enplegu duina bermatu behar dugu, eta hori da sozialiston lehentasuna", adierazi du Johanna Sanchez zinegotziak.

Kepa Urteaga EH Bilduren bozeramaileak nabarmendu du EH Bildu beti egongo dela eus-

kararen alde. "Bilbon ikusi genuena eredu polit bat da ikus-teko non gauden eta norantz joan gura dugun euskararen eskubideei dagokionez, eta beti borrokatuko gara horren alde. Pena da erabateko adostasuna lortzerik ez dugula izan".

Ander Garay jeltzaleen bozeramaileak zera adierazi du: "Pozgarria da hiru alderdi ados jarri izana. Euskaldunok eskubidea dugu euskaraz hitz egiteko eta euskaraz artatuak izateko, eta horren aurkako edozein epai irmoki gaitzetsiko dugu".

Sozialisten mozioa, onartuta

Era berean, alderdi sozialistak aurkeztu duen aterpe klimatiko

eta espazio publikoak birnatura-lizatzeari buruzko mozioa ere onartu du udalbatzak, aldeko hogeit bostekin eta aurkako bakarrarekin.

Mozioa onartuta, hainbat konpromiso hartu ditu Gobernuak: udalerriko "benetako espazio berdeari" buruzko azterketa bat egitekoa, bero boladetan aterpe klimatiko gisa balio dezaketen espazioak identifikatu eta egokitzeko, espazio berdeak areagotzeko eta Musakolan ur-parke bat egitea aztertzeak.

Horrez gain, kale-garbiketako kontratuaren luzapena eta Mankomunitateko eta hainbat ikastetxetako ordezkarien izendapenak ere onartuta geratu dira.



Martitzenean egin zuten azaroko ohiko osoko bilkura. E.A.B.

Kike Amonarrirek hitzaldia egingo du azaroaren 14an

Geikek antolatuta, Kulturateko areto nagusian izango da tolosarra martitzenean, 18:00etan hasita, *Si yo no sé euskera, ¿cómo le puedo ayudar?* hitzaldia eskaintzen. *Haurren aurrean helduok heldu* ariketa soziala indartzeko helburua izango du saioak. Zaintza zerbitzua ere egongo da, Txatxilipurdiren eskutik (ikus *Goiena.eus*).

Digitalizazioari buruzko hitzaldia azaroaren 21ean

Arrasateko Nagusien Kontseiluak antolatuta, *Digitalizazioa eta iruzurren prebentzioa* hitzaldia egingo dute hilaren 21ean, martitzena, Kulturateko areto nagusian, 17:30ean hasita. Laboral Kutxako Maria Montalvo eta Jokin Goya eta Mondragon Unibertsitateko Huhezi fakultateko Nerea Amesti izango dira gaiak hitz egingo dutenak.



Abenduaren 2an egingo du AEDk urteurren festa

Urte osoan zehar hainbat ekitaldi antolatu ostean, ospakizun giroan borobilduko du 40. urteurrena AEDk, 'Egindakoaz harro, goazen haratago!' leloari keinu eginaz. Besteak beste, baba-jana egingo dute Uarkapen: "Jende anitza da ongi etorria"

Hasier Larrea ARRASATE

Urte emankorra izan da berrogeigarren hau AEDrentzat: ohiko ekitaldiak albora utzi gabe, atzera begirako erakusketa eta beste hainbat kultur ekitaldi garatu dituzte; azkena herenegun, *Loreak belaunetan: kulturaren zazpi ahots gazte* dokumentalaren proiektioarekin. Azaroaren 23an *Hitzen ahaira. Zeri kantatzen diogu euskaldunok?* hitzaldi musikatu eskainiko dute Kulturoloko Udal Euskaltegian, 19:00etan, Gotzon Barandiaranen eta Rafa Ruedaren eskutik. Eta, asteon iragarri bezala, abenduko lehen zapatuan jai kutsuko eguna ospatuko dute.

Aletxo jarri dutenekin

Herriko komunitate anitzak batzea da ospakizun festa horren helburuetako bat. Kulturateko areto nagusian aitortza ekitaldi bat eginaz emango diote hasiera egunari, 12:00etan. Urteurreneko leloa, *Egindakoaz harro, goazen haratago!*, jarri diote izena hitzordu horri, iraganak, orainak eta etorkizunak bat egingo dutelako: "Lehenik eta behin, 40 urte hauetan lanean ibili diren kideei omenaldi xumea egingo diegu, gaur egun gu hemen egon ahal izateko egin duten lanari balioa eman nahian", azaldu du Ikuska Lizarralde, AEDko kudeatzaileak. Ondoren, gaur egun zertan diharduten azalduko dute egungo kideak, eta, era berean, gazte taldeak aurrera begira dituzten erronken berri emango du.

Ekitaldia amaitu ostean, 13:00etan, kaleak hartuko dituzte Seber Altube plazatik hasiko diren ibilbideekin. Alde batetik, erraldoien eta kilikien konparatza ibiliko da kalea alaitzen. Bestetik, "bermut magikoa" antolatu dute Kidam magoarekin, eta bere magia gozatzeko aukera egongo da herriko kaleetan zehar. Horrez gain, bisita gida-



AEDko kideak, asteon, jaiaren egitarauaren berri ematen. JOKIN BEREZIARTUA

BAZKARIRAKO TIKETAK SALGAI DAUDE AED-REN BULEGOAN, MONTEN ETA IRATIN

tua egingo da Anabel Ugalderekin Arrasateko alde zaharrea; azken ekintza horrek plaza mugatuak izango ditu eta aurrez izena eman beharko da, AEDn.

Baba-jana Uarkapen

Ondoren, bazkaria etorriko da, 14:30ean. Baba-jana antolatu dute Uarkape pilotalekuan. Espazio handi horren alde egin dute, ahalik eta jende gehienentzako tokia egon dadin. Menuari dagokionez, Iñaki Telleria bazkidearen esanetan, "aproposa eta oso geurea da, plater beroa eta indarra ematen duena delako".

Txartelak salgai daude joan den eguaztenetik AEDren bulegoan, Monten eta Iratin. Helduen txartelak 15 eurotan salduko dira, eta 12 urterainoko haurren kasuan, 10 eurotan: "Nabarmendu nahi dugu baba-janean be-

getarianoentzako aukera izango dela; izan ere, izango dituen gehigarriak (sakramentuak eta aza) banatuta egongo dira, bakoitzak nahi duena hartzeko aukera izan dezan. Horrez gain, gazta eta irasagarria izango ditugu postre moduan. Ohar bezala, azaldu nahiko genuke edariak ez direla barne egongo, eta halakoak erosteko aukera izango dela frontoian bertan", azaldu du Lizarralde.

Bazkaloste umoretsua ere izango dute Uarkapera bertaraten direnek, Bea Egizabalekin *Klownklusioak* izeneko bakarrizketaz gozatzeko aukera egongo da-eta. Amaitzeko, DJ Goikoren txanda iritsiko da: "Bere musikaz giro-tuko du pilotalekua; auzolanean bazkarikoa jasoko dugu eta eguraldiak laguntzen bagaitu, kalera joango gara kalejiran guztiok batera. Horrela emango diogu amaiera egun berezi honi. Deia egin nahi diogu herriko komunitate, eragile eta eremu anitzetako kide orori, laburbilduz, Arrasateko euskaltzale orori, AEDren urteurreneko jaiaren parte hartu dezan eta, guztien artean, giro apartean, egun berezi hau ospatu dezagun".



NIRE USTEZ

JOHANNA SANCHEZ

Ur zorrotadak

Zorrotada horiek loroaren txokolatea bezalakoak dira, zirkuitu itxiko sistemetan oinarrituta daudenez, uraren zati txiki bat baino ez baita galtzen.

Zorrotada horiek haurrak eta ez hain haurrak freskatzeko dituzte klima-aldaketak eragindako bero itogarriko egun horietan.

Ondo dakigulako, bero handia egiten badu, zurrusta horietan beti dagoela norbait oinak freskatzeko, edozein ordu dela ere, egunez, arratsalde edo gauez.

Bai, Arrasaten bi parke ditugu, Villa Amparokoa eta Santa Barbarakoa. Altxa dezala eskua zorrotadek sortzen duten haize leuna sentitzera inoiz hurbildu ez denak!

Beraz, zergatik ez beste bat Musakolan? Esan bezala, abantaila handia da zirkuitu itxiko sistema izatea, uraren zati txiki bat bakarrik galtzen da-eta; haurrak barre eta barre arituko lirateke, eta helduagoak ere gozaten...

Tira, neska-mutilak, lan pixka bat besterik ez da egin behar Musakolan ur parke bat jartzeko!



AZEko kideak, hamaikagarren aldiz egingo duten hitzaldi zikloa aurkezten. M. ARANA

Datozen hiru asteazkenetan, iraganaren hautsak harrotzera

'Iragana astintzen' zikloa antolatu du Arrasate Zientzia Elkarteak. Saioak Kulturaten izango dira, 19:00etan

H.L. ARRASATE

Beste urte batez, tokiko iraganari buruzko hitzaldi mamitsuak jarriko ditu entzuleen eskura Arrasate Zientzia Elkarteak. Datorren asteazkenean, hilak 15, botanika kontuei buruz jardungo du Maria Teresa Telleriak. Arrasatearra Madrilgo lorategi botanikoko lehen emakume zuzendaria izan zen, eta, jubilatua ondotik, nobelak idaztera pasada. "Gaztetan, Farmazia eta Botanika ikastea erabakitzerakoan, Arrasatek izandako eragina kontatuko du", azaldu du Pilar Askasibarrek, AZEko kideak.

Gesalibarko bainu-etxearen nondik norakoak aletuko ditu hurrena, hilaren 22an, Joan Pedro Valenzuelak, *Descendiente del Fundador del Balneario* liburuaren idazleak: "Izan ere, Mendia familiako kidea da; haren aurrekoak 1825etik 1997ra bainu-etxearen jabeak izan ziren. Istorio bitxiak kontatuko ditu".

Irulegiko Eskua jorratuz eta baskoien lurraldera atzera eginaz amaituko dute egitaraua hilaren 29an. Aurkikuntza haren indusketako zuzendariak egingo du berba, Aranzadi Zientzia Elkartearen Mattin Aiestaranek.



2021eko Santamas Txapelketako finalerako une bat. GOIENA

Santamasetakoa, bete egiten den txapelketa

Badator AKEkoen eskutik geroago eta arrakasta handiagoa daukan hitzordua. 32 bikoterendako lekua dago, eta izen-emateak segituan beteko direla aurreikusten du Fernando Okinak: "Zoritxarrez ez daukagu denendako tokirik, kantxa beharra dugu"

Xabier Urzelai Atxa ARRASATE

Lerrock irakurtzen dituzueneko, seguruenik, Santamas Padel Txapelketan esku hartzeko azken plazak geratuko dira salgai. "Izen-emateak zabaldu eta bost ordutan 22 bikotek emana zuten izena", adierazi du aste barruan AKEko ordezkari Fernando Okinak. Baina, badaezpada jakin, txapelketa azaroaren 17tik abenduaren 17ra jokatuko dutela, eta hilaren 13a dela izena emateko azken eguna [-ake.padel@gmail.com](mailto:ake.padel@gmail.com), 10 euro bikoteko-. Ez itxaron azken egunera arte, baina, berandu izango da-eta.

Bistan da Santamasetako txapelketak geroago eta jarraitzaile gehiago dituela. "Azken urteotan jendea kanpoan geratu zaigu, eta pena da, baina ez daukagu denendako tokirik; zentzu horretan, oso mugatuta gaude. Guztira 32 bikote onartzen ditugu, 64 jokalaria, eta lau astez-asteburuetan-pista biak behar izaten ditugu; lehenengo bi as-

tetako kanporaketetan bai, behintzat. Gainontzeko erabiltzaileak gurekin haserretzen dira, baina tira, ez dugu beste aukerarik", dio barrez. "Gogoan dut duela sei urte txapelketa honetako parte-hartzea ez zela erdira iristen, baina gorakada handia egon da. Iaz, esaterako, lau bikote kanpoan geratu ziren, eta zoritxarrez, aurten ere gauza berbera gertatuko da", dio Okinak. "Egia esan, txapelketaren berri ematen dugu han eta hemen, kartela ere ateratzen dugu, baina iazkoei abisua emanda nahikoa da txapelketako izen-ematea betetzeko".

Hala, partidak asteburuetan jokatuko dituzte, eta lehenengo kanporaketa gainditzen ez dutenek kontsolamendu txapelketa jokatuko ahal izango dute. Finalak, berriz, abenduaren 17an izango dira.

Bergarakoak, faborito

Azken urteotan bikote bergararrak nabarmendu izan dira

txapelketan. "Arrasateko jendeaz batera inguruko herrietakoak ere etortzen dira, eta azken urteotan Bergararik etortzen diren bikoteak nabarmendu dira; maila oso polita dute. Euretako batzuek Gasteizen entrenatzen dute, maila txukuna dute eta gurean ere beti ibiltzen dira aurrealdeko postuengatik borrokan. Bestela, herri mailako jokalaria ere etortzen dira jokatzerako, txapelketan esku hartu eta ondo pasatzeko asmoz, eta bestela ere padelean ibiltzen den jendea

"PADELEAN BIGARREN EGUNERAKO POSIBLE DA GOZATZEA, KIROL JARDUERA ERRAZA DELAKO"



FERNANDO OKINA
AKE PADELEKO
PRESIDENTEA

denez, bikote batzuek maila polita izaten dute".

Txapelketaren gorakada padela bera izaten dabilen gorakadaren isla da, Okinaren ustetan. "Gorakada handia ikusten ari gara; lehenago ere squash-arekin gertatu zen, baina gero kirol jarduera horrek beherakada handia izan du, ia desagertzeraino. Kontua da squashean jokatzeke sasoi onean egon behar duzula, eta, esaterako, belaunak kili-kolo baldin badituzu... Jende gaztea ibiltzen da normalean; kirol jarduera zorrotza da. Baina duela urte batzuk gorakada handia izan zuen, eta orain, azken hamarkada luzean, padela dabil gora egiten, gurean ere ikusten dugu".

Kirol erraza, abantaila

Okinaren esanetan, gorakada horren atzean oso arrazoi sinpleak daude. "Padelean jokatzen hasi eta bigarren egunerako gozatu egiten duzu, eta tenisean, esaterako, ez duzu halakorik egingo. Tenisean gozatzen hasteko urtebete behar duzu, pilota zuk nahi duzun leku horretara botatzeko entrenatu egin behar da, eta padelean maila oso gutxi ere posible da gozatzea, erraza delako. Ez da jarduera gogorra, dibertigarria da, lau lagun artean jokatzen da eta giro polita sortzen da... Uste dut hor dagoela arrakastaren gakoa. Egia esan, jokatzen hasi, eta jendea harrapatuta geratzen da. Estatu mailan ere ikusten dabilta lizentzia kopuruari dagokionez tenisekoa ere gainditzen ari direla. Eta esango nuke beste kirol jarduerekin alderatuta padelean emakumezko mordoak dabilela, geroago eta gehiago".

Arrasaten ere leku faltan

Eta beste leku askotan moduan, Arrasaten ere leku falta dute padelean jokatzeke. "Ez da hemen bakarrik gertatzen; kiroldegi askotan dute arazoa da; jende asko dabil padelean jokatzen, eta ez dago denendako tokirik. Esaterako, tenis pista bat dagoen tokian padeleko bi pista sartzen dira, eta bi laguneko jokatuko beharrezko zortzi lagun egon daitezke espazio horretan jokatzen. Oraingoz, daukagunarekin konformatu beharko dugu; inguruko herrietan ere egoera antzerakoan daude, baina pista gehiagoren beharra ikusten dugu.

Besaidek Oberenes mendietara egingo du irteera domekan

Sobrongo eta Haroko arroilen ingurura egingo dute irteera Besaideko lagunek domekan, Oberenesko mendietara. Mendilerro horretako tontorrek batez beste 800 eta 900 metro arteko garaiera dute, eta Besaidekoek bost ordu eta erdi inguruko txangoa prestatu dute. Fonceatik Pancorbora joango dira oinez (16 km).

Mugarri Ingouk Eibar hartuko du zapatuan Iturripen (18:30)

Bazen garaia partiduetan egingo lanak saria izan zezan, eta hori gertatu zen, hain justu, Mugarri Ingouren eta Elgoibarren arteko partiduan (28-16). Egia da Arrasateko eskubaloi taldeak ligako talde makalenetakoa izan zuela aurrean, baina garaipenak berdin balio du, eta konfiantza emango die. Eibar ere atzean dago sailkapenean.

Hirugarren dagoen Mondratek Afantxo izango du aurrean

Eta hain zuzen, Afantxokoak bigarren daude sailkapenean, horrenbestez, nazional mailako oilarren arteko partidua izango da zapatuan (17:30) Musakolan. Arrasatearrek zazpi partidutatik bost irabazi dituzte, azkena Gernikaren kontra (3-6). Eta Afantxokoek puntu kopuru bera dute (16); joan den astean 1-4 galdu zuten Tolosalaren kontra.

Muko neskek lider dagoen Ibaeta hartuko dute Ibarren

San Ignacioren kantxan 80-75 galdu eta gero, domekan maila nazionaleko talde onena izango da (18:30) Ibarren kantxan. Ibaetakoek jokatutako sei partiduetatik irabazi dituzte. EBA mailako gizonen taldeak, berriz, Cantbasketen kontra 98-90 irabazi eta gero, zapatuan Baskoniaren kontra jokatuko du Gasteizen (18:00).

"Herriaren laguntza behar du AGAKOk"

Gaztetxearen elkartasun jaialdia antolatu du AGAKOk zaturako. Arazo ekonomikoei "aurre egiteko" gustu guztietarako kontzertu eskaintza zabala eskainiko da Gaztetxean, eta herritarrak "elkartasun keinu" bat egitera animatzen ditu asanbladak

Miren Arana Pagaldai ARRASATE
Azaroaren 11n, zapatuan, AGAKOk antolatuta gaztetxeko elkartasun jaialdia ospatuko da. 19:30ean irekiko dituzte ateak, eta orduan erosi beharko da kontzertuetarako sarrera; ordu erdi geroago hasiko dira ekitaldiak. Txakurrak, Perlata, The Clayton eta Neallta Fola izango dira eguneko protagonistak; "Añube taldeko lagunek, nahiz eta hasiera batean zapatuko kontzertuetan izatekoak ziren, osasun arazoengatik ezin izango dute kontzertua eskaini", argitu du AGAKOk kide Ekiñe Kasadok.

Taldeekin izan duten harremana "erraza eta gertukoa" izan dela azpimarratu du asanbladako kideak, eta horrek lana "erraztu" diela: "Zapatuan arituko diren musika taldeek ondo ezaiztuzten dute gaztetxearen egoera, eta eskertzekoa eta pozgarria da taldeek erakutsi duten jarraera; zerbait ondo egiten dugun seinale".

Autogestioa oinarri
"Ekonomikoki mantentzea ez da gauza erraza; egoera ez da nahi izango genukeen bezain ona", aitortu du Kasadok. Izan ere, gaztetxeko asanbladak 32 urtez kudeatu du gaztetxea, betiere autogestioan oinarrituz, eta zenbait arazori egin izan behar die aurre: "Hamaika izan dira bidean aurkitutako arazoak, egungoak baino dezente handiagoak zirenak, beraz, honetatik ere aterako gara".

Arazoak arazo, AGAKO "gogotsu" eta "indartsu" aurkitzen da, herriari "alternatibak eskaintzen" jarraitzeko: "Taldea polita elkartzen ari gara azkenaldian, kide beteranoak eta berriak nahastuta; eta borobilean

"HAMAIKA IZAN DIRA BIDEAN AURKITUTAKO ARAZOAK, EGUNGOAK BAINO DEZENTE HANDIAGOAK"

antolatu ohi ditugu ekintzak, asanbladan, baita zapatuko jaialdia ere".

"Elkartasun keinua"

"Gaztetxeak beti egin du herriatik eta herriarentzat lan, herri gintzan, eta, horrela izaten jarraitzeko, herriaren laguntza behar dugu", aitortu du Ekiñe Kasadok. Azkenaldian, izan duten egoera ez da "erraza" izan gaztetxearentzat; "diruz larri" egoteak zaildu egiten du aurrera jarraitzea, eta jaialdiarekin egoera ekonomikoa "egonkortzea" espero dute.

"Herriaren berotasuna eta babesa dauzkagu, eta argi geratuko da hori berriz zapatuan", baieztatu du Kasadok; eta herritarrak "elkartasun keinu" bat egitera animatzen ditu. "Guztionez" espazio segurua izan dadin, protokolo trans feminista jarri dutela martxan ere adierazi du, eta, gainera, azpimarratu du ez dutela "inolako erasorik onartuko".

Jesusi Etxebarria, Perlataren bideoklipetik dokumentalera

Azaroaren 17an estreinatuko den 'Punkaren beste alde' dokumentalerako gonbidapenak, eskuragarri

Miren Arana Pagaldai ARRASATE
Perlatak zuzendutako *Punkaren beste alde* dokumentala estreinatuko da azaroaren 17an, Amaia antzokian. Jesusi Etxebarriari buruzkoa den dokumental biografikoak Jesusik Arrasateko musika giroari egindako ekarpenaren testigantzak jasotzen ditu, eta Jesusiren ibilbidea kontatzeaz gain, haren izaera zein ingurukoengan utzitako bizipen eta irakaspenak ere baten ditu lanak.

Perlatako Ane Garai, Jaione Martinez eta Maialen Oleaga, hirurak izan ziren Jesusiren ikasleak, eta hirurak burubelarri aritu dira dokumentalean lanean, The Badass Project-ekin batera. Perlatako Jaionek azaldu duenez, pasa den urtean taldeko bideoklip batean agertu ostean "sortu" zen dokumentalaren ideia: "Jesusiren ikasleak

izandakoak gara hirurok, eta modu batean edo bestean lagundu egin gaitu, ahaldundu. Musika inguruan asko ikasi genuen, gozamenetik eta modu askatzaile batean, guk eta arrasatear askok; beraz, Jesusiri buruzko dokumentala egin beharra genuela ikusi genuen".

Gonbidapenak, prest

Urte eta erdi lanean aritu ostean, ate joka dabil estreina eta jadanik eskuragarri daude gonbidapenak; dokumentala ikusteaz gain Jesusi Etxebarria ere bertan izango da, eta omenaldi bat egingo zaio; "sorpresaren bat edo beste" ere izango direla aitortu du Perlatako kideak.

"Beharrezkoa ikusten genuen estreina Arrasaten izatea; hala ere, ostean herriz herri zabaltzea nahi dugu; adibidez abenduaren 9an Durangon izango da ikusgai".

'Euskal Herria zure begietatik' argazki lehiaketa

Arrasateko Argazki Elkarteak antolatutako aurtengo argazki lehiaketan, egileek Euskal Herria nola ikusten duten erakutsi beharko dute aurkezten diren argazkiekin.

Argazkiak aurkezteko epea azaroaren 30ean amaituko da, 22:00etan. Argazkiak JPEG formatuan lehiaketak@artgazki.org helbidera bidali beharko

dira, kalitate onean eta tamaina originalean. Gehienez ere, hiru argazki aurkeztu ahal izango du pertsona bakoitzak.

Aurkezten direnen artean hiru sari banatuko dira: 300 eurokoa lehena, 200 eurokoa bigarrena, eta 100 eurokoa azkena. Bestetik, irudi irabazlearen eta aurkeztutako baten argazkia inprimatu eta salgai jarriko dira; salmantan bildutakoa AERYOH Espainiako Errakitismo eta Osteomalazia Heredatuen Elkartearentzat izango da.

Leo Bassiren hilaren 11ko ekitaldia, bertan behera

Leo Bassik azaroaren 11rako, larunbaterako, Amaia antzokian antolatutako emanaldia bertan behera geratu da ezinbesteko arazoengatik. Eskozap-etik, eskerrak eman dizkiete sarrerak alde aurretik erosi dituztenei, eta dirua lehenbailehen itzuliko zaiela hitz eman dute. Zerbait gehiago jakitean, birprogramatuko da ekitaldia.

Doke Antzerki Taldea Dulantziko jaialdian izango da asteburuan

Azaroaren 10ean Dulantziko Antzerki Amateur jaialdian izango da Doke Antzerki Taldea; *Hemen ez du inork ordaintzen* lana eskainiko dute, 19:30ean, Dulantziko Txema Blasco Kultura Etxeko auditoriumean. Emanaldiaz gozatu nahi duen ororentzat Arrasateko doako autobus zerbitzua eta antzezlanerako sarrera egongo da.



Perlata taldea Mondra & Roll jaialdian. IMANOL SORIANO



2022ko saioan, Xabat Illarregi kantuan. GOIENA

Koplen erritmora, bertsoaz gozatzeko unea

Aramaioko Bertso Eskolak eta Udalak antolatuta, Aramaioko IV. Koplak Txapelketa jokatu dute azaroaren 17an, barikua. Eskolako jangelan egingo duten afarirako eta saiorako agortu dira sarrerak; hala ere, egongo da koplez gozatzeko aukera

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Indartsu dator Aramaioko IV. Koplak Txapelketa, eta indartsu bezain gogotsu daude herritarrak; izan ere, azaroaren 17an egingo duten Koplak Txapelketako afarirako txartel guztiak agortu dira dagoeneko.

Hamar bertsolari arituko dira kantuan, eta Aramaion txapeldun izandako Xabat Illarregi eta Maider Arregi ez direnez aurkeztuko, txapelketak txapeldun berria izango duela esan daiteke. Kantuan ibiliko dira: Eneritz Artetxe azkoitiarra, Etxahun Lekue larrabetzuarra, Jexux Mari Irazu larrauldarra, Jon Mata antzuolarra, Maddi Ane Txoperena lesakarra, Maialen Akizu urretxuarra, Maider Altona arrigorriagarra, Saioa Alkaiza iruindarra, Unai Anda zuiarra eta Unai Izagirre Attola azkoitiarra.

Bi zati izango ditu

Txapelketa bi fasetan jokatu dute. Arratsaldean, Goiko ta-

berna zegoen tokiaren parean elkartuko dira hamar bertsolariak. Trikitilariak lagunduta, kalean egingo dituzte lehenengo ariketak. Eskolako jangelan egingo den bigarren zatirako sarrera guztiak agortu diren arren, lehenengo fasea entzuteko ez da edukiera mugarik egongo. Hortaz, herritar guztiek izango dute koplez gozatzeko aukera.

Musikariek lagunduta jokatu dute bigarren fasea: afalostean hamar bertsolariak hasiko dira kantuan, eta bi sailkatuko dira buruz burukora. Aramaioko Bertso Eskolako kide Aitor Ugartek eta Olatz Zuazubiskarrekin gidatuko dituzte bai kaleko saioa eta baita jangelakoa ere.

HAMAR BERTSOLARI ARITUKO DIRA KANTUAN: GAZTEAK ETA BAITA BETERANOAK ERE

Udazkenean, berriro ere

Aurtengoa laugarren edizioa izango da. 2018an egin zuten lehenengo Koplak Txapelketa. Orduko hartan, Maider Arregi oñatiarra nagusitu zen; 2019an, Xabat Illarregi leitzarra; hurrengo bi urteetan ez zen txapelketarik jokatu, eta, iaz, berriro ere irabazi zuen Illarregik.

Gainera, iaz, sasoz ere aldatu zuten txapelketa. "Ekainean jokatu genuen, eta Dukienean izan zen finala. Bertso eskolaren partetik omenaldia eskaini nahi genien", azaldu du Xabi Igoak. Aurten, berriro ere udazkenean izango da txapelketa.

Koplak, neurri aldetik, bertsoak baino motzagoak izaten dira, eta horrek dakar bizkorragoak izatea, eta, ondorioz, sortzen den giroa dinamikoa izaten da. Bertsolariak dagokienez, aukeraketa anitza egin dute: "Gazteak egongo dira, eta beterranoak; emakumezkoak, gizonezkoak; eta herrialde guztietakoak. Anitza izango da saioa".



NIRE USTEZ

JESUS ARREGI BENGOA

Mendetako oldarraldia

Hizkuntza bat ez da hiltzen gramatika edo lexikoa usteltzen zaizkiolako, hiztun guztiak galdu izanagatik baizik. Hori, gehienetan, desagertuko den hizkuntza beste batek ordezkatzeko gertatzen da, betiere hizkuntza galduko duten hiztunen borondatearen kontra. Euskaldunok gaude bide horretan: espainiar-frantses inperialismoak euskara ordezkatzeko ari dira, espainola/frantsesa ezartzeko.

Jende samalda handia bildu zen Bilbon aurreko astean euskararen aurkako oldarraldia (ordezkapen prozesua) salatzen. "Akordio soziopolitiko" berria behar da euskara salbatzeko. Uste du inork espainolak eta frantsesak soka-dantzara etorriko direla akordio hori negoziatzera?

Alferrik asmo onak, lagunok, inperioak bere hizkuntza inposatzen du beti. Independentzia da bide bakarra gure zergak administratu, gure hezkuntza eratu, gure kultura garatu eta. egin ahal izateko gure hizkuntza nazionalen: euskara.

Arrasate Musikaleko txistulariak eta Assata, Gantzagan

Gantzagako jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran. Gaur, barikua, Assata taldeak kontzertua egingo du, 19:30ean. Bihar, zapatua, kanpai errepikak joko dituzte 09:00etan; 12:00etan meza izango dute, eta ondoren bermut dantza. Arratsaldeko 17:30ean patata tortilla lehiaketa izango dute, eta horiek dastatzeko aukera izango da, 19:30ean. Gauean dantzaldia izango dute Akorde-ren eskutik.

Domekan, aldiz, bi ekintza entzutetsu izango dituzte: 11:15ean Arrasate Musikaleko txistulari bandaren kontzertua; eta, 12:30ean 41. Gantzaga Txirindulari Saria. Trikitilariak, bingoa eta tutea ere izango dira.

'Minimach' animazio filmak etxeko txikitxoendako

Haziaraba in the mapping jaialdiaren barruan *Minimach* animazio zinema botako dute domekan, kultura etxean. 17:00etan izango da emanaldia, 2 eta 5 urteko umeei zuzendutakoa. Marrazki bizidunek osatuko dute istorio poetikoa; gainera, ikusleak epaimahai ere izango dira jaialdiko sail honetan. Entretentzeko eta hezteko saioa.

San Martin Pilota Txapelketako finalak bihar izango dira

Bihar, San Martin egunez, IX. Pilota Txapelketako finalak izango dituzte. 16:00etan hasiko dira lehiak: Alebin B mailan, Txukun Lakua Txukun Lakuaren aurka; Alebin A mailan, Amurrio Adurtzaren aurka; infantil Bn, Aramaioko Ibai Osorok eta Kristian Moledok Txukun Lakuaren aurka jokatu dute; infantil An, Agurain eta Amurrio lehiatuko dira; kadete B mailan, Markel Beitia eta Unax Gonzalez aramaiorak Amurrioren aurka lehiatuko dira; benjamin mailan, Oinatz Bailez eta Kerman Garcia Txukun Lakuaren aurka; eta, kadete A mailan, Txukun Lakuako pilotarien lehia izango da Maider Unda pilotalekuan.

PATXI CASTRO

Era guztietako aukien konponketa

• Tapizatu lanak

• Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta

• Besuuki, mahai, saskiak e.a

943 78 71 65
639 01 69 69



Iker Elexpuru zuzendaria –lehen ilaran lehenengoa– eta Irati Lete –lehen ilaran bosgarrena– irakasleekin. KURTZEBARRI ESKOLA

Irati Lete pauso berriak ematen Kurtzebarrin

Atzegi eta Gureak erakundeek sortutako Pauso Berriak programari esker, Irati Lete Castro gazte aretxabaletarra Kurtzebarri eskolan dabil lanean; haren zeregina da, besteak beste, bertako bi jantokiak prestatzea egunero, ikasleek bazkal dezaten

Mirari Altube ARETXABALETA

Desgaitasun intelektuala duten pertsonak lan munduan sartzen laguntzen du Pauso Berriak programak. 2010az geroztik da abian, eta Atzegi eta Gureak erakundeek kudeatzen dute. Eta hain zuzen programa horri esker, Irati Lete Castro (Aretxabaleta, 2002) Kurtzebarri eskolan hasi berri da lanean.

Egunero, lau orduz

Lan mundura murgiltzeko prozesu horretan "bakoitzaren gaitasunen araberako programak zehazten dira", eta Leteren kasuan Kurtzebarri eskolara jo zuten. Proposamenari hasieratik eman ziotela baietza azaldu du Iker Elexpuru zuzendariak: "Irati-tiren kasua azaltzeko etorri ziren guregana. Hasieratik iru-

ditu zitzaigun oso ideia polita. Izan ere, gure ikaslea izandakoa da eta ezagutzen dugu. Gainera, eskolaren proiektuarekin bat dator egitasmoa".

Hortik abiatuta, gaztearen profilararekin ondo egokituko ziren zereginak diseinatu zituzten aholkulariekin. Eta irailaren 18an, ikasturte hasierarekin batera, lanean hasi zen. "Horre-

Komunikazioan eragiteko ekintzak, tratu onak sustatzeko

Jaialdia antolatu dute haur eta nerabeentzat gaurko, eta martitzenean, hitzaldia izango dute gurasoek

M.A. ARETXABALETA

Azaroaren 20an ospatzen den Haurren eta Nerabeen Eskubideen Nazioarteko Eguna dela eta, komunikazioa ardatz izango duten hainbat ekintza antolatu dituzte Aretxabaletako

Udaleko haur eta nerabe zerbitzuek elkarlanean. Haien helburua da tratu onak sustatzea. "Berdinkideen arteko harremanetan bortizkeria ohiko bihurtu dela ikusi da. Irainak eta jolasetan egiten diren eraso fisikoak

oso normalizatuta daude nerabeen artean", adierazi dute antolatzaileek. Horregatik, gaztelekuan, ludotekan eta hizkuntza errefortzu zerbitzuetan horren bueltan gogoeta egingo dute egunotan.

Jaialdia eta hitzaldia

Ekintza bi ere antolatu dituzte "tratu on horiek" bultzatze aldera. Gaur, azaroak 10, jaialdia egingo dute Herriko Plazan: 17:30ean, haurrei eta nerabeei zuzendutako ginkana izango da.

Eta ondoren, 18:30ean, grafiti bat margotuko dute plazan, horretarako jarriko diren paneletan; Iban Urreta Etxeberria grafitigile aretxabaletarrak gidatuko du hori.

Martitzenean, azaroaren 14an, oster, gurasoendako hitzaldia antolatu dute. Nerabezaroa eta komunikazioa izango da gai nagusia, eta Aretxabaletako Ikasiz zentroko Jone Galdos psikologoak emango ditu horren gaineko azalpenak; 18:00etan da, Arkupen.

"Ikasle izan nintzen eta pozik itzuli naiz"

IRATI LETE CASTRO
JANGELAKO LAGUNTZAILEA

Hainbat aste daramatza Kurtzebarrin eta ezin gusturago dago. Jangela inguruan egiten du lan, egunero, eguerdi partean.

Zeintzuk dira zure eginbeharrak?

Jangelako lanetan laguntzen dut: mahaia prestatu, umeak jantokira ekarri, zaborra sailkatu eta bota... Bi jantoki ditugu, eta txikian Arantzazuri laguntzen diot umeekin. Gero, jolastokira joaten naiz haiekin.



MIRARI ALTUBE

Pozik zabilta lanean?

Bai, oso pozik. Bertako ikaslea izandakoa naiz eta berrituen hemen, pozik; lehengusuen eta inguruko babesa dut, gainera. Urte guztia egongo naiz, hortaz, ezin gusturago nago.

Zer da gustuko duzuna?

Irakasleekin eta hemengo lagunekin egotea, bereziki. Eta bertan egiten dudana guztia ere bai, gauza asko egiten ditugu eta.

tarako, hona etorri ziren egitasmoaren ardura duten teknikariak azalpenak bertatik bertara emateko, Irati-tiren eginbeharrak zehazteko eta gure jarrera zein izan beharko litzatekeen argitzeke. Orduetik, hilabete baino gehiago pasatu da, eta oso gustura daudela adierazi du: "Guztik eta Irati bera ere hala ikusten dugu".

Egunero lau orduz izaten da eskolan, 11:00etatik 15:00etara bitartean: "Bi jantoki ditugu; bata ume txikiena, eta bestea Lehen Hezkuntzako ikasleena. Bietan egoten da; lehenengo, nagusien jantokia gertatzen laguntzen dio hango arduradunari. Eta gero Haur Hezkuntzako ikasleekin egoten da: haien bila joan jantokira ekartzeko, bazkaltzen lagundu, jolastokira eramane... Birziklatzeko honda-

kinak ere ateratzen ditu. Eta bukatzeko, tarte bat izaten du lankideekin bazkaltzeko". Eroso eta lasai dabilela gaineratu du Elexpuru: "Egokitzapen bat egin da hasieran, Pauso Berri-keko laguntzailearekin, eta oso ondo moldatu denez laneratzeko urratsak bizkorrago eman dira. Izan ere, etxean dagoela ikusi dugu, oso eroso".

Egitasmoaren garrantzia

Halako egitasmoen garrantzia azpimarratu du eskolako zuzendariak: "Ezinbestekoak dira. Aberasgarria da guretzat, eredu bat delako, eta aberasgarria da ikasleentzat, ikus dezaten aniztasun horren baitan guztiok dugula tokia ingurune honetan eta gizarte honetan. Eta sinistuta gaude guk gehiago dugula ikasteko, emateko baino".

Mobiliario
ARENZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Gidoiak eta antzezlanak, lehiaketarako eskaerak

Bergarako Idazle Eskolak eta Aretxabaletako Udalak elkarlanean antolatzen duten Karmele Igartua Sorkuntza Lehiaketaren XIII. edizioa abian da; lanak aurkezteko epea abenduan bukatuko da eta irabazleak 2.500 euroko saria jasoko du

Mirari Altube ARETXABALETA

Idazle berriak bultzatzeko lehiaketa da Karmele Igartua Bengoaren omenez Aretxabaletako Udalak eta Bergarako Idazle Eskolak elkarlanean antolatzen dutena, eta aurten, haurrei eta gazteei zuzendutako gidoiak eta antzezlanak eskatu dituzte. Horren berri eman dute Ibai Zangitu kultura zinegotziak eta Idazle Eskolako zuzendari Tere Irastortzak eta epaimahaiko kide Itziar Gomez idazle eta irakasleak.

Lan bakarra

Azaldu dute Igartuak harreman estua izan zuela eskola antzerkiarekin: "Bazuen lotura zuzena eskola antzerkiarekin; haurrei eta gazteei zuzendutako antzerkiarekin bazuen pasio bat, eta hori islatzea erabaki dugu". Hortik, antzezlanak eskatzearen arrazoia. Gidoigintzari dagokionez, izan daiteke irratira zuzendutakoa, dokumentaletara edo filmetara.

Gaia librea izango da eta lanek 20 eta 30 orri arteko luzera izango dute. Gainera, lan bakarra aurkeztu ahal izango da, hau da, ezingo da lan bat antzerkirako eta beste bat gidoigintzarako aurkeztu. Hori postaz aurkezteko epea 2023ko abenduaren



Idazle Eskolako eta Udaleko ordezkariak lehiaketaren berri ematen. XABI URZELAI

lean amaituko da, eta elektronikoki jasotzekoa, abenduaren 3an –gauerdian–. Irabazleak 2.500 euroko saria jasoko du, eta datorren ikasturtean Idazle Eskolako edozein modulutan parte hartu ahal izango du, inolako matrikularik ordaindu gabe.

Zangitu zinegotziak erreferentzetat du Igartua: "Aretxabale-tako emakume erreferentea izan zen, eta orain tokatzen zaigu erreferente berriak topatzea, herrian zein herritik kanpo; eta nik uste sorkuntza beka hau garrantzitsua dela horretarako".

Igartuaren obra osoa jasota

Gidoiak zein haurrentzako antzerki lanak idatzi arren Igartuak, poeta moduan egin zen, bereziki, ezagun; horren erakusle, Espainiako Poesia Sari Nazionalako finalista euskalduna izan zela haren azken liburua. Hiru liburu argitaratu zituen Igartuak –*Hitzak orbainetan*, *Denbora enaren hegaletan* eta *Itsaso kontra bat*–; eta horiek *Poesia bizitzeko eta sentitzeko modua* izeneko obra bakarrean bildu zituen Pamielak iaz. Arkupen dute bilduma hori salgai.



YAAKAR ELKARTEA

Ordenagailuak Senegalera

Yaakar elkarteko kideak Arizmendi ikastolako mikroinformatikako ikasleekin izan dira Senegalgo proiektuaren berri ematen. Mbam eskualdeko eskolara bidaliko dituzten ordenagailuak prestatuko dizkiete. "Kalitatezko hezkuntza jasotzeko, etorkizuna eta ingurunea hobetzeko, eta ametsak gauzatzeko giltza izango dira ordenagailuak", adierazi dute.

Azaroaren 25eko bazkari feministarako txartelak salgai daude

Indarkeria Matxistaren Kontra-ko Nazioarteko Eguna aldarrikatuko da azaroaren 25ean, eta Aretxabaletako Mugimendu Feministak eta Udalak elkarlanean antolatu dute egitaraua; besteak beste izango dira emakume sortzaileen azoka, bazkari feminista eta *Ez da kasualitate* bertso-saioa –guztiak Iturrigorri pilotalekuan–. Gero, arratsaldean, Mugimendu Feministaren ekintza ere izango da.

Bazkarirako txartelak dagoeneko salgai daude Urbaltz eta Paulaner tabernetan; honako hau izango da menua: kalabaza eta jengibreko krema, arroza eta postrea –laranja natilla edo azenario tarta–.

OHARRAK

Sare-ren asanblada

Batzarra du gaur Sarek, eta hizpide izango dituzte presoen etxeratzearen fase berria, Gabonetarako proposamena eta *Giltzak* manifestua. Udaletxe zaharrean da (18:30).

Zinema

Helduek *Oppenheimer* filma izango dute gaur (22:00), bihar eta etzi (19:30) eta astelehenean (16:00); umeek, ostera, *Mavka: basoaren zaindaria* filma bihar eta etzi (17:00).

Literatura solasaldia

Yoko Ogawa japoniarraren *La fórmula preferida del profesor* lanaren bueltan jardungo dute, eguaztenean, liburutegian (18:00).



RPS: 83/19





Durana
Hertz Klinika

**INPLANTOLOGIAKO
ESPEZIALISTAK 3D
TEKNOLOGIA BERRIENAREKIN**

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN
ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55



lazio ardo dastatzea Euskaraldirako muntatutako karpa barruan egin zen. I.BELOKI

Ardo bereziak edatera, krocketekin lagunduta

Zapatu honetan, Atxorrotx Kultura Elkarteak antolatuta, ardo bereziak dastatzeko aukera izango da Fernando Eskoriatza plazan, 18:30etik aurrera. Kroketa bereziak ere jarriko dituzte salgai, eta erromeria izango da Eskoriatzako txistulariek girotuta

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** Atxorrotx Kultura Elkarteak antolatutako urteroko hitzordua izan ohi da ardo dastaketa. Hamaseigarren edizioa izango da aurtengoa, kontuan hartuta, pandemia urtean bertan behera geratu zela. Ekintza antolatzearen helburua, berriz, egiten hasi ziren urtean bertan ezarritako berdina da: "Betiko ardoetatik pixka bat atera, eta eskaintza zabaltzea da asmoa, hau da, normalean tabernetan topatzen ez diren ardoak dastatzea. Horrekin batera, urteroko hitzordu garrantzitsua dela uste dugu Atxorrotx Kultura Elkarteak kideek, eta mantendu beharrekoa, kontuan izanda herritarren erantzuna oso ona izaten dela", adierazi du Iñaki Kortazarrek, Atxorrotx Kultura Elkarteak kideak.

Zapatuan, 18:30etik aurrera

Iluntzeko hotzari, hala egiten badu behintzat, ardoarekin aurre egiteko zita izango dute zapatu honetan, 18:30etik aurrera Fernando Eskoriatza plazara gerturatzen direnek. Ardo onduak eta kanpoko ardo bereziak probatu ahal izango dituzte, baita mokadutxo ederrak jan ere. Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoan ikuskizun egunarekin bat egin izan du ardo dastaketak, baina aurten ez da horrela izango, azken edizioetan moduan.

"Azaroko zapatu batean egin izan dugu beti ardo dastaketa; hileko hirugarren edo laugarren zapatuan, normalean. Gainera, beti saiatu izan gara pailazoan ikuskizunarekin bat egiten, baina azken urteetan ez dute kontziditu; aurten ere ez. Hala ere, uste dugu harrera ona izango dugula", adierazi du Kortazarrek.

Ardo eta krocketak

Hamaika ardo mota ezberdin izango dira probatzeko. Horien artean, txuriak, beltzak eta cava bereziak. Galiziako ardoak izango dira, baita Nafarroakoak, Arabar Errioxakoak, Kataluniarakoak, Aragoikoak, Extremadurakoak eta Dueroko Erriberakoak ere. Adibidez, honako hauek: Valtea Albariño, Maruxa Godello, Vizcarra, Habla el silencio, 3 Picos, Milleniun Ondarre...

Edariari laguntzeko, berriz, beste edizio batzuetan, odolki-pintxoak eta Pates Zubiaren eskutik foie-pintxoak jarri izan dituzte ardo dastaketan, baina, aurten, Kroketa-aren aldeko hautua egin dute antolatzaileek; urdaiazpiko-krocketak eta trufa eta Goenaga kremazkoak izango

AURTENGO EDIZIOAN, EURO BAT ORDAINDU BEHARKO DA EDALONTZIARENGATIK, ESKUDIRUTAN

dira bertan gozagarri: "Foiearen prezioa neurrigabea izanda, kroketa bereziak izango ditugu aurten. Kroketa-aren gaineko iragarki bat ikusi genuen, beraiekin egon ginen, produktua eskaini ziguten, gustatu zitzaizgun, eta aurrera. Kroketa kontsumitzailea, gainera, oso orokorra da, hau da, haurrentzat zein helduentzat izan daitezke; beraz, funtzionatuko duelakoan gaude", dio Kortazarrek.

Txartel bidezko sistema

Txartel bidezko urteroko sistema erabiliko dute aurten ere antolatzaileek. Kopa bat ardo hartzeko edo pintxo bat jateko, tiket bidezko funtzionamendua izango da. Hau da, tiketa erosi beharko da lehenengo, eta, gero, edatekoa edo jatekoa eskatu. Hori horrela, tiket bakoitzak 2 euroko prezioa izango du, eta pintxo bakoitzak ere berdin; hala, pintxoak zein ardoak tiket bakarrarekin eskuratu ahal izango dira. "Aurten, berritasun moduan, mahai bat jarriko da tiketak erosteko, eta edalontziak euro bat ordaindu beharko dira, eskudirutan".

Zerbitzatzen, dena antolatzen, krocketak frijitzen eta bestelako lanetan Atxorrotx Kultura Elkarteak kideak edo laguntzeko prest dauden herritarrak arituko direla adierazi du Kortazarrek; aldeztatik, eskerrak eman dizkie horiei gutzietan.



AXTROKI ARKU TIRO TALDEA

Arkuarekin punteria zorrozten

Joan den zapatuan, azaroaren 4an, Leintz Eskola Kiroleko kirol egokitu saileko gazteen bisita izan zuten Axtroki Arku Tiro taldeko kideek, Joseba Iñurrategi frontoian. 11:00etan batu ziren Eskoriatzako arkuarietara, eta arkuarekin euren punteria probatzeko aukera izan zuten bertaratu ziren lagunek. Saioa amaitzean, talde argazkia atera zuten.

Gaur da 'Energia argitu'-n izena emateko azken eguna

Aldundiko Jasangarritasun Departamentuak, Eskoriatzako Udalarekin elkarlanean, *Energia argitu* programaren baitan, etxean energia-eraginkortasuna hobetzeko eta faktura elektrikoa murrizteko helburua duen kanpaina antolatu du. Azalpen-tailer batekin hasiko dira: *Aurrez-tu dirua eta irabazi osasunean zure etxebizitzan* izeneko azaroaren 15ean izango da, 18:30ean, Ibarraundi Museon.

Kanpaina honetan parte hartu nahi duten herritarrek gaur, egubakoitza, azaroaren 10a baino lehen izena eman beharko dute argitu@gipuzkoa.eus helbidera idatziz edo 628 53 23 03 telefono zenbakira deituz.

Lan eskaintza: bi peoi lurperatzaile eta administrari bat

Eskoriatzako Udalak hiru pertsona kontratatuko ditu enplegua sustatzeko 2023ko dirulaguntzen baitan. Bi peoi lurperatzaileak hiru hilabetez egongo dira lan jardun osoan; administraria, berriz, sei hilabetez egongo da, lanaldi erdian. Bakoitzak bere baldintzak izango ditu –udal webgunean ikusgai–. Izen-ematea, Lanbiden.

'Zaintza publiko-komunitarioa bidean' hitzaldia astelehenean

Eskoriatzako talde feministek deituta, azaroaren 30ean egingo den Greba Feminista Orokorren lehen asanblada mistoa egin zuten; Greba Feminista Orokorreko pankartak egiten ere izan dira zenbait lagun, eta, atzo, eguna, grebaren antolakuntzarekin jarraitzeko bilera irekia izan zuten. Horrekin batera, astelehenean, hilaren 13an, *Zaintza publiko-komunitarioa bidean* izeneko hitzaldia eskainiko du Tania Cañas hizlariak, bailarako beste bi sindikalistarekin batera; 18:30ean izango da, kultura etxean, galdera hauek ardatz hartuta: Nola zaintzen da gaur egun? Nola nahi dugu zainduak izatea etorkizunean?

Sexualitate tailerrekin jarraituko dute gazteleguan

Eskoriatzako gazteleguan sexualitatearen inguruko tertuliak hasi zituzten joan den domekan, eta beste bi saio izango dituzte oraindik. Bigarren saioa domeka honetan izango dute, hilaren 12an, 17:00etan hasita. Lehenbizi *Sex education* telesaila ikusiko dute bertaratzen direnek, eta, gero, gertatutakoaren inguruko solasaldia izango dute.

"Bertako energia aprobetxatu daiteke"

NESTOR ARANA ESKORIATZAKO ENERGIA BERRIZTAGARRIEN KOMUNITATEKO KIDEA Fakturak interpretatzeko zenbait saio egiteaz batera, autokontsumo talde bat eratu dute zortzi familiaren artean, eta eguzki-plaken instalazio komunitario bat ezarri dute

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Nestor Aranak (Eskoriatza, 1972) energiarekiko interesa du, eta Eskoriatzako Energia Berriztagarrien Komunitateko aitzindarietako bat da. Hala, zenbait bilera informatibo antolatu ditu beste hainbat lagunekin batera. Saio horietan, fakturak interpretatzen ikasi dute; kasu batzuetan, hiru zein bost bider gehiago ordaintzen zuten herritarren fakturak ere identifikatu dituzte, besteak beste. Horrekin batera, autokontsumo talde bat ere osatu dute.

Zer da energia komunitate bat, eta zer egin nahi da?

Energia komunitatearen helburua bertako energia aprobetxatzea da. Energia lortzeko, teilatuetan plakak jar ditzakegu, eguzki-indarra aprobetxatzeko, esaterako. Duela gutxi egindako ikerketa batek adierazten duenez, gure energia elektrikoaren %75 bertatik lortu ahal izango dugu. Beraz, aukera bat da bertako energia bertakook aprobetxatzea. Nola egiten den hori? Energia komunitate bat sortuz.

Zer egin duzue orain arte?

Urtebeteko lanean, bi esperientzia izan ditugu. Batetik, pobrezia energetikoarekin lotuta, konturatu gara jendeak fakturak interpretatzeko zailtasunak zi-



Nestor Arana, asteon, Intxaurtxueta auzoan. IMANOL BELOKI

"ZORTZI FAMILIA ADOS JARRITA, TEILATUAN EGUZKI PLAKAK JARRI DITUGU"

tuela, nahiz eta unibertsitateko ikasketak izan. Hori horrela, formakuntza saioak egin ditugu Ibarraundi museoan, eta faktura altuak dituzten herritarrei laguntza eskaintzen diegu. Bigarren esperientzia eguzki-in-

darra aprobetxatuta autokontsumo taldea sortzea izan da; teilatuan instalazio propio bat ezarri dugu zortzi familiak, denok ados jarrita.

Hurrengo urratsak, prest?

Proiektua aurrera eramateko, 31 lagun batu dira egitasmora. Hala ere, hamar laguneko taldea izango gara proiektu bat garatzeko talde motorra; ezagutza lortu, partekatu eta gero, diseinu taldea, talde teknikoa eta abar egingo ditugu. Hala, ea datorren urterako proiektu zehatz bat dugun, herrira zabaltzeko.



Iaz, San Milixan azokan, piper erreen postua. I.B.

Artisau azokako postuez gain, herriguneko bisitak domekan

San Milixan egunean, artisau azoka, egurrezko tailerra eta bisita gidatuak izango dira, besteak beste

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Hamalau postu izango dira domekan, frontoi barruan: poltsak, arropak, bitxiak, egurrezko jostailuak, motxilak, ilustrazioak, xaboiak... eskuragarri. Sorginak Emakume Taldeko kideak ere bertan izango dira, eta, oraingoan, 30 kilo arto irin, hamar kilo txistorra eta hamar kilo hirugihar eramango dituzte talo goxoak prestatzeko. Frontoi kanpoan, berriz, bi postu izango dira; batean, ezitia izango da; eta, bestean, azken urteotan moduan, piper erreak.

Egurrean pirografiatur

Salmenta postu horiez guztiez gain, tailerra ere izango da Ion Dufurrenaren eskutik. Sei urtetik gorakoentzat, egurrearekin tailerra izango da. Honela azaldu du Aiora Elkorobarrutiak, Leintz Gatzagako Kultura zinegotziak: "Tailer herrikoia izan-

go da; lehenengo, egur zati bat hartu eta lixatuko dute, eta, gero, norberak bere izena edo testu labur bat idatzi. Ez da ize-nik eman behar".

Berrikuntza gisa, bisitak

Artisau azokako postuez gain, herriguneko bisita gidatuak izango dira. Hiru bisita izango dira, guztira: 12:30ean, euskaraz; 13:00etan gazteleraz; eta 13:30ean, haurrentzat soilik izango dena. "San Milixan egunean zenbait postal jarriko ditugu bisita gidatuen informazioarekin, hala jendea animatzeko...", adierazi du Elkorobarrutiak.

Bertara joateko Gatz Bidea Takarraran taldekoek ere egin dute hitzordua egunerako. Arrasate eta Gatzaga arteko ibilbidea egingo dute, azken urteotan moduan. Hala ere, autobus zerbitzu berezia ere egongo dela adierazi dute Udaletik.

Energia komunitatea sortzeko bilera

Eskoriatzan energia komunitate bat martxan jartzea merezi duela uste eta babesa adierazi nahi zutenak Ibarraundi museoan batu ziren urriaren 24an. Bertan, bilera-merienda egin zuten, eta orain arte egin direnak azaltzeaz batera, Eskoriatzako Energia Komunitatea sortzeko lehen pausoak zeintzuk diren izan zuten berbagai.



Energia komunitatea sortzeko bilera-meriendan. LORE DIAZ DE GEREÑU

Leintz aldeko Appa Hi! aplikazioa aurkeztuko dute

Appa Hi! aplikazioa duela bi urte kaleratu zen, Badihardugu elkarteak eta Oñatiko Udalak bultzatuta, Oñatiko hitanozko formak praktikatzeko laguntzeko eta ikasteko. Eguneraketak ere izan zituen aplikazioak, eta, Oñatiko euskalkikoaz gain, euskara batuko hitanoa integratu zuten aplikazioan. Orain, Leintz aldekoa publikatuko da, hau da,

Leintz Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasatekoa. Diferentziak oso txikiak dira batetik bestera, baina herri bakoitzak bere aplikazioa jaisteko aukera izango du. Horren aurkezpena Leintz Gatzagan egingo dute azaroaren 28an, 12:00etan.

Aplikazioaren funtzionamenduari dagokionez, galdere-erantzunen bidez, hika hitz egiten hasteko behar adina erreminta lortuko dituzte erabiltzaileek, eta mailaz maila igotzen joan beharko dute.



Lopez Benitok saio interesgarria eman zuen, Goienagusiko bazkideen eta Miguel Altunako zein Ipintzako ikasleen aurrean. J.B.L.

Ezagutza demokratizatu eta adimen artifiziala arautzeko aldarrikapena

Egitarauko saio esanguratsuenetako bat baliatu dute asteen ZTB jardunaldiei hasiera ofiziala emateko. Adimen artifiziala eta teknologia informatiko berriak izan zituzten hizpide adituek eguaztenean, Goienagusiko bazkideen eta ikasle gazteen aurrean

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Aurtan ere egitarauko ekitaldi azpimarragarrienetako bat aukeratu dute Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza (ZTB) jardunaldien bederatzigarren edizioari hasiera ofiziala emateko. Eguaztenean, hilak 9, *Nola nabigatu eguneroko bizitzan adimen artifizialean, errealitate areagotuan, errealitate birtualean eta metabertsoetan murgilduta* izenburu zuen hitzaldia eman zuten Creativitic enpresako arduradun Jorge R. Lopez Benitok eta Enara Artetxek. Ikusleen artean izan ziren Goienagusi elkarteiko bazkideak eta Miguel Altuna Lanbide Heziketako eta Ipintza institutuko ikasleak.

Bergara, ezagutzaren herria
Gorka Artola alkateak hartu zuen hitza ZTB jardunaldiei hasiera ofiziala emateko, eta beste

behin gogoratu zuen Bergarak ezagutzarekin duen harreman estua: "Historian zehar Bergarak harreman oso estua izan du zientziarekin eta, oro har, ezagutzarekin, eta hor daude, besteak beste, Elhuyar anaien Wolframioaren aurkikuntza, Telesforo Monzon, Olaso Dorrea, Seminarioa, UNEDA, eta abar luze bat. Dena den, bergararron jakituria hortik haratago doa". Bere diskurtsoan, ezagutza eta jakintza hori guztia "demokratizatze" ahalegina egin behar dela nabarmendu zuen Artolak: "Jakintza plazara jaitsi behar da. Urte lu-

ARTOLAK EZAGUTZA DEMOKRATIZATZEKO ALDARRIA EGIN ZUEN, "KOMUNITATE OSOA" INDARTZEA HELBURU

zeetan, arlo ezberdinetan, jakintza asko bereganatu dugu Bergaran, eta ezin dugu ahaztu herri modura hazteko eta hezteko balioko digula, betiere guztion artean elkarlanean aritzeko gai baldin bagara. Izan ere, norbanakooi mesede egiteaz gain, gure komunitate osoa indartzen du".

Bestalde, Artolak adimen artifiziala ere aipatu zuen: "Guztiok izan behar dugu hezkuntza eta informazio iturrietara heltzeko aukera, gaur egun ditugun oztopo ekonomiko eta sozialen gainetik. Gizarte modura ditugun erroñkei erantzuten saiatu behar gara, eta horretarako hainbat bide berri ditugu. Adimen artifiziala, esaterako".

Creativitic enpresako zuzendari nagusiak eta teknikoak azaldu zuten adimen artifizial sortzaileak herritarren bizitzak eraldatu dituela. ChatGPT, Mid-

journey edo RunwayML bezalako tresnak egunero agertzen ari direla eta bizitzak erabat aldatzen ari direla; hain zuzen ere, saioan kontzeptu horiek guztiak aztertzen zituzten eta baita nola eragiten duten eguneroko bizitzetan ere. Industrietatik abiatuta, osasun-arlotik edo hezkuntzatik; bai eta nola zeuden ere elkarren esperoan Internet berriari bultzada handia emateko, era masibo, azkar eta eraginkorrean.

Gazte ikerlari bergararrak
Azaroaren 17ra bitartean, diziplina ezberdinetan oinarritutako

AZAROAREN 15EAN HERRIKO BOST GAZTE IKERLARIK HITZALDIA EMANGO DUTE: 'ZTBERGARA.EUS'

20 jarduera baino gehiago eskainiko ditu ZTBren bederatzigarren edizioak –informazio guztia dago *Ztbergara.eus* webgunean–. Jardunaldi hauek komunitate zientifikoaren, enpresa sektorearen eta hezkuntza erakundeen elkarlanaren fruitua dira, eta, besteak beste, arlo ezberdinetako profesionalak zein herriko ikastetxe ezberdinetako ikasleak izango dira protagonistak.

Egitarautik azpimarratzekoa da azaroaren 15ean Bergarako gazte ikerlariak hitzaldia emango dutela Seminarixoan (10:00), Goienagusiko bazkideen eta DBH4ko eta batxilergoko ikasleen aurrean. Amaia Iturrospe, Jokin Labaien, Gorka Kortabarria, Maider San Torquato eta Itxaso Calbano izango dira hizlariak, eta adimen artifiziala, neurozientzia, polimeroak eta biomedikuntza izango dituzte berba-
gaiak.

"Ondo arautua bada, lagungarria da adimen artifiziala egunerokoan"

JORGE R. LOPEZ BENITO CREATIVITIC ENPRESAKO ZUZENDARIA

ZTB jardunaldien irekieraren ostean hitzaldi interesgarria eman zuen Jorge R. Lopez Benito ekintzaile errioxarrak Seminarixoan.

Noiz eta nola sartu da adimen artifiziala gure bizitzetan?

Duela pare bat urte denok ari ginen metabertsoaz hitz egiten eta orain dena da adimen artifiziala. Gure egunerokoan dago. Urtebete eskasean ikusi dugu edozein jardueratan lagungarri zaigula; kontaktu nahi dugun horretan, irudiak eta bideoak sortzen edo, adimen

artifizial sortzailearen kasuan, izaki bizidunak eraten. Gure egunerokoan oso txertatuta dago, alde onekin eta txarrekin.

Lagungarri dela diozu. Ez duzu mehatxurik ikusten?

Asko aldatuko dira gauzak baina Internetekin bezala izango da; hasieran dena ziren zalantzak. Kotxea heldu zenean, zaldiekin eta zaldieriekin



J.B.L.

gertatu zen... Aldaketa horietan bazegoen beldurra, eta orain aldaketa horretan gaude. Adimen artifizialak guk baino hobeto eta azkarrago egin ditzake gauzak; ez gu baino hobea delako, baizik eta hobeto irakatsita dagoelako. Ez du bere kabuz pentsatzen, patrioen arabera ikasten du. Ematen dizkiogun datu guztiak barneratzen ditu, eta horren arabera nolabait pentsatzeko gai da. Gizaki ume batek urte batzuk behar baditu ikasi beharreko ikasteko, adimen artifizialarentzat nahikoa izan daitezke ordu batzuk. Hori muturrera eramanda, gizakia baino adimentsuagoa izatea ekarriko du baina ez da hobea izango, teoriaran ganorazko informazio zuzena emango diogulako. Hau da, edozein makinatan bezala, gizakiarekiko sor dezakeen arriskua kontrolatu egin behar dugu. Egia da prozesu hori ondo egiten ez bada eremu arriskutsuetan sar gaitzkeela; ezin dugu *Terminator* moduko pelikulen antzera makinak gizakia suntsitzera datozen mezua zabaldu, baizik eta gauzak ondo egin behar ditugu. Ondo arautu behar da adimen artifiziala, esku artetik ez diezagun ihes egin.

Bertan erosteko inbertsio gehigarria dago bonuetan

Jaurlaritzaren Euskadi Bono Denda kanpainarekin egin du bat Bergarak ere, eta dagokiona baino 20.000 euro gehiago inbertituko ditu Udalak eguaztenean hasi eta abenduaren 5ean amaituko den ekimenerako; herriko 55 komertzio atxikitu dira

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Eguaztenean, azaroak 8, jarri zuten martxan Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat herri-tan Euskadi Bono Denda kanpaina. Ekimen honen bitartez, 16 urtetik gorako erosle bakoitzak bost bonu erabili ahal izango ditu gehienez, eta bonu bakoitzak 10 euroko balioa izango du, betiere 30 euroko erosketa minimoa eginda. Hau da, 30 euro erosita 20 euro ordainduko lituzke herritarrak.

Kanpainan parte hartu nahi duenak honako webgune honetara jo beharko du: *Euskadibonodenda.eus*. Eusko Jaurlaritzak laguntzarako telefono zenbaki bat ere zehaztu du: 946 85 63 10. Kanpaina abenduaren 5ean amaituko da.

"Eragin zuzena" herrian

Udaleko Herritarren batzordeko arduradun-zinegotzi Maite Usabiagak azpimarratu duenez, herriko komertzioa babesten jarraitzeko "apustu argia" egin dute, Bergarari dagokiona baino 2.000 bonu gehiago eta 20.000 euroko inbertsio gehigarria eginda: "Tokiko merkataritzak eragin zuzena du Bergarako garapen sozioekonomikoan eta baita gure herriaren bizitasunean eta bizimoduan ere. Horregatik, Bergarako komertzioen aldeko apustu argia egiten jarraituko dugu".

Herriko 55 komertzio batu dira

Guztira, Bergarako 55 negoziok eman dute izena ekimenean, eta negozio bakoitzak 119 bonu izango ditu salgai. Honako hauek dira kanpainara batu diren komertzioak, alfabetikoki ordenatuta: Agoitz tapiz-denda, Amets estetika zentroa, Amua jantzi-denda, Anezka jantzi-denda, Baster jantzi-denda, Beds ohe-denda, Bego eta Marije ile-apaindegia, Berotzi ile-apaindegia, Black 3 Bordados, Decotena SL, Ekilur parafarmazia, Eli Alberdi barne



Herritar bat erosketa egin berritan erdiguneko denda baten, eguaztenean. J.B.L.

diseinua, Elkar liburu-denda, Etxeberria erloju denda eta bitxitegia, Ninika loradenda, Galarreta oinetakoak, Gamak informatika, Giartzu estetika-denda, Gorosti loradenda, Hebe jantzi-denda, Igarza, Infordelta informatika denda, Instituto Optico Auditivo, Joka jantzi-denda, Jolas jantzi-denda, Irudi bitxitegia, Kanela dekorazio-denda, Kilika jantzi-denda, Kizkur ile-apaindegia, Laket jantzi-denda, Lazkano Atmosfera kirol-denda, Leize jantzi-denda, Lonbide oinetako-denda, Los Chicos jan-

tzi eta osagarri denda, Maka oinetako-denda, Mujika burdindegia, Multiópticas, Nº1 en zapatillas, Ninfa arropa eta osagarri denda, Manso optika, Alga lurrindegia, Sastreria Mujika, Subijai umeendako arropa-denda, Sugoi erloju-denda, The Badass Project argazkilaritza-estudioa, Titarak, Urban manikura-denda, Urbietar barne diseinua, Urkiola jantzi-denda, Xabier Moñux masaje zentroa, Zangitu dekorazio-denda, Zangitu liburu-denda, Zangitu margo-denda eta Zubikua jantzi-denda.

Senegal gerturatu eta migrazioaz gogoeta egiteko gonbidapena

Ndank Ndank elkarteak Senegalera bidaiak antolatu ditu, besteak beste, elkarbizitza programaren barruan

J.B.L. BERGARA

Ndank Ndank elkarteak hasiera eman dio 2023-24ko elkarbizitza eta elkartasun programari. Programa honek Debagoienean bizi diren senegaldarren eta debagoiendarren arteko elkar ezagutza, kulturartekotasuna eta lankidetzak bultzatzeko topaketa ekintzak batzen ditu. Debagoiendarrek Senegalgo errealitate gerturatu nahi dituzte, kulturartekotasunaren eta lankidetzaren balioak indartuz.

Batetik, Bergarako hiru ikastetxeetako lehen hezkuntzako ikasleekin hainbat dinamika sortuko dituzte. Horrez gain, Senegal bertatik bertara ezagutzeko aukera ere eskainiko dute aurten ere; apirilera, Senegalgo hainbat txoko ezagutzeko bidaiak antolatu dute; eta abuzturako, Dionewarren antolatu dute egonaldia. Argibide

gehiagorako: ndank.ndank.elkar-tea@gmail.com edo 636 16 30 10.

Migrazioaz gogoeta egitea

Bestalde, migrazioaren gaian ere jarri nahi dute arreta, gogoeta sorrarazteko: migrazio eskubidea, hegoaldeko herrietako esplotazioa, mugetako gatazkak... Bergarako DBHko 3. mailako ikasleekin dinamikak eramango dira aurrera gaian murgildu daitezten.

Beste hainbat ekintza antolatuko badira ere, hurrengo ekitaldia azaroaren 16an izango da, Irizar jauregian (18:00). Huescan jaio eta jatorri ganbiarra duen Moha Gerehou kazetari gazteak hitzaldia emango du. *Qué hace un negro como tú en un sitio como este* liburuaren egilea da Gerehou, eta haurtzarotik bizitako hainbat esperientzia partekatuko ditu hilaren 16ko saioan.

Gizon bat atxilotu dute, haxixa eta kokaina atzemanda

Ertzaintzak 41 urteko gizon bat atxilotu zuen astelehen eguerdian Bergarako taberna batean, osasun publikoaren aurkako delitua leporatuta. Ustez saltzeko zituen substantzia estupefaziante batzuk aurkitu zizkion Ertzaintzak eta baita 850 euro ere.

Astelehen eguerdian abisua jaso zuen Ertzaintzak Bergarako ostalaritza lokal batean ger-

ratzen ari zen borroka batengatik. Ertzaintza ari ziren bi pertsonak identifikatu eta maitu zituzten agenteek, eta horietako bati 158 gramo haxixa eta bi gramo kokaina aurkitu zituzten. Substantzia horiez gain, ertzainek 850 euro ere aurkitu zituzten. Unean bertan atxilotu zuten 41 urteko gizonak eta martitzenean jarri zuten Bergarako Guardiako Epaitegiaren esku. Ertzaintzak azaldu duenez, atxilotuak aurrekariak ditu antzeko jarduerekin lotuta.

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROSZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugarte-aroztegia.com

Proiektuak · Koltxoak
Horma-armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

Entorno Registrado Nº100/025

**ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...**

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62



Iaz Pol-Pol tabernaren atarian atera zuten talde argazkia, biboteak enkantean saldu aurretik. IMANOL SORIANO

Kontzientzian eragiteko hilabetea, biboteak utzita

Movember Gara ekimenak azaro osorako egitaraua antolatu du prostatako minbiziari eta oro har gizonezkoen osasun arazoei ikusgarritasuna emateko; kontzertua, bertso saioa, txiste-poteoa, spinning rock saioa eta biboteen enkantea antolatu dituzte, besteak beste

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Beste urtebetez gertu dauka Movember Gara taldeak azaro osorako egitaraua, prostatako minbiziari eta oro har gizonezkoen osasun arazoei ikusgarritasuna emateko. "Kontzientzia-zioa hazten doa, baina oraindik lan handia dago egiteke. Bibotea askori ez zaigu ondo geratzen, baina babestu beharreko ekimena da. Dei egiten diegu gizonezko bergarrei animatu daitezela ekintzetan parte hartzera", dio antolatzaile lanetan dabilen Eñaut Uriartek.

Aurtengo egitarauan zuzeneko musikak pisu berezia hartuko du, urteroko spinning rock saioaz gain –azaroaren 17an egingo dute, Agorrosinen (19:00)– Laino Beltzak taldeak kontzertua emango duelako gaur, azaroak 10, Irala kaleko Venti jatetxean (18:20). Horrez gain, nobedade nagusia da azaroaren 24ko txiste-poteoa, Iralan (19:00). Antolakuntza lanetan buru-belarri dabilen Eñaut Uriarteri buru-

ratu zitzaion ekintza: "Iaz balcoitik balkoirako bertso saio bat antolatu genuen eta aurten txiste-poteoa egingo dugu. Movember ekimenak osasun mentalaren zaintza ere aldarrikatzen duenez, barrea eragiteko ekintza bat egokia izan daiteke. Talde berruan bagaude txisteak kontatzen ditugunak, eta espero dugu poteo barregarri bat izatea. Barre-terapia bat beti da aukera ona".

Osasun mentala, lehen lerroa Bihar, hilak 11, Debagoieneko beste herrietako kideekin elkartuko dira Elorregin; hitzordua Sanprubusean egin dute, 12:30ean, eta kideen artean harremanak sendotzea da helburua (ikus 6. orria). Bestalde, bergarrek

OSASUN MENTALA ERE ALDARRIKATZEKO, TXISTEZ GIROTUTAKO POTEOA EGINGO DUTE AZAROAREN 24AN

osasun mentalari eman dioten garrantziaren adibide da hurrengo ekintza: azaroaren 16an Alex Muela ikertzaile bergararrak suizidioa prebenitzeko hainbat gako emango ditu Irizarren emango duen hitzaldian (19:00). Azaroaren 17an, rock doinuez musikatutako spinning saioa egingo dute Agorrosinen (19:00).

Indarkeria matxista salatzer Azken asteburua izango da be-teena. Hilaren 23an, bertso saioa antolatu dute Pol-Pol tabernan (19:00), eta hilaren 24an, txiste poteoan (19:00) murgilduko dira.

Azken ekintza Indarkeria Matxistaren Aurkako Egunerako antolatu dute, hilaren 25erako. Martxantere antolatutako manifestazioarekin (12:00) bat egingo dute, eta, ondoren, biboteak moztu eta enkantean salduko dituzte. Iaz 4.629 euro lortu zituzten CIC Biogune zentroan lan egiten duen Arkaitz Carracedo ikerlariari emateko: "Ea aurten kopuru hori gaintitzen dugun".

Aroztegiko 2024ko egutegia osatzeko izen-ematea, zabalik

Aretoa erabili nahi duten artistek azaroaren 24ko 13:00etarako egin beharko dituzte eskaerak udaletxean

J.B.L. BERGARA

2024an Aroztegi aretoan erakusketa jarri nahi duten artistek azaroaren 24ko 13:00etarako egin behar dituzte eskaerak udaletxean. Batzorde mistoa izango da Aroztegiko programazioaz arduratuko dena, eta, eskaera guztiak aztertu eta aukeraketa egin ostean, 2024ko programazioa zehaztuko du; Udaleko Kultura Zerbitzuaren barruan sortu dute batzorde mistoa, honako ordezkari hauekin: Beart, Arizondo, Buztinzale, kultura teknikaria eta Udaleko herriarren arloko batzordeburu Maite Usabiaga.

"Dena dela, batzorde misto honek adituen kolaborazioa ere eskatu ahal izango du, batzordeko kideek egoki edo premiazko ikusten badute", adierazi dute.

Erakusketek dute lehentasuna Aroztegiko askotariko erabilerak izan ditzakeen arren, batzorde mistoak erakusketei emango die lehentasuna, eta azken erabakia Udaleko webgunean argitaratuko dute (*Bergara.eus*). Eskaera aurkeztu duten guztiek onartutakoen zerrenda kontsultatu ahal izango dute abenduaren 19tik aurrera.



Buztinzale elkarteak 2023ko urtarrilean Aroztegin zabaldu zuen erakusketa. GOIENA

OHARRAK

Euskal Herrian bizi diren peruarren topaketa

Kartzela zaharrean elkartuko dira, domekan. 12:00etatik 14:00etara Cristian Vergara musikariaren eta Eli Coaguila poetaren emanaldia izango dute, Peruko pisco sour koktel edo pintxo batekin batera. Umeendako eskulanak ere egongo dira, Peruko animaliekin. 14:00etatik 17:30era topaketa egingo dute.

Pentsiodunen protesta Gasteizen: autobusa

Legebiltzarraren aurrean 1.080 euroko gutxieneko pentsioa eta "benetako KPIaren eguneraketa" eskatuko dute, azaroaren 16an. Autobusa 10:00etan irtengo da azoka ondoko geltokitik.

1957an jaiotako bergararren irteera

Azaroaren 25ean Santa Marinar elkartuko dira (09:45) Zarautzera joateko; Talai Berri upeltegia bisitatuko dute, eta Kirkillia jatetxean bazkaldu. Izena emateko, 100 euro ordaindu behar dira: ES88 3035 0189 3118 9103 8659 (Laboral Kutxa).

1983an jaiotako bergararren ospakizuna

Abenduaren 2an Tartufon bazkalduko dute; 12:00etan Pol-Polen elkartuko dira. Izena emateko, 63 euro ordaindu behar dira azaroaren 16rako: ES90 3035 0009 1700 9011 5075 (Laboral Kutxa).

"Ikusi dugu lehiakorrak izan gaitezkeela"

BORJA ELKOROBerezibar SORALUCE BKE-KO KAPITAINA

Euskadiko bigarren mailan jokatu dituzten bost partiduak mugarria izan daitezke taldea non egon daitekeen erakusteko; mahoneroen kapitaina baikorra da

Xabier Urzelai Atxa BERGARA

Orkatilatik min hartuta dagoen arren, Borja Elkoroberezibarrek (Bergara, 1993) ez du gaurko entrenamendu saiora kale egingo. Asteburuan Easo liderraren kontra puntu batengatik galdu izana ahaztu (76-77), eta Ordiziaren partidua prestatzen has-teko ordua da. Kantxatik ezin die, oraingo, taldekideei lagundu, baina lehenbailehen erre-kuperatzeko gogoz dabil. "Inork ez du min hartuta egon nahi, baina burumakur egonda ezin da taldean ekarpen handirik egin. Hobe horri buelta eman eta aulkitik ekarpena egitea".

Liderraren kontra puntu bateko aldeagatik galdu izanak ze zapore utzi zizuen? Izan ere, hainbat irakurketa egin daitezke.

Partidu bat galtzen duzunean inor ez da pozik egoten, baina beroan egiten den irakurketa da hori. Gero, denbora pasata, konturatzen zara liderraren aurrean lehiakorrak izan garela, taldeak dituen bajak beste jokalarari batzuekin ordezkatu ditugula, eta taldeak neurria eman duela kantxan. Baina irakurketa hori hotzean egiten da, ez partidua amaitu eta berehala. Easoren kontra partidua irabaztera irten ginen; garbi geneukan hori, eta gauza asko egin genituen ondo. Baina kontziente gara kontrarioak 20-30 puntu erraztasun handiz egin zizkigula, eta horrela zaila da irabaztea.

Bost partidu jokatu dituzue Euskadiko Txapelketako bigarren mailan, eta horietako bi irabazi dituzue. Nahikoa da talde hau non egon daitekeen ikusteko?

Ez dakit erantzuten. Nahikoa da ikusteko talde lehiakorra garela. Galdu ditugun hiru partiduak izan dira San Prudentzioren kontra -5 puntugatik-, Askartzaren kontra -4 puntugatik- eta Easoren kontra -puntu batengatik-. Eta garbi daukagu hiru talde horiek liga



Mikel Elkoroberezibar, aste barruan Labegaraietan. SORALUCE BKE

"ILUSIO BERRITUEKIN GABILTZA, BAINA IAZ MODUAN GABILTZA LANEAN, MOTIBAZIO BERBERAREKIN"

amaieran aurrean egongo direla. Partidu horiek galdu egin baditugu ere, lehiakorrak izan gara, eta horrekin geratzen naiz. Gero, partidua joan daiteke alde batera edo bestera, baina hor egon behar duzu, irabazteko aukerekin.

Maila batetik bestera gauzak egiteko modua asko aldatu duzue?

Ez pentsa. Astean hiru entrenamendu saio egiten ditugu, eta aurreko urteetan ere motibazio berbera geneukan. Akaso, egia da kategoria berrian egonda gauzak ondo egin nahi dituzula, talde sendoak aurrean izanda norberak ere ilusioak berritzen dituela, taldea indartzeko ahalgina egin dela... Baina ez dut uste lan egiteko moduan aldaketa handirik izan dugunik.

Min hartuta zabilta...

Bai, orkatilan daukat lesioa, zaintiratu bat. Pare bat aste

daramatzat kantxetatik kanpora, eta errekuuperatzeko oraindik beharko ditut beste bizpahiru aste. Ea kontu hau ez den askorik luzatzen, ze halako lesioak... Halakoak ondo errekuuperatu behar dira, aurrerago buruko minik eman ez dezaten.

Eta halakoetan kapitainak ze ekarpen egin dezake taldean?

Taldearen ondoan egoten saiatzen naiz; entrenamendu guztietara joan, partiduak aulkitik jarraitu... Taldekideek burumakur ikusten bazaituzte nekez egingo duzu ekarpenik. Saiatzen naiz egoerari buelta ematen, gainontzekoen moduan.

Min hartuta zaudetenak errekuuperatzen zaretenean...

Poliki-poliki hori da asmoa. Mikel Gutierrez iazko lesiotik errekuuperatzen dabil; Josu Martinez ere ez zen Easoren kontra egon. Ea denok kantxara bueltatzen garen lehenbailehen.

Asteburuan azken sailkatu Ordiziaren kantxan jokatu duzue.

Partidu arriskutsuak dira horiek, azkenak izanda ere kategoria honetan edonork daukalako min egiteko gaitasuna. Baina bai, irabazi beharreko partidua da, zalantza barik.



Goizper Bergarako neska, asteburuan Labegaraietan. BKE

Lehenengo postura egin dute salto, Eibarri 29-13 irabazita

Gazte mailako neska lider dira, bigarren sailkatuari ondo irabazi ostean; partidu denak irabazi dituzte

X.U. BERGARA

Trenen arteko talka izan zen asteburuan Labegaraietan, gazte mailako bi oilarrak izan zirelako zein baino zein gehiago: Goizper Bergara eta MEK Eibar. Bi taldeak partidu guztiak irabazita iritsi ziren partidu honetara, beraz, lidergoa lortzeko lehia estua espero zen. Halaxe izan zen hasieran, bi taldeetako defentsak oso gogor aritu baitziren; gehienetan erasoak geldiaraztea lortzen zuten, baina bergararrek erasoan hobetzea lortu zuten defentsa maila jaitsi gabe eta 5 goleko errenta lortu zuten atsedenaldirako (13-8). Bigarren zatian, eibartarrek defentsa irekia planteatu zuten bergararren akatsak behartzeko presioaren bidez, baina ez zuten helburua lortu eta bergararrek golak erraz lortzen jarraitu zuten, defentsa bikaina egiten jarraitu zuten bitartean. Horre-

la, partidu aurretik espero ez zuten errentarekin irabazi zuten (29-13).

Bihar, zapatua, sailkapenaren erdian dauden legazpiarren kantxan jokatu dute (17:30).

Seniorrek ere Eibarri irabazi

Hain justu, senior mailako Soraluze BKE taldeak ere kontrario berbera izan zuen, MEK Eibar, baina partidua Eibarren jokatu zuten. Eta hor ere eibartarrek sufritu egin zuten bergararren kontra (16-21). Lehen zati bikainean egon zen garaipenaren gakoa (6-13). Bigarren zati amaieran eibartarrek defentsa irekiaren alde egin bazuten ere, ez ziren bergararregana gerturatzeko kapaz izan. Hala, mahoneroak laugarren daude, eta lidergoa bi puntura daukate. Bihar Labegaraietan jokatu dute (15:30), Aritzbatalderekin kontra.

Gaurko pilota partiduak Antzuolan jokatu dituzte

Begarako pilotazaleek Antzuolara joan beharko dute gaur, egubakoitza, etxeko pilotariak bertatik bertara ikusi nahi badituzte. Izan ere, Bergarako pilotalekuan zapatu iluntzean (19:30) Bergarako Orfeoiaren emanaldia izango da, eta horrek aldaketak ekarri ditu BKEkoen agendan, pilotalekua ezin delako erabili. Hala, gaur, 19:45ean

hasita, bi partidu jokatu dituzte pilotari bergararrek. Lehenengo norgehiagoka gaztetxoena izango da, Gipuzkoako banakako errendimenduzko partidua, lehenengo mailako alebinena. Hor, Olanok Azkoitiko Juaristi izango du aurrean.

Arratsaldeko bigarren partidua binakako paleta gomakoa izango da. Gipuzkoako senior mailan, Martin eta Irizar bergararrek ordezkatu dute BKE, eta bikote zarautarra izango dute aurrean.

Txapelaren eta zapiaren bila, dantzari gazteak

Domeka eguerdian jokatu da Euskal Herriko bikote gazteen 45. Dantza Askatu Txapelketa Bergarako Seminarixoan, eta bederatzi bikotek dantzatu dituzte sei pausoko fandangoa eta arin-arina aurtengo txapelkunak izateko lehian

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA

Domeka honetan jokatu da Euskal Herriko bikote gazteen 45. Dantza Askatu Txapelketa Seminarixoan, Bergarako Musika Eskolak Udalaren laguntzaz antolatuta. 12:00etan hasita lehiatu dira izena eman duten bederatzi bikoteak: Elene Astiazaran eta Oier Arriaran (Azpeitia), Judith Jacinto eta Manex Elgeta (Lezo-Oiartzun), Hegoa Aizpuru eta Izaro Arandia (Azpeitia), Onditz Esnaola eta Jurgi Errandonea (Lizartza-Andoain), Enara Artola eta Mikel Esnaola (Lezo), Jare Labaka eta June Izagirre (Azpeitia), Alaitz Elorza eta Aner Elorza (Azpeitia), Ane Lazarobaster eta Iara Susaeta (Azpeitia) nahiz Ihintza Erauskin eta Danel Castillo (Lezo-Pasai Donibane).

Sei pausoko fandangoa dantzatu dute Bergarako Txistulari Bandaren laguntzarekin; sei pausoko arin-arina, Estanga anai-arreba trikitilariekin.

Bost sari banatu dituzte. Lehenak Udalak emandako garaikurra, txapela, zapia eta 180 euro irabaziko ditu. Bigarrenetik bosgarrenera sailkatutakoek garaikurra nahiz 160 euro, 150 euro, 140 euro eta 130 euro jasoko dituzte, hurrenez hurren. Halaber, garaikur bereziak egon-



lazo txapelketan parte hartu zuen bikote bat. GOIENA

go dira jantzi egokienarentzat eta 12 urtera arte ongien sailkatu den bikotearentzat. Epaimahaiak erabakia hartu bitartean, Musika eta Dantza Eskolako dantzariak dantzatu dira.

Txapelkunak, atzera begira

Euskal Herriko Dantza Askatuko txapelkunak diren Julen Murgiondo eta Saioa Galarraga bergararrek ere hartu zuten parte bikote gazteen txapelketan 2013 eta 2015 artean, baina ez zuten txapelik eskuratu. Dena den, biek adierazi dute "berezia"

izaten zela egun hori, herrian egiten zutelako dantza. Galarragak gogoan du orduko urduritasuna: "Oraindik lehen urteak zirenez, urduri egoten ginen, lagunak ikustera etortzen ziren... Berezitasuna, txapelketa baino, herrian dantzatzea zen".

Murgiondok dio duela 10 urte dantzan hasi zirenean, ez zutela espero Euskal Herriko Txapelketa irabazterik: "Hasieratik gaur arte gure helburua izan da ondo pasatzea eta lana ondo egitea. Ez dugu helbururik jarri garaipenei dagokienez".

betetzen nau. Taldeko bikote gehiagok txapela eta garaikurra bere bitrinan jarri ahal izatea modu sinbolikoan bada ere".

Murgiondok azaldu du dantza txapelketan Bergararen ordezkari izanda eurei esker lortutako garaipen bat Udalari eskaintzea ederra dela. "Izan ere, urte osoan zehar txapelketaz txapelketa Bergarako udalerrira beste herri batzuetara zabalzen dugu", gehitu du.

Harrera, Galarraga eta Murgiondori

Atzo egin zien harrera Bergarako Udalak Saioa Galarragari eta Julen Murgiondori. Urriaren 21ean Seguran jokatu zen Euskal Herriko Dantza Askatuko Txapelketa irabazi zuten, azken bost urteetan hirugarrenez -2019an, 2022an eta 2023an-; bada, egun hartan jaso zuten Aitor Ruiz de Eginok egindako eskultura udaletxean geratu da betirako.

Eskertuta eta pozik

Galarraga "eskertuta eta pozik" agertu da egindako aitortzarekin, baina azpimarratu du berarentzat garrantzitsuena izan dela garaipena bera etxera ekartzea: "Etxekoak izan dira 10 urtetan txapelketaz txapelketa ibili direnak, Maite dantza irakaslea ere bai. Moises Azpiazu dantza taldeko kideei garaipena ekartzea ere asko



Orfeoia, maiatzean, Mozarten *Requiem* interpretatzen San Pedro elizan. GOIENA

Orfeoiaren 100 urteko ibilbidea gogoan, biharko kontzertuan

Bergarako Orfeoiak mendeurreneko kontzertu berezia eskainiko du Udal Pilotalekuan 19:30etik aurrera

I.A.A. BERGARA

Bergarako Orfeoiak mendeurreneko kontzertua eskainiko du bihar, 19:30ean, Udal Pilotalekuan. Abeslari, musikari eta dantzarien artean, 207 lagunek hartuko dute parte *100 urte kantuan* izena duen 90 minutu iraungo duen emanaldian. Oraindik badaude sarrerak salgai *Seminarixoa.eus* webgunean eta 10 eta 12 eurotan eros daitezke.

Sei mugarri eta omenaldiak

Orfeoiaren 100 urteko ibilbidearen laburpena egin nahi dute bihar, bideo eta argazkiekin, historian zehar izan dituen sei mugarri identifikatuz; hain zuzen ere, orfeoiaren hasiera, orfeoiak organoarekin izan duen harremana, orfeoiak beste eragile batzuekin izan duen erlazioa, orfeoia eta Bergarako musikalak, orfeoiaren kontzertu sinfonikoak, eta orfeoiko zuzendariak.

Omenaldiek ere izango dute lekua arratsaldean zehar, baina bada bat aurrez aurre egingo dutena. Orfeoiko zuzendariak omenduko dituzte, eta egun bizirik daudenek presentzialki jasoko dute aitortza. Cristina Larrañaga eta David Azurza dira bertan egongo direnak, eta bakoitzak pieza pare bat zuzenduko ditu emanaldian zehar.

Horien aurretik Bergarako Orfeoiko zuzendari izan ziren Roman Oyarzabal, Miguel Gonzalez Bastida eta Jesus Barroya, hurrenez hurren; guztiak zenduta daude, baina aitortza jasoko dute horiek ere.

Goianan ikusgai

Era berean, *Goiena.eus* atariak zuzenean eskainiko du; hurrengo egunetan webgunean nahiz hilaren 17an, 21:00etan eta 23:00etan, Goiena telebistan ere izango da ikusgai.

Udazkeneko birako Merina Grisen azken kontzertua, Bergaran

Bueltan da Egubakoitzak Berreskuratzen ekimena kartzela zaharrera. Ekainera bitartean, hilero kultura hitzordu bat proposatzea du helburu, eta Merina Grisek emango dio hasiera denboraldi berriari azaroaren 17an. 22:30ean hasiko da kontzertua; sarrerak bertan salduko dira zortzi eurotan. Donostia aldetik datorren hirukotearen udazke-

neko birako azken kontzertua izango da datorren egubakoitzekoa; izan ere, denboraldi batez "hemen inguruan" kontzerturik ez dutela joko aurreratuta dute sare sozialetan.

"Pozik" agertu dira antolatzaileak Merina Gris bezalako "talde handia" kartzela zaharreko oholtzan izango delako. Oraindik datozen hilabetetako kontzertuak zeintzuk izango diren zehaztu gabe badituzte ere, adierazi dute urtero bezala genero ezberdinetako taldeak ekarriko dituztela.



Beharginak Elgeta-Kanpanzar errepideko bihurgune bat zabaltzeko lanetan, eguaztenean. L.Z.L.

Urte bukaerarako amaitu nahi ditu lanak Aldundiak

Urriaren 23an hasi ziren lanak Kanpanzar eta Elgeta arteko errepidean. Bidea zabaltzea, ikuspen gutxiko hainbat bihurgunetan ikusmena handitzea eta bide-segurtasunean hobetzea dira helburu. Hiru hilabeteko iraupena aurreikusten da

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA Badira hiru aste lanak martxan direla. Kanpanzar eta Elgeta arteko GI-2639 errepideko erabiltzaileek ondo dakiten moduan beharginak aldi berean ari dira lanean hainbat puntutan eta horrek errei bateko mozketa dakar. Hala, lanegunetan puntuetako batean aldizkako zirkulazioa bideratzeko semaforo bat dago jarrita, eta beste puntu batean seinale bidez erregulatzen da txandakako pasoa.

Foru Aldundiak 2022ko uztai-lean eman zuen lanok egiteko proiektuaren berri eta 2023ko maiatzeko iragarri zuen obran hasiera. Arrazoi ezberdinak tarteko, ordea, urriaren 23an

hasi da lur mugimendua. Proiektuak, dena den, bere horretan jarraitzen du. Aurrekontua 378.539,81 eurokoa da eta, eguraldiak ahalbidetzen badu, hiru hilabeteko epean gauzatuko da.

Bide-segurtasuna lehenetsu Mendiko errepidea da Elgeta eta Kanpanzar lotzen dituen

GI-2639, baina ibilgailu astunen joan-etorria handia da, eta horrek hainbat egoera arriskutsu eta kexa eragin ditu aspaldiko urteetan erabiltzaileen artean. Errepideak 6,5 kilometro ditu eta bidearen zabalera estua da. Sei metro baino gutxiagoko zabalera duten bihurguneak daude, gehienetan ez dago bazterbiderik, eta hainbat puntutan arazoak sortzen dira bi ibilgailu gurutzatzerakoan; bietako bat ibilgailu astuna denean, batez ere. Elgetako Udalak ere behin baino gehiagotan eskatu du irtenbide bat errepide horrendako.

Aldundiak emandako datuen arabera, 800 ibilgailuk erabiltzen dute GI-2639 errepidea egunero, eta horietatik %15 ibilgailu astunak dira. "Batez ere bihurguneak leundu eta errepidea zabaltzeko lanak egingo ditugu", azaldu du Bide Azpiegiturako diputatu Maria Ubarretxenak. "Batez ere bide-segurtasunean eta erosotasunean eragin nahi dugu. Espero dugu, lanak egin ostean, bai elgetarrek bai errepide horretako gainerako erabiltzaileek sumatzea onura. Durangaldeako jende ugari ibiltzen da errepide horretan, eta, nola ez, Elgetako industrialderako joan-etorriak egiten dituzten ibilgailuak ere bai".

Aldundiak 2022an egindako azterketa batean errepideak dituen puntu kritikoenak identifikatu ziren, eta bi hobekuntza

mota egitea aurreikusten da. "Sei metroko plataforma lortzeko jardunak egingo dira; kasu batzuetan mendiari hartuko zaio espazioa, eta beste batzuetan betelanak egingo dira zabalera handitzeko. Aurreikusita dago, baita ere, bide bazterrean dauden euste elementuak atzeratzea, errepideari zabalera handiagoa emateko".

Lanak zatika

Bihurgunetako sei metroko zabalera plataforma lortu nahi du Bide Azpiegiturako Departamentuak, eta lanak zatika egingo dira. "Beheko aldean hasi gara, eta bi bihurgune dagoeneko eginak daude", azaldu du Ubarretxenak. "Halakoetan, errietako bat itxita egongo da lanak martxan diren bitartean, lanegunetan. Aldizkako zirkulazioa egongo da puntu horietan, baina printzipioz ez dugu zirkulazioan afekzio larregirik eragingo denik aurreikusten".

GI-2639 errepideak duen beste puntu gatazkatsu bat Kanpanzarko bidegurutzea da. Bi diputazioak lanean dira bidegurutzeari ikusgaitasun handiagoa emateko.

"BEHEKO ALDEAN HASI GARA ETA BI BIHURGUNE DAGOENKO EGINDA DAUDE"

"Umeei garbi hitz egin behar zaie heriotzari buruz"

MANEX BERISTAIN IPUINAREN SORTZAILEA 'Azken galdera amari' ipuina aurkeztuko du gaur

L.Z.L. ELGETA

Liburutegian egingo du saioa, 17:00etan, Manex Beristainek (Azpeitia, 1977). Kasu erreal bat du oinarri ipuinak.

Nolako izango da saioa?

40-50 bat minutuko ikuskizuna izango da. Ez dut ipuina bera kontatzen. Askotariko formatuak erabiltzen ditut gaia jorratzeko; kantuak, txotxongiloak, testuak... Gauzak diren bezala kontatzen ditut; umeek ulertzen duten hizkuntza erabiliz, baina ezer ezkutatu gabe. Eta bakoitzak bere bidaia egin du.

Gai potoloa da.

Bai, eta gizarte honetan alboratuta daukagu. Txikitik, umeak pentsamendu magikoan daudenean, oso ohikoa da hiltzera jolastea. Bospasei bat urterekin konturatzen dira heriotza itzulezina dela, eta orduan hasten dira galderak egiten. Galdera horiek aukera bat dira heriotzari eta doluari buruz modu naturalean hitz egiteko. Eta hor dago zailtasuna.

Helduok ere ez dakigu nola jokatu. Beldurrez gaudelako. Ipuina tresna bat izan daiteke. Bi QR



Manex Beristain. M.B.

ditu. Batean, umeekin lantzeko hausnarketak daude, eta bestean heriotza lantzeko dinamika proposamenak. Laguntza profesionala jaso dut dolu-prozesuari aurre egiteko, baina maisurik handienak semeak izan dira.

Xalbadorpe elkarteak antolatuta, kontzertua egunean Espaloian

Azarorako hainbat ekintza iragarri ditu erretiratuen elkarteak. Lehenengoa egunean izango da, hilak 16. Emanaldia egingo dute, 17:30ean, Elgetako koruak, Mari Karmen Egigurenek, Igone Aranek eta Lorea Larrañagak osatutako hirukoak, eta Unax Agirrek. Sarrera doan da.

Mahai-joko txapelketa ere antolatu dute. Azaroaren 30ean jokatuko da Elgetako kanporaketa, Ozkarbi elkarteak, 16:00etan. Mus, tute eta briska txapelketak jokatuko dira, eta irabazleak eskualdeko txapelketarako sailkatuko dira. Modalitate bakarrean eman daiteke izena, eta beharrezkoa da Xalbadorpeko bazkide izatea.

OHARRAK

Ipuin musikatuak

Ozkarbi elkarteak antolatuta, gaur, 18:30ean, elkarteak.

Teilatu-hodiak

Iraileko txingor-ekaitzak kaltetutako teilatu-jabeendako batzarrerako izen-emate epea hilaren 15ean amaituko da.

Pilota txapelketa

Mendi Mendia Racing Gabonetako pilota txapelketa antolatzen ari da. Azken egunak izena emateko.

Pintxo domeka

Udalak hilaren 19rako iragarri du. Pintxo bereziak izango dira herriko ostatueta, musika eta sari banaketa ere bai.



Herriko Plazan ezarri du Antzuolako Udalak pantaila informatiboa. A.R.K.

Kabinaren ordezkia den pantaila informatiboa

Herriko "komunikazio bideak" errazteko, pantaila informatibo bat ezarri du Antzuolako Udalak. Albisteak, ekitaldiak eta eguneraketak partekatu nahi ditu herritarrekin, eta asmo du eragileen esku jartzea, eurek ere erabili dezaten. Plan "globala" du abian

Amaia Ramirez de Okariz Kortabarría ANTZUOLA

Telefono-kabina bakar bat gelditzen zen Antzuolan, baina nostalgikoenek ez dute gehiago ikusteko aukerarik izango, kendu ondoren, pantaila informatibo bat jarri baitu Antzuolako Udalak hura zegoen lekutik zentimetro gutxira, Herriko Plazan. Erdietsi nahiko luketen helburuak, ordea, hein batean, berbera izaten jarraitzen du: herriko komunikazio bidea "erraztea" dute xede.

Olatz Lezeta Antzuolako alkatetza azaldu duenez, herritarrekin "lotura estutu eta komunikazioa hobetzeko etengabeko bilaketan" dabilta lanean, eta horregatik erabaki dute pantaila informatiboa jartzea. "Honek herritarrekin komunikazio eraginkorrago eta dinamikoagoa lortzeko urratsa suposatzen du". Hala, aurreratu duenez, informazio "garrantzitsua", ekitaldiak eta udal eguneraketak partekatzeko bide izan nahi du gailu

berriak, "bide zuzen eta esku-agarri bat".

Eragileen esku

Gaur-gaurkoz, Udalaren informazioa ageri da soilik pantailan, baina jakinarazi dute herriko kultur eta kirol elkarten zerbitzura jarri nahiko luketela gailua, "baliabidez" erabili dezaten. Horretarako, ordea, lehendabizikoz, "egokitzapenaldian" probatu behar dute erabilera. "Elkarteei pantailarako sarbidea irekitzeko asmoa du Udalak, euren jarduerak eta ekitaldiak aurkeztea ahalbidetzeko. Herritarrek informatuta, inplikaturak eta aktibo sentitzea da gure helburua, komunitatearekin lotuta". Lezetak

HERRITARRENGANA MODU "ERAGINKOR BATEAN" IRISTEA DU HELURU UDALAK, INFORMATU DAITEZEN

nabarmendu baitu "funtsezkoa" dela elkarteek herrian egiten duten lana.

Plan "globalagoa"

Alabaina, Udalak ohartarazi duenez, ez da komunikazioa hobetzeko asmoz hartu duten erabaki bakarria izan, "plan globalagoa" osatzeko ahaleginetan baitabilta azken hilabeteotan. "Berrikusitako plan honek herritarrengana modu eraginkorragoan iristea du helburu, denek udal ekimenen, komunitateko ekitaldien eta parte-hartze aukeren berri izan dezaten". Hain justu, aurrerantzean, plana urratsez urrats ezartzeko asmoa dute, eta dagoeneko hasiak dira martxan beste eremu batzuetan ere; esate baterako, sare sozialetan.

Herritarrek, beraz, ohiko komunikazio bide fisikoen gain – agendaren eskuorria, kartelak... –, tresna berriak izango dituzte eskura herriko gaien berri izan dezaten.

NIRE USTEZ



PILAR ETXANIZ

Gizonen ordua

Zazpi gizon eta ni mahaiaren bueltan. Batek esaten zuen noizbehinka emaztearen gustua egin behar dela. Hurbildu zitzaigun beste batek, berriz, *de vez en cuando hay que domar a la yegua* (noizean behin behorra hezi behar da) gehitu zuen. Begi denak niregana zuzendu ziren, ea zein aurpegi jartzen nuen. Aurre egin nion gizonari, bai. Baina, agian, mingarriena besteen isiltasun konplizea izan zen.

Zergatik begiratzen didazue niri? Zuek ez al daukazue ezer esateko? Txantxetan ari zela eta bere estiloa zela; kasurik ez egiteko esaten zidaten nire haserre baretu nahian, kontrakoa lortuz.

Zer gertatzen zaie gizonari jarrera matxisten aurrean? Emakumeenganako errespetua eta abegikortasuna ez al da zuen kontua? Matxismoa emakumeok jasaten dugu, baina gizonak duten arazoa da; hain zuzen, aurre egiten ez dioten gizonak. Gutxirako balio du martxoaren 8ko manifestaziora joateak, moderno eta jator, ez bada matxismoaren kontrako jarrera aktiborik hartzen.

Aitziber Sarobek hitzaldia emango du astelehenean

Trekutz parke eolikoari aurre egiteko asmoz, Meaka-Irimo herri plataforma osatu dute zenbait herritarrek, eta astelehenean, hilaren 13an, dute lehen hitzorduetako bat, Aitziber Sarobe biologoak eta natura kontserbazionistak trantsizio energetikoaren mugak, erronkak eta zailtasunak izango baititu hizpide Torresoroan emango duen hitzaldia, 18:30ean.

Ez da plataformaren ekintza bakarria izango. Hilaren 20an izango dute hurrengo batzarra, 18:30ean, Orlanen, Capital Energy enpresak proiektuarekin aurrera jarraitzeko asmoa baitu, azken hitza Eusko Jaurlaritzak badu ere.

Zabalik dago dantza ikastaroan izena emateko epea

Saltsa, txa-txa-txa, *bachata*, boleroa edo tangoa. Antzuolarrek dantza ikastaroan zer ikasi eta zerekin hasi nahiko luketen erabakitzeko aukera izango dute, apuntatuz gero. Martitzenean hasiko da, eta maiatzera arte luzatuko da, 17:00etatik 18:30era, Torresoroan. 25 eurokoa da hilabeteko tasa, eta astelehenera arte dago izena emateko aukera.

Ekintzaz beteriko hilabetea du Landatxope elkarteak

Herriko jubilatuek ez dute etenik azaroan. Bihar, zapatua, gaztaina erre jana egingo dute 18:30etik aurrera, Landatxopen, eta, martitzenean, karta txapelketari emango diote hasiera.

Puntxo txapelketa izango dute lehen eguneko jokoa; eguaztenean, berriz, briskaren txanda izango da; eguenean, tutean arituko dira; eta, egubakoitzean, musean. 16:00etan izango dira partidak, elkarteak.

Martitzenean, gainera, hilaren 14an, zaintzari buruzko hitzaldia ere izango da, Xanti Ugarteren eskutik, 18:30ean, Orlango goiko aretoan. Astelehenetako pentsiodunen taldea eta Landatxope dira antolatzaileak.

Trilita, Makis 37 eta Sentenciados taldeak, bihar, gaztetxean

Antzuolako gazte asanbladak antolatuta, kontzertuak izango dira bihar gauean Antzuolako gaztetxean, 22:30etik aurrera. Trilita –Orereta (Gipuzkoa)–, Makis 37 –Ermua eta Elgoibar (Gipuzkoa)– eta Sentenciados –Bergara– taldeak igoko dira oholtza gainera. Sarrera doan izango da, eta gaztetxea goizaldera arte egongo da zabalik.

KONTU KONTARI



Anparito Arregi Irastorza antzuolarra, bere etxeko egongelan. MARKEL ARRAYAGO

"Zientzia ekonomikoetan lizentziatuak ziren andreak"

ANPARITO ARREGI IRASTORZA

Herriko gertaerak eta aldaketak izan ditu hizpide Goiena Telebistaren 'Kontu kontari' saioan. Etxeko egongela ez ezik, bere barnea ere ireki du, bizitakoa kontatzeko

Amaia Ramirez de Okariz Kortabarría ANTZUOLA

81 urte betetzear dituen arren, oroimenean ondo iltzatuta ditu garai zaharragoetako oroitzapenak Anparito Arregi Irastorzak (Bergara, 1942). 1936ko gerraren ostean jaio zen, eta bete-betean bizi izan zuen frankismoko diktadura garaia. Herriko aldaketen testigu izan da, belaunaldi gazteagoek ezagutzen ez dituzten gertaeren eta ohituren lekuko. Argi du hori kontatu ezean ahanzturan, galduta, gelditu

daitekeela. Bada, bizi izandakoa azaldu du.

Bizimodu "normala"

Frankistak ote ziren galdetzen zioten amari seme-alabek, Arregi tartean; diktadura baten

"ERDARAZ HITZ EGIN BEHAR ZELA SARRARAZI ZIGUTEN BURUAN; HALA EGITEN GENUEN LAGUNOK"

pean bizi zirela bazekiten arren, "normaltzat" zuten. "Ama, gu frankistak al gara? Gu, ez. Gu ez gara ez alde batekoak ez besteak. Politikarik ez da kome-ni". Haurra zen garai horietan Arregi, baina akorduan ditu orduko bizipenak.

Eskola txikian izan zen 6 urte bete arte, Maria maistrarekin. "Oso ondo pasatzen genuen, nahikoa jolas egiten genuen; ez zigun demandarik ere egiten". Berarekin ikasi zituzten bizitzarako "funtsezkoak" zaizkion

balioak. "Ni ez nintzen ikasle ona, baina bera maistra espeziala zen". Hala ere, eskola handira jauzi egiteko unea iristean, bestelakoak dira oroitzapenak. "Eskola serioa hura, tristea!".

Kale giroan haziak

Kalean hazi zen Arregi herriko gainontzeko haurren eran, eta herrian izaten zen trafikoa du gogoan, Beasain-Durango errepidea igarotzen baitzen erdigunetik. "Kamioi handiak igarotzen ziren iluntzetan, eta, umeak ginela, neska txiki bat harrapatu zuen horietako batek. Zahar-ragoak ginela ere 12 urteko beste neska bat hil zen". Herriarentzat "kolpe handia" izan zen, denek ezagutzen baitzuten elkar. "Kanpoko jenderik ez zen bizi ordu hartan! Eta gertaerak oso tristeak izan ziren".

Trafikoaren bideratzaileak ziren herritarrak, eta Zumarragako (Gipuzkoa) korrespontsal batek ere horixe kontatu zuen egunkarian, gazteleeraz. "Bada Gipuzkoan herri bat non bertako bizilagunak oso atseginak diren jainkoaren errepide haue-tan gabiltzanontzat. Gizonak, emakumeak eta haurrak, denak dira trafikoko polizia. Herri hori Antzuola da".

14 urterekin lanera

1956an inauguratu zen Hilaturas de Vergara lantokia Antzuolan, eta herriko zenbait gazte hor hasi ziren lanean; asko eta asko, emakumeak. Baita Arregi ere, 14 urte bete berritan. "Bedeinkazio bat izan zen herriarentzat. Orduan ez zegoen emakumeentzat aukerarik. Lehenengo egunetik gizarte segurantzaren gauen. Zentzu horretan, fabrika serio bat zen". Hala ere, ezkontzeko, andre asko fabrikatik ateratzen ei ziren, etxekoandre izateko. "Ikasten genuen kozinan, josten... preparatuta geunden. Eta etxekoandre onak atera ziren! Orduan, jornal batekin etxea ondo eramaten zuten, eta artean diru pixka bat aurreratatu. Zien-

"81 URTE BETETZEAR, ALDAKETA NABARITU DUGU GURE BIZITZAN, BAINA TXARRERAKO EZ, BETI ONERAKO"

tzia ekonomikoetan lizentziatuak ziren".

Bergararekin lotura

Bergararekin harreman estua zuten, eta "oso bergararrak" ziren "gauza denetarako": erosketak, zinea, dantza... "Domeketan, dantza egitera joaten ginen Bergarako bandarekin. Dotorea izaten zen. Hiru pieza jotzen zituzten, eta deskantsua, ondoren. Tartean, paseatu egiten genuen, *adios* esanez elkarri". Arregiren arabera, hemen ez zen *agur* esaten, "soilik, Bilbon". "Erdaraz hitz egin behar zela ondo sarrarazi ziguten buruan. Etxean euskaraz egiten genuen, baina lagun artean, ez".

Harategiaren irekiera

1968an ezkondu zen Arregi, eta 1970ean zabaldu zuten harategia Joxe Mari Gabilondo senarrak eta biek. Izoztutako haragia saltzen hasi ziren. "Ez geunden oso prestatuta, baina merkea zen eta boom bat egon zen". Haragirik apenas jaten zen etxeetan ordura arte; Arregiren kasuan, bakarrik, domeketan. "Haragi zati bat tomatearekin. Orduan ondo gobernatuta bizi ginen".

Harategiari dagokionez, herriko ekonomiarekin bat zihoan: izoztutako haragia saltzetik, behietara igaro ziren; ondoren, txahalak eta txerriak, baina baita ardiak ere. Eta oilaskoak. "Akabera gabeko lana zen!".

Gaurko begirada

2000n laga zuten harategia, bi alabek hartu baitzuten erreleboa. "Guk oraindik ez geneukan asmorik uzteko, baina animatu egin nituen, eta eurek hartu zuten negozioa". 58 urte zituen orduan Arregik, eta "hutsune bat" sentitu zuen lana uztean; "triste" ere egon zen.

23 urte igaro dira ordutik, eta aldaketak izan dira. "Nik jendea ez dut gaizki ikusten". Are, bere bizitzari ere begiratu dio. "Guk gure bizitzan ere aldaketa nabaritu dugu. Baina ez txarrerako, beti onerako. 81 urte bete behar ditugu; ondo nago, baina urteak hemen daude. Hau da gure pelikula, gure bizitza".



Elkarrizketa bideoan ikusteko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.



Azaroaren 30eko grebara begira herrian jarrita dagoen pankartetako bat. O.E.

Hilaren 30eko grebaren lanketa aurrera doa

Asteburuan esku orriak banatuko ditu herriko sare feministak etxez etxe, grebari buruzko informazioa herritar guztien artean zabaltzeko. Eguaztenean, zaintzako eta etxeko langileen eskubideei buruzko hitzaldia egongo da Udalak antolatuta

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Mugimendu feministak azaroaren 30erako deituta duen greba orokorra lantzen hasita daude Oñatin eta egun horri lotutako ekintzak eta argazkiak gehitzen ari dira eguna gerturatu ahala. Asteburu honetan, esaterako, grebaren inguruko informazioa jasotzen duten eskuorriak banatuko dituzte etxez etxe, eta datorren astean zaintzan eta etxeko lanetan diharduten langileen eskubideen aldeko hitzaldia egongo da Eltzian, Udalak antolatuta.

Hitzaldi zikloa

Hiru hitzaldiz osatutako hitzaldi zikloa antolatu du Udaleko Berdintasun Sailak greba egunaren atarian. Zaintzak ekonomian duen pisuaz jardun zuen astelehenean Emagin elkarteak Miren Aranguren; XXI. mendeko zahartze ereduari buruz ziren aritzekoak atzo iluntzean Matia Fundazioko Nerea Etxaniz eta Nerea Almazan, eta datorren

astekoan etxeko langileen eskubideez jardungo dute: *Zaintza: zein prezioetan? Zaintzaileen eta etxeko langileen eskubideak*. Liz Quintana –Trabajadoras no domesticadas– izango da hizlaria eta gazteleraz arituko da. Eguaztenean da hitzaldia, Eltzian hirugarren pisuan, 18:00etan. Herritar denak animatu gura dituzte Udalak; hitzaldia joateko zaintza zerbitzua edo besteren bat behar izanez gero, Berdintasun Sailarekin jar daiteke herritarra harremanetan: berdintasuna@onati.eus.

Bilera irekiak astero

Oñatiko sare feministak ere ekainetik ari da hilaren azken egunerako deituta dagoen greba

DENDARIEKIN ETA ENPRESEKIN ERE EGONGO DIRA, INFORMAZIOA ZUZENEAN EMATEKO

lantzen: "Zaintza lanak ezinbestekoak dira bizitzeko eta ezin dira ez ikusezin mantendu, ez eta merkantilizatu ere". Horren inguruko informazioa partekatu zuten herriko eragileekin uda ostean, eta 30 lagunek baino gehiagok hartu dute parte urrian egindako informazio bileretan. Egun, martitzenero egiten dituzte bilera irekiak, 18:30ean, gaztetxean. Han elkartzeko dira, astero, hainbat gizonezko ere; astelehenean, 19:00etan.

Asteburu honetan etxez etxe banatuko dituzte eskuorriak grebaren gaineko informazioa herritar guztien artean zabaltzeko. Auzolanean egongo dute bihar, zapatua, eta gura duena batu daiteke; 11:00etan elkartzeko dira gaztetxean. Herriko dendariekin eta komertzioetako langileekin ere egongo dira grebara begira sortutako lantaldeko ordezkariak, eta ahalik eta enpresa gehienetan ere zuzenean eman gura dute informazioa.



NIRE USTEZ

UXUE MONTERO

Zaintzaileak

Azaroaren 5ean Zaintzaileen Nazioarteko Eguna izan zen. Gutako gehienok noizbait hartzen dugu zaintzaile rola; bai gure seme-alaben ongizateaz arduratzen garen guraso gisa, bai beste pertsona bat, orokorrean senidea, zaintzea sortzen zaigulako.

Zaintzaileen %80 gutxi gorabehera ez dira profesionalak, eta horietatik %90 emakumeak dira. Kasu batzuetan, karrera profesionalak utzi behar dituzte zaintzeko; beste batzuetan, zaintzaile, langile eta amaren funtzioak egun frenetikoetan bateratzen dituzte.

Senideak zaintzea maitasun kontua bada ere, fisikoki, psikologikoki, emozionalki eta ekonomikoki oso gogorra izan daiteke. Zaintzaileak ulertu behar du nork bere burua zaintzearen garrantzia zaintzen duen pertsonari laguntzarik onena emateko. Horretarako, administrazioen babes egokia behar da: desgaitasunaren eta mendetasunaren benetako balorazioak ziurtatuz, mendekotasunerako laguntzak garaiz tramitatuz eta zaintzaileen ongizatea hobetzeko programak eta benetako kontziliazioa eskainiz.

Aurten ere egingo da Gabonetako erakusleihu lehiaketa

Aurtengo Gabonetan ere egingo da erakusleihu lehiaketa herriko denda eta komertzioen artean. Urriko osoko bilkuran onartu zituen oinarriak osoko bilkurak eta izena emateko epea ere zabaltzeko dago: azaroaren 30a da horretarako azken eguna.

Haurren saria egon zen iaz lehenengo aldiz eta aurten ere egongo da. Bestalde, parte-hartzaile bakoitzak 50 euroko dirulaguntza jasoko du, joan den urtean moduan. Epaimahaiak hiru sari emango ditu, eta herritarren saria izango da bosgarrena. Erakusleihuak abenduaren 11rako apaindu beharko dira eta horrela egon urtea amaitu arte, behintzat.

Beskoitzeko manifestaziorako autobusa egongo da

Goiena komunitatea

Txantxiku ikastola/ ONATI

Beskoitzeko ikastolari babesa emateko manifestazioa egingo dute azaroaren 18an eta autobusa egongo da Oñatitik hara joateko. Bidaiaren prezioa hamar euro da eta Txantxiku Ikastolan eman behar da izena hilaren 14a aurretik: 943 78 12 04 edo txantxiku@ikastola.eus.

OHARRAK

Xake txapelketa

Xake txapelketa egingo da, suitzar erara, gaztelekuan azaroaren 19an, eta izena emateko epea zabalik dago hilaren 17ra arte: gazteinformazioa@onati.eus, 658 725 679 edo 943 71 82 57.

Murgialdaira irteera

Pake Leku elkarteak antolatuta, Murgialdai baserrira egingo dute irteera hilaren 15ean. Bazkideek 8 euro, 15 gainerakoek.

Traste zaharrak

Datorren egunean, hilak 16, izango da traste zaharrak ohiko puntuetara ateratzeko hurrengo eguna. Aurrez deitu behar da: 943 71 19 38.

Zikiro janerako txartelak salgai jarri ditu Arranak

Arranoren 40. urteurrenaren barruan, zikiro jana egingo dute hilaren 19an Larraingain elkartean. Zikiroaz gain, berarekin batera jatea ohikoa den ilar zuria edo baba zuria ere prestatuko dute Iparraldetik etortitako sukaldariak. Bazkarirako txartelak dagoeneko salgai daude Arrano tabernan: langileak 25 euro eta langabetuak 15 euro.

"Milatik gora daude mendian federatuta"

MIKEL OTERO ALOÑA MENDIKO MENDI SAILEKO KIDEA

Espainia, Frantzia aldeko Pirinioak, Marokoko Atlas mendilerroa, Portugal eta Andorra sartzen diren aukera da herriko federatuen %80k hartzen duten aukera

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Mendiko federatuen txartelak tramitatzen ari da Aloña Mendiko Mendi Saila. Datorren astean ere egongo dira bulegoan, altak, bajak zein edozein aldaketa tramitatzeko: azaroaren 14an eta 16an (18:30-20:00).

Zenbat mendizale daude Oñatin?

Asko. Aloña Mendin federatuta, esaterako, milatik gora, 1.100 inguru. Herri txikia da Oñati, eta hori asko da, kopuru handia da. Eta federatu gabeko mendizaleak ere egongo dira, noski.

Zer nolako estaldura aukeratzan dute gehienek?

Nazionala deitzen zaiona: Espainia mailakoa da hori. Horren gehigarria ere askok hartzen dute, ordea. Hau da, Frantzia aldeko Pirinioak, Marokoko Atlas mendilerroa, Portugal eta Andorra ere sartzen dituena. Eta aukera hori hartzen dute federatuen %80k, gutxi gorabehera.

Eta zenbatek hartzen dute mundu mailakoa?

Aukera hori norberak dituen planen arabera hartzen du jendeak. Hau da, urte batean urrutira joateko asmoa izanez gero, mundu mailakoa kontratatzen dute eta hurrengo urterako kendu; urtetik urtera aldakorria izaten da aukera hori.



Mikel Otero. O.E.G.

Zer harrera izaten dute gehigarriek? Elurretakoak, adibidez?

Pistako eskia hartzen dutenak ere badira, bai. Baita mendiko bizikletan ibiltzeko edo snowboard egiteko ere, adibidez. Espedizioetarako gehigarri berezi bat ere badago, baina hori oso gutxi hartzen dute. Eskikoa eta mendiko bizikleta dezente hartzen ditu jendeak, bai.

Zeharkako eskia Oñatin ere egiten da. Horretarako ere behar da?

Ez. Zeharkako eskirako ez dago gehigarri beharrik; oinarriko lizentziak estaltzen du. Pirinioe-

tara zeharkako eskia egiteko irteerak urtero antolatzen ditugu eta harrera ona izaten dute. Baina egia da herrian bertan ere askok egiten dutela hori, kanpora joan barik.

Datorren urtean ere egingo duzue horrelako irteerarik?

Otsailean egin genuen azkena eta hurrengo urtean ere otsailean egitea da asmoa. Baita martxoan ere, ahal bada. Normalean bi egiten saiatzen gara, baina beti ez da posible izaten, eguraldiaren arabera.

Mendizaletasuna ikusita, aspaldi federatutako asko egongo dira herrian, ezta?

Bai, bat baino gehiago. Jazinto Lizarralde, esaterako, 90 urte bete ditu aurten eta duela 50 bat federatu zen lehen aldiz. Oñatin, gainera, eroso da tramite hori egitea; aldaketarik ez baduzu gura, ez duzu ezer egin behar. Normalean azaroan egiten ditugu tramitazioak, baina urte guztian eskaintzen dugun zerbitzua da.

Zergatik da garrantzitsua mendian federatuta egotea?

Federakuntza talde bat da, eta mendizaletasuna bultzatzeko eta gure eskubideak babesteko egiten du lana. Asegurua ere sartzen da, baina talde barruan egoteak garrantzi handia du.

Irrintziaren gaineko ikus-entzunezkoa, Araozko ostatuan

Irrintzia noizkoa den, egun zenbaterainoko presentzia duen edo Euskal Herriko bazter desberdinetan izen berdina erabiltzen ote den jasotzen du, besteak beste, Ekain Martinez de Lizarduy irakasleak eta Arteman Komunikazioak lankidetzan egindako *Erraiak* dokumentalak, eta Araozko ostatuan eskainiko dute ikus-entzunezko hori hila-

ren azken zapatuan, azaroaren 25ean, 19:30ean. Egilea bera, Ekain Martinez de Lizarduy Stürtze bera etorriko da, gainera, ostatura.

Pettiren kontzertua antolatu zuten joan den urtean sasoi honetan, eta urteko kultura ekintza bat egiteko asmoa iragarri zuten orduan ostaturako Itziar Mondragonek. "Aurten, dokumentala eskainiko dugu. Egilea ere badator eta aukera egongo da berarekin tertulian aritzeko. Denondako da gonbidapena".

Remioren saioetan izena emateko azken eguna domeka da

Alex Remiro Realeko atezainak eta Futbol Mas fundazioak sortutako Familientzako Formazioa proiektua heldu da Oñatira ere, Aloña Mendiren eskutik. Futbol eskolaren barruan egin du eskaintza herriko kirol elkarteak, alebin, infantil eta kadete mailetan, hain zuzen ere. Azaroaren 12a, domeka, da izena emateko azken eguna.

Nerabeak Astintzen egitasmoak saio gehiago ditu aurten

Ikastetxeetaraino heltzen den egitasmoa da Nerabeak Astintzen. Gazteen kezkei eta premiei erantzuteko eta euren osasuna eta ongizatea sustatzeko asmoz sortu zen 2019an. Bilakaera ona izan du, eta 28 interbentzio saio egingo dituzte ikasturte honetan: hamalau saio emozioak lantzeko, zazpi jarduera fisikorako, eta beste zazpi elikadurarako.

Proiektuaren helburua da kirola tresna izanik haur eta gazteen ongizatea sustatzea, hiru alde landuz: erresilientzia-prozesuak, lotura esanguratsuak, eta kohesio eta gurasotasun komunitarioa. Horretarako, bi orduko hiru saio egingo dituzte Eltzian: 16an eta 23an eta abenduaren 1ean. Familian ingurune seguruak nola sortu eta gizarte eta kirol-jarduerak landuko dituzte, enpatia, talde-lana, komunikazioa, hazkunde mentalitatea eta lidergoa sustatuz.

Talde berriak sortu dira zeramika eta pintura ikastaroetan

Inoizko talde kopuru handiena hasi da aurten Udalak antolatutako eskulan ikastaroetan: hamalau. Hala ere, jende asko gelditu da kanpoan, eta horiei irtenbide bat emateko, talde berriak egin dituzte helduendako zeramika eta haurrentzako pintura talde berri bana eginez. Interesa duenak kultura etxean eman behar du izena.



Gualbi
aholkularitza


ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!



Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasesores.com • www.gualbiasesores.com



Andoni Salamerok, Aitor Furundarena eta Andoni Egaña dira emanaldian parte hartuko dutenak. GOIENA

Arestiren olerkiak, gaur egungo begiradatik

Gabriel Arestiren poemen berrinterpretazioa egingo dute Andoni Salamerok, Andoni Egañak eta Aitor Furundarenak. Bakoitzak bere diziplinatik eta bakoitzak dituen gaitasunetatik jardungo dute. Emanaldia, etzi, 19:00etan, Santa Ana antzokian

Iñigo Barrena Kortabarría OÑATI Musikegunak egitasmoaren barruan, Gabriel Arestiren poemen berrinterpretazioa egingo dute. Hain zuzen, 'Arestian, egun...!' emanaldia eskainiko dute Andoni Salamerok olerkariak, Andoni Egaña bertsolariak eta Aitor Furundarena musikariak domekan 19:00etan hasita, Santa Ana antzokian. Salameroren hitzetan, proiektu "berritzailea" eta "eraldatzailea" da domekan egingo dutena: "Guk ez dugu nahi soilik Arestiren poemak irakurri. Bizi izan zituen garai zail horiek olerkien bidez adierazteaz gain, musika eta bertsoen bidez, hura hunkiarazi zuten gaiak –euskara, justizia, kultura, egia, klase sozialen bereizketa eta euskararen batasuna– egun bizi dugun egoerarekin konparatu nahi ditugu".

Olerkia, bertsoa eta musika

Andoni Salamerok olerkariarekin batera batu dira proiektura Andoni Egaña bertsolaria eta Aitor

Furundarena musikaria. Bakoitzak menperatzen duen diziplinatik Aresti nor zen "erakutsi" nahi dutela azpimarratu du Salamerok: "Argi dago poesiak eta hitzek indarra hartzen dutela eta ardatza behar dutela izan, baina bertsolaritzak ere zentzu profetiko bat hartzen du, eta adi-adi jarraitzen diogu bertsolariak dioenari. Musikaren kasuan, Aitor bezalako musikari batek aukera ematen dizu garai horietako doinuen errekreazioa egiteko, eta, era berean, musikak goxatzeko eta hitzaz gain adierazteko gaitasuna du".

Hori guztia osatzeko emanaldia lau zatitan banatzen dute: 1936, 1955, 1975, eta 2025 eta etorkizuna. Kasu bakoitzean, sor-

tzaile bakoitzak, bere "gaitasunei jarraituz", Arestiren "berrinterpretazioa" egingo duela gaineratu du Salamerok, eta Oskorrik eta beste sortzaile batzuek musikaturako abestiak baliatuko dituzte ekitaldia girotzeko.

Estreinaldia, Oñatin

'Arestian, egun...!' emanaldiaren estreinaldia izango da Santa Ana antzokiko. Salamerok dioenez, "labetik atera berria" den emankizuna eskainiko dute domekan, eta ilusio "berezia" egiten diela ere azpimarratu du: "Mimo handiz eta atseginez landu dugun lana da aurkeztera goazena. Pozik gaude Musikegunak egitasmoan aurkezteko aukera izango dugulako; izan ere, bide emango du jendeak lehen aldiz ikusteko, eta antzokian bertan gozatu ahal izateko". Ikustera joan nahi duenak sei euro ordaindu beharko ditu, eta sarrerak Udalaren web orrialdean eta Txokolateixan daude esku-ragarri.

**ESTREINAKOZ
TAULARATUKO DUTE
'ARESTIAN, EGUN...!'
PROIEKTUA SANTA
ANA ANTZOKIAN**

Publiko berrien sorrera' mahai ingurua martitzenean

Karoi antzerki jaialdiaren barruan, 'Publiko berrien sorrera' mahai ingurua antolatu dute martitzenerako, zinema aretoan. DAPen ardura handienetako bat da gure bailaran antzerki zaletasuna bultzatzea eta publikoen sorreran lan egitea. Gure bailarako antzokiak hutsik egon ohi dira askotan, eta egoera

horren zergatia identifikatzen saiatuko dira.

Horren inguruan jardungo dute Matxalen De Pedrok, Xabier Payak eta Amaia Gabilondok mahai inguruan. DAPek eta orokorrean bailarako kultur ekimenek bertan duten erronkari nola aurre egin jakin gura dute, eta horri hasiera emateko bidea izango da hau. Arratsaldeko 19:00etan hasiko da mahai ingurua, eta sarrera librea izango da bertaratu gura duenarentzako.

Dokumentuak nola kontserbatzen diren ikusteko bisita

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta tokian tokiko eragileek antolatu ohi dituzten Ondarearen Europako Jardunaldien barruan, dokumentuak nola kontserbatzen diren erakutsiko dute bihar Oñatin dagoen Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoan. Bi bisita egingo dituzte: 10:00etan, euskaraz izango da, eta 12:00etan, gazteleraz.

Ikusi Makusi taldearen antzezlanak bihar Santa Anan

Axun Arzuagak idatzita, *Vivir en Villa Titiritaina* du izena antzezlanak, eta sei pentsiodunen gorabeherak kontatzen ditu bertan, umore eta alaitasun ukituaz ziprztindurik. Elkarbizitza, bakardadea, pertsonen arteko harremanak, sentimenduak; edonork bere burua islatuta ikus dezake lan honetan. Sarrerak 5 euroren truke egongo dira.

Komikia Tertulixan saioa egileekin batera egingo dute

Udal liburutegiak antolatutako Komikia Tertulixan taldean, *Natasha* komikiari buruz jardungo dute datorren martitzenean, hilak 14, arratsaldeko 19:00etan hasita. Gainera, tertulian izango dira komikiaren egileak, Koldo Almandoz eta Aritz Trueba. Dinamizatzailea Igor Leturia izango da, eta saio irekia izango da edonorentzat.



Natasha komikiaren azala. OIHANA ELORZA

AUTLAN[®]
EMD

Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako
Manganeso Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.

Goienakide 2024 paretako egutegia Debagoiendarron egutegi osatuena



Debagoieneko argazkilariek ateratako argazkiak.

+ Neurri egokia, tokia jantzi dezan traba egin barik: 245 x 368 mm.

+ Argazki-buelta zuria, edozein paretatan ondo eman dezan.

Debagoieneko egun seinalatu guztiak jasotzen dituen egutegia egin dugu **lehenengoz**, eta azaroaren 24an jasoko duzue **Goienakideek** etxean.*



2 ale
Goienakide
bakoitzak

Bi ale jasoko dituzue bakoitzak.
Horrela, ale bat opari egin ahal izango diozue zuek nahi duzuenari.

*Aste horretan ez da "Puntua" aldizkariaren alerik banatuko.

Maiatza Loraila

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31

Hil-izena, euskalkian.

Efemerideak.

Debagoieneko herrietako eta auzoetako jaiak.

Egun bereziak.

Esaera zaharrak.

Euskal Herriko jalegunak.

Ilargiaren aldiak.

Temporak.

Aurreko eta osteko hilen egutegia.

goiena
kide

Eta jarrai dezatela

+ Barruan, Debagoieneko lanbideen gaineko 10 orrialdeko erreportajea.



goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia



Xabier Urzelai Atxa BERGARA

Ekain Larrea (Antzuola, 2002) atletismoarekin gozaten dabil berriro. Belaunetako lesioak tarteko, korrika egiteko zapatilak baztertuta izan ditu urte eta zortzi hilabete, eta udan bueltatu da poliki-poliki entrenamenduetara. Horrenbeste denboran geldirik egoteak sortzen dituen zalantzak uxatu zituen zapatuan; bistan da ez duela abiadura galdu. Kilometroa 2.57ra egin zuen –hamar kilometro– eta 29.31n geratu zuen erlojua, azken metroetan ihes eginda zihoan Aitor Mimentza harrapatuta.

Zapatuan ondo neurtu zenituen indarrak, Mimentzak aurrera egin zuenean ez zinen itsutu.

Erraz berotzen den horietakoa naiz, baina zapatuan segituan konturatu nintzen Aitor Mimentzaren erritmoan ezin nituela 10 kilometro egin. Mimentzak hasieratik jo zuen eraso, oso erritmo altuan, eta atzean lauzpabost laguneko taldea osatu genuen. Une batean Endika Donnayk eta biok aurrera egin genuen eta Bergarara iristen konturatu nintzen erritmoa aldatzen ez banuen ez nuela Mimentza harrapatuko. Zorionez azken kilometrora indarrez iritsi nintzen.

Lasterketa hau egindakoa zinen?

Bai, pare bat ediziotan egondakoa naiz; esango nuke duela bizpahiru urtez egin nuela azkeneko Antxintxika lasterketa.

Begiz jota zeneukan, ala ez zenuen uste horren aurrean ibiliko zinenik?

Hilabete hauetan ikusten nuen belaunek ondo erantzuten zutela. Hala, lasterketa ondo prestatu ahal izan dut, baina halakotan ez dago jakiterik non egongo zaren. Baina bai, lasterketa honek motibatu egiten ninduen; begiz jota neukan.

Etxe ondoan irabaztea beti da berezia...

Ederra izan da Bergaran irabaztea, jende ezagunaren aurrean. Buruan daukazun guztia betetzen denean, ez dago gauza handiagorik. Entrenatu ere horretarako entrenatzen gara, gero lasterketetan gozatu ahal izateko. Ez dago etxe ondoan besoak altxatzea modukorik.

Urte eta erdi pasatxo egin duzu geldirik; luzea egingo zitzaizun.

Bai, 2021eko urtarrilean Elgoibarko krosa egin ondoren hartu nuen belaun batean min, eta pare bat hilabetera beste belaunean hasi nintzen arazoekin. Geldi zaudenean badirudi ez duzula



Ekain Larrea, zapatuan, Bergarako kaleetan aurretik zihoan Aitor Mimentza harrapatzeko zorian. MARKEL BAZANBIDE / ANTIXINTXIKA

"Lesioa atzean utzita, Bergaran irabaztea ederra izan da"

EKAIN LARREA ATLETA

ATLETISMOA Urte eta erdi pasatxoan geldirik egon eta gero, Goierri Garaia taldeko atletak Antxintxika lasterketa irabazi zuen zapatuan. Asfaltotik krossetara pasako da segituan

lesioa inoiz gaudituko eta ezin duzula lehen zeneukan maila erreperatu. Zorionez, ez da horrela izan.

Bestelako atsekaberik ere izan duzu atletismoan...

Bai, 2020an Thaiandiako Munduko Txapelketarako sailkatu nintzen, baina pandemiagatik txapelketa urtebetez atzeratu zuten. Eta, urtebetera, gu jada nagusiegiak ginen kategoria horretan parte hartzeko. Hala, beste batzuk joan ziren gure orde. Egia esan, pena hartu nuen. Baina, hori baino okerra-



Bikuñak eta Larreak jaso zituzten Oliver Hernandez eta Mikel Crespo sariak. I.S.

goa izan da horrenbeste denboran min hartuta egotea.

Aletismoarekin gozatzera bueltatu zaren honetan, ze asmo negurako?

Kros denboraldian murgilduko gara aurki. Pare bat aste barru Sorian izango naiz klubaren arteko Espainiako Txapelketan, eta udazkenean lasterketak pilotzen joango gara neguan sasoiaren egoteko. Horrekin batera ea pista estalian ere marka txukunen bat lortzeko kapaz garen [1.500 metroan 3.54ko marka dauka, eta 3.000 metroan 8.21ekoa].

Anaia bikiarekin –Ibai Larrea– batera hasi zinen korrika, baina hura mendian ibiltzen da gustura.

Bai, baina ni pistan ere gustura ibiltzen naiz, marken eta halakoen atzetik. Mendiko lasterketak ere egin izan ditut, eta etorkizunean ere egingo ditut gehiago, baina Zumarragan gustura ibiltzen naiz entrenatzen.

Ze ezaugarri dituzue anaiak eta biok? Ezberdinak zarete?

Bai, ezberdinak gara. Distantzia motzetan nik abiadura handiagoa daukat, baina anaia ni baino gogorragoa da. Mendi lasterketetan zaildu da; aldapa gora egiteko, lokatzetan ibiltzeko... Nik baino indar handiagoa dauka. Eta gero, nik baino buru hobe du, lasterketetan hobeto neurtzen ditu indarrak, hotzagoa da.

Hori gertatu zitzaizun, esaterako, Ikazkin Trailen? Otala-Zelain leher-tuta ikusi zintugun...

[Barreak] Lasterketa luze geratu zitzaidan, zalantza barik. Entrenamenduetara bueltatuta kilometroak pilotzen nengibilen, eta Aretxabaletako lasterketak ibilbide ederra duenez animatu egin nintzen. Nire kabuz ere eginda neukan ibilbidea, baina lasterketa egunean aurrekoen erritmoan joan nintzen hasieratik, eta... Lehen ere esan dut lasterketetan berotu egiten naizela.

"NEGUAN KROSAK EGITEA DA ASMOA, ETA EA PISTAN MARKA ON BAT EGIN DEZAKEGUN"

"MIMENTZAK OSO AZKAR HASI ZUEN LASTERKETA; ATZEAN BESTE TALDETXO BATEAN JOAN GINEN"



Ainhua Aranburu, iaz, Kurasaaleko zuzenean. FORTUNA CD



Mikel Velasco, iaz, azken kilometroetan. FORTUNA CD

lazko onenak Behobiako irteeran egongo dira

ATLETISMOA Mikel Velasco (1.09.47) eta Ainhua Aranburu (1.24.13) arrasatearrak izan ziren iaz Behobia-Donostia lasterketan denbora onena egin zuten debagoiendarrak. Domekan ere irteera puntuan izango dira, ibarreko beste 356 korrikalarirekin batera

Xabier Urzelai Atxa ARRASATE Domekan Debagoieneko 358 korrikalarik –iaz baino 10 gehiago– hartuko dute esku Behobia-Donostia lasterketaren 58. edizioan. Eta, hitzordura begira, azken edizioko ibarreko korrikalari azkarrenekin egon da GOIENA, hasteko, domekan lasterketan egoteko asmoa ote duten galdetzeko. Eta bai, Mikel Velasco eta Ainhua Aranburu irteera puntuan egongo dira, hori bai, helburu ezberdinekin.

Velasco, hobetzeko asmoz

Mikel Velascok ez du hordagoa botatzeko arazorik izan. "Iaz baino gehiago entrenatu naiz, eta hobeto nagoela esango nuke. Hala, iazko markari minutu bat kendu nahi diot, ea 1.08.30eko markatik gertu ibil naitekeen; hori da helburua". Arrasatekoa bere kabuz ibili da entrenatzen; zentzu horretan, autodidakta da. "Ez dut entrenatzailezik eta halakorik, Interneten informazio mordo dago eta tira, orain

arte moldatu naiz". Hala, joan den astean Antxintxika krosean egindako hamargarren postuak erakusten dio sasoi puntu politean dagoela. "Ez nuen ezer ere gorde, topera joan ginen, baina bai, haizea izan genuen kontratan eta horrek eragingo zuen. Gustura amaitu nuen, baina adi, domekan Asier Azkarate ere ez delako txarto ibiliko".

Aranburu, lasaiago

Ainhua Aranburuk, berriz, domekan lasaiago hartuko ditu gauzak. "Beti nahi izaten dugu lasterketa on bat egin, eta ibili naiz entrenatzen, baina ez iaz beste. Bikotea lesionatuta daukat, eta horrek ere izan du eragina;

DEBAGOIENEO 358 LAGUNEK HARTUKO DUTE PARTE LASTERKETAN; IAZ BAINO 10 GEHIAGOK

izan ere, iaz elkar motibatzen genuen korrika egitera joateko, eta aurtun nagituta ibili naiz", dio barrez. Hala, egunotan eguraldiari begira ibili da. "Eguraldi txarrarekin ez naiz gustura ibiltzen. Eta, hasierako iragarpenak onak baziren ere, okertzen hasi da kontua. Lagunekin joango gara, eta egunaz gozatzea izango da helburua".

Atletak herrika

Herria	Kopurua
Antzuola	23
Aretxabaleta	41
Arrasate	107
Bergara	90
Elgeta	2
Eskoriatza	14
Leintz Gatzaga	0
Oñati	81
GUZTIRA	358

OHARRA: DATUAK GIPUZKOAKO HERRIETAKOAK DIRA. HORREGATIK EZ DAUDE ARAMAIOKO DATUAK.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOR. ERREGIONALA

Zarautz-Bergara

Zap. 15:30. Asti.

Urola-Aretxabalet.

Zap. 16:00. Argixao.

OHOR. ERREGIO. EMAK.

Mutriku-Debagoiena

Zap. 19:00. Mutriku.

GAZTEAK, MAILA NAZ.

Bergara-Gasteizko A.

Zap. 16:30. Agorrosin.

GOINGO MAILA

Zumaiako-Antzuola

Zap. 12:30. Zumaia.

Anaitasuna-Bergara

Zap. 15:30. Azkoitia.

Mondra-Urki

Zap. 16:30. Mojategi.

Billabona-Aretxab. B

Dom. 18:00. Arratzain.

OHOREZKO GAZTEAK

Aloña Mendi-Ordizia

Zap. 16:30. Azkoagain.

Mondra-Urola

Zap. 16:30. Mojategi

LEHENENGO GAZTEAK

Zarautz-Mondra C

Dom. 17:30. Asti Txiki.

Urola-Aloña Mendi B

Dom. 12:00. Argixao.

Mondra B-Ordizia

Dom. 13:00. Mojategi.

Ikasberri-Bergara

Dom. 15:30. Azpeitia.

EMAKUMEZKO KADET.

Goierri-MU

Zap. 12:00. Lazkao.

ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Eskoriatza-Leioako

Zap. 18:30. M.Muñoz.

Mondrate-Afantxo

Zap. 17:30. Musakola.

GIPUZKOAKO TXAP.

Coinbroker-Tolosala

Zap. 16:00. Zubikoa.

GIPUZKOAKO 2. MAILA

Eskoriatza-Aldapeta

Zap. 16:15. Eskoriatza.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAP.

Fagor Prof.-Escolapios

Zap. 18:00. Zubikoa.

GIZ. GIPUZ. SENIOR.

Soraluce BKE-Aritzaba.

Zap. 15:30. Labegarieta.

Mugarri Ingou-Eibar

Zap. 18:30. Iturripe.

EMAK. GIP. SENIOR.

Borda-Aloña Mendi

Dom. 13:00. Zarautz.

SASKIBALOIA

EBA

Baskonia-MU

Zap. 18:00. Gasteiz.

EUSKAD. LEHEN EMAK.

MU-Ibaeta

Dom. 18:30. Ibarra.

EUSKAD. LEHEN GIZON.

Goierri-MU

Zap. 18:00. Urretxu.

EUSKADI. BIG. GIZON

Padura-Biotz Aloña

Zap. 18:30. Arrigorriaga.

Ordizia-Soraluze

Zap. 18:00. Ordizia.

GIPUZ. EMAK. SENIOR.

Goierri-MU

Dom. 16:00. Urretxu.

ERRUGBIA

SENIOR GIZONEZKOAK

Atsedena.

SENIOR EMAKUMEZK.

Atsedena.

18 URTEZ AZPIKOAK

Elorrio/Arrasate-Urbe.

Zap. 12:30. Elorrio.

ERRUGBI INKLUSIBOA

Entrenamendu saioa.

Dom. 10:30. Mojategi.

UDA eta Bergara, ligan jaun eta jabe, zortzi partidu jokatura

FUTBOLA Gorengoen mailan ere Mondra dabil agintzen, eta Aloña Mendi bigarren postuan dago

X.U ARRASATE

Gizonezkoen ohorezko erreregionalean liga hasiera honek ez du iazkoarekin zerikusirik. Orduan, bailarako lau taldeak ezinean ibili ziren; UDAk eta Bergarak bidea zuzendu zuten, eta Mondra eta Aloña Mendi mailaz jaitzi ziren. Oraingo hau, baina, beste kontu bat da. Ohorezko erreregionalean Aretxabaleta (23) eta Bergara (23) dira kategoriako oilarrak, eta dagoeneko Eibar (22) atzean utzi dute. Hala, asteburuan etxetik kanpora jokatuko dute ibarreko bi talde horiek. Eta emakumezkoen ohorezko erreregionalean Debagoiena Bailarak ere kanpoan jokatuko du, lau puntu gehiago dituen Mutrikuren zelaian (ikus taula).

Mondrak etxean, bihar

Maila bat beherago Mondra ligako oilar bilakatu da, jokatuko



Mondra, Antzuolaren kontrakoan. i.s.

tako partidu guztiak irabazi dituzte (8), eta oraingo geldiezin dabilta. Hala, bihar Urkikoen bisita izango dute Mojategin. Bigarren dauden oñatiarrak ere maila politean dabilta, lau partidu irabazi dituzte eta domekan Andoingo bisita izango dute.

Aitziber Aranburuzabala Juldain ARRASATE

Orain dela urtebete, Nafarroan eta Donostia aldean errodatu zuten Carlota Peredak zuzendutako *La ermita* filma, eta han izan ziren Osintxuko Jon Olivares eta Arrasateko Maia Zaitegi aktoreak.

2019an *Cerdita* lanagatik film labur onenaren Goya saria irabazi zuen Peredarendako estreinako lan luzea da, eta baita Olivaresendako eta Zaitegirendako ere. "Esperientzia oso polita izan da, giro oso ona izan dugu. Maiarekin eta beste taldekideekin lan egitea plazer hutsa! Maiarekin hainbat erro-daje-egunetan izan nintzen eta oso ondo konpondu ginen, baita haren gurasoekin ere. Plazera eta ohorea da gazteak ibilbidea egiten dutela ikustea", kontatu du Olivaresek.

Zortzi urteko Arrasateko aktoreak eta haren familiakoek ere asko gozatu dute filmean parte hartzen. Hala kontatu du Maia Zaitegiren aita den Ikerrek: "Esperientzia oso berezia izan da, Maiari bere bizitzako aspektu desberdinetan garapen pertsonal izugarria izateko aukera eman diona: istorioak berak suposatu duen bizitzarako ikaskuntza; bizi behar izan dituen emozio desberdinak bizitzea; ekipo baten parte izatea eta gutzian lana behar-beharrezkoa dela ikustea; grabaketa baten momentu on eta dibertigarriak ikustea, baina baita diziplinaz kontziente izatea eskatu diotenak ere. Gainera, izan dituen bidelagunak bikainak izan dira, esaterako, Olatz Beobide bere *coach*-a izan da eta pribilegio hutsa izan da haren eskutik, pertsona bezala eta profesional bezala, mundu honetan murgil-



La ermita filmeko lantaldeko kide batzuk, horien artean, Jon Olivares eta Maia Zaitegi. SITGES JAIALDIA

'La ermita' filma zinema aretoetan estreinatzeaz

Azaroaren 17an estreinatuko dute Osintxuko Jon Olivares eta Maia Zaitegi aktore arrasatearrak parte hartzen duten 'La Ermita' filma zinema aretoetan; Debagoienean hurrengo asteetan izango da kondaira batean oinarritutako beldurrezko filma ikusgai

du ahal izatea. Askok ikasi du Beobiderek aspektu guztietan. Era berean, ekipo guztia, oso humanoa izan da, eta asko babestu dute uneoro. Inguruan izan dituen aktoreak profesionalak txapela kentzeko modukoak izateaz gain, pertsonalki ere halakoak direla erakutsi dute. Guretzako, zoramena izan da etxeko errutina guztiz apurto duelako, baina esker hitzak bai-

"MAIAREKIN ETA BESTE TALDEKIDEEKIN LAN EGITEA PLAZER HUTSA IZAN DA "

JON OLIVARES

no ez ditugu inguruan izan ditugun guztiontzat. Zainduak izan gara denok!".

Jaialdi "handietan"

Sitgeseko Beldurrezko Zine Jaialdian aurkeztu zuten urriaren 13an eta Donostiako Beldurrezko eta Fantasiatzko Jaialdian, pasa den astean. "Gogo handia nuen Sitgesera joateko, giro oso ona eta sana egoten da-eta jaialdian. Sekulako aukera izan da, niretzako, hara joatea, eta lantaldekoak ere oso pozik daude. Egia da, Sitgeseko publikoa oso beldur-zalea dela, eta film hau ez da horren beldurrezkoa, baina orokorrean kritika onak ari gara jasotzen", dio Olivaresek.

Zaitegi familiakoendako ere "oso berezia" izan da, bereziki, Sitgeseko jaialdian izatea. "Inoiz pentsatuko ez genituen egoerak bizi izan ditugu eta ezezagunak pizten duen urduritasuna nabaritu dugu etxean. Oso surrealista izan da, baina aldi berean oso hunkigarria ere bai. Donostiakoa lasaiagoa izan zen, etxean geunden eta giroa ere gertukoagoa, naturalagoa, eta zinemaldi

"OSO SURREALISTA, BAINA, ALDI BEREAN, OSO HUNKIGARRIA IZAN DA GURETZAKO"

IKER ZAITEGI

honetako giroa "ganberroagoa" da, polita", dio Zaitegik.

"Film emozionala"

Herri txiki bateko kondaira batetik abiatzen da istorioa; herriko ermita batekin lotura du. "Ermita horretan medium bat izaten da eta hari laguntza eskatuko dio Emma protagonistak, hildakoekin berba egiten ikasi nahi duelako. Hori da istorioaren muina eta filmaren leloak hala dio: *Ez ahaztu inoiz agur esaten*", kontatu du Olivaresek.

Asier eta Emma pertsonaiak

Asier pertsonaia gorpuztu du Olivaresek. "Herriko gazte bat da, hippy samarra, antisistema puntu batekin. Askok maite du Emma (Maia Zaitegi) eta hari laguntzeko edozer egiteko prest dago. Pertsonaia oso polita izan da antzezteko".

Emma da Maia Zaitegi, Belen Ruedak antzeztzen duen emakumearen alaba. "Oso ume ausarta eta nekazina da Emma. Helburu argi bat dauka eta ez du ezerk ezta inork geldiaraziko. Duen adinerako ume heldua da bizitzea tokatu zaion guztiagatik".

Azaroaren 17an, aretoetan

Aktoreak eta euren gertukoak "gogotsu" daude zinema aretoetako estreinaldirako. Hala dio Zaitegik: "Aurrestreinaldian murgilduta gaude; azaroaren 14an, Madrilen izango gara, eta irrikaz gaude jendearengan duen eragina ikusteko, kontatzen duen istorioa zoragarria da eta".

Debagoienean ere izango da *La ermita* ikusteko aukera. Hurrengo asteburuan, esaterako, Oñatin; Arrasaten abenduan eskaintzeko asmoa dute, eta Bergaran eta Aretxabaletan ez dute datarik zehaztu, oraingoz.

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

DANEL PASCUAL
ETA ENEKO GARCIA

AZAROAREN 15EAN, EGUAZTENEAN,
19:30, 21:30 ETA 23:30
'ELKARRIZKETTAP' SAIOAN
JUAN KRUIZ LAKASTAREN ELKARRIZKETA



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.



Profesionalak eta ikasleak, bat eginda

Euskadi Brass taldeak Arrasate Musikal eskolarekin elkarlanean antolatuta, Euskadiko Tronpeta-joleen Lehen Topaketa egingo dute bihar; 100 musikari inguru batuko dira Juan Arzamendi Musika Etxean egingo dituzten askotariko ekitaldietan

A. Aranburuzabala ARRASATE

Alberto Urretxo tronboi-jole profesionalaren deia jaso zuten Arrasate Musikal eskolakoek, maiatzean, Euskal Herri mailako tronpeta-joleen topaketa Arrasaten egitea proposatu. "Bilboko Orkestra Sinfonikoko tonboi-jole bakarlaria da Urretxo, eta baita Euskadi Brass taldeko kidea ere; bera arrasatearra izanik eta musika eskola berria estreinatu dugunez, elkarrekin topaketa hori Arrasaten antolatzea proposatu zigun", azaldu du Arrasate Musikaleko tronpeta-irakasle Edorta Aiastuik.

Ehun lagun inguru batuko dira, bihar, Juan Arzamendi Musika Etxean egingo dituzten ekitaldietan parte hartzeko. "Tronpeta jotzen duten guztien dako da gonbidapena; hori horrela, Euskal Herriko musika eskolako ikasleak eta irakasleak etorriko dira –horien artean, Arrasatekoak eta Aretxabaletakoak–, kontserbatorioetako goi mailako ikasleak ere bai, eta baita tronpeta-jole amateurrak eta profesionalak ere. Bitxikeria moduan, Santanderretik ere badatoz musikari batzuk".

Hitzaldiak eta kontzertuak

Ikasleen eta irakasleen arteko harremanak sendotzea du bihar-



Alberto Urretxo arrasatearrak gidatzen duen Euskadi Brass taldea. EUSKADI BRASS

ko topaketak helburu. "Bizipenak eta metodologiak partekatuko ditugu, eta gauza berriak ikasi ere bai. Asmo horrekin gonbidatu ditugu Musikene goi mailako musika ikastegiko tronpeta irakaslea eta freelance moduan formazio ezberdinekin bakarlarari moduan jarduten duen Luis Gonzalez, batetik, eta Bilboko Orkestra Sinfonikoko tronpeta bakarlaria den Migel Anjel Torres, bestetik. Euren bizipenak kontatuko dituzte Auditoriumean egingo dieten elkarriketan, eta, horrez gainera, goi mailako kla-

seak eskainiko dituzte. Jazzari ere tokia egingo diogu Jabi Perez aditua gonbidatuta, eta tronpeta marka ezberdinen erakusketa ere prestatu dugu".

Kontzertuak ere izango dira. "Aretxabaletako eta Arrasateko ikasleek profesionalekin batera kontzertua egingo dute goizean, eta 19:00etan hasiko da Euskadi Brass taldeak Musikeneko tronpeta-joleekin egingo duena; azken hori guztiondako zabalik dago. 18:30ean zabalduko dugu leiha-tila, geratzen diren gonbidapenak banatzeko".

Amodiozko Gutunen eta Esaldien Lehiaketa berria, abian

Urtarrilaren 7a da lanak aurkezteko azken eguna; ohi moduan, sari banaketa otsailaren 14an egingo dute

A. Aranburuzabala BERGARA

Ibilbide luzea du euskarazko idatziak bultzatzeko asmoz sortutako Jardun Euskara Elkar-tearen Amodiozko Gutunen Lehiaketak; aurten 32. aldia du; eta asmo berarekin abiatu zuten

geroago aurten zortzigarrenegingo duten Amodiozko Esaldien Lehiaketa.

Parte hartzeko oinarriak

2008an edo lehenago jaiotakoek izango dute gutunen atalean

parte hartzeko aukera; esaldien atalean, ez dago adin mugarik. Aurkezten diren lanak argitaragabeak eta euskaraz idatziak izan behar dute, eta eskuz zein ordenagailuz idatzita aurkeztu ahal dira. Gutunen luzerari dagokionez, ezin izango da bi orrialde baino gehiagokoa izan.

Errotalde jauregira bidal daitezke gutunak, posta arruntez, edo amodiozkogutunak@gmail.com-era. Esaldiak, berriz, e-posta berera edo Whatsappez 605 712 469 telefono zenbakira.

Goienakideen txokoa

AZAROKO SARIAK



Errigorako saskia

Parte hartzeko sariaren izena: errigora

ERRIGORA

Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
GRATIKO SARRAK

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harremandenda.org
Bidezko Merkataritzako produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE
"sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzearen artean egingo da zozketa. Indarrez dagoen (P) 15/1000 lagunen artean, jaiarazten dugu sare dituztenak. Sareko komunikazio bidezkoen bidezko adierazpenak ezin dira. Datu bakoiti horien helburua da indarrez dagoen lagunen gaitortasuna. Eskubide onarazpenak dituzten arazoak, harikazuzteko edo oharretarako, helbide honetan dituzte: goienakide@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

VENTI GASTRO ITALIA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte! Parte hartzeko azken eguna: azaroak 14

☎ 043 25 05 05 ✉ goienakide@goiena.eus 📱 "Goiena app"-a / zozketa atalean.

📱 GOIENAKIDE Jaietxea
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 15€
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

104. ERRENTAN HARTU
Arrasate edo Oñati pisua errentan hartu. Errentan hartzeko pisu bila dabilen neska. Lan kontratua dut. 685 71 07 53

2. GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN
Garajea Bergaran. Bergarako Ibargarai auzoan garaje itxia errentan ematen da. Sarrera zabaldua eta erraza du. 608 82 91 97

Oñati, Kale Zaharra. Errentan ematen da garaje itxia. Ate automatikoa eta 18 metro karratuko azalera du. Oñatiko Kanpantxo kaleko 2. zenbakian dago kokatua. Telefonoa: 627 09 27 01

4. LANA

402. ESKAERAK
Arrasate eta Aretxabaleta. Aste bukaeretan, orduka, nagusiak zaindu, garbiketak edo bestelako lanak egiteko prest dagoen emakumea. Soziosanitario ikasketak ditut. 642 49 94 09

Arrasate. Arrasateko neska arduratsu eta atsegina prest umeak zaintzeko edota nagusiei lagundu edo pasean ateratzeko. Baita orduka ere. Telefonoa: 695 73 87 95

Arrasate. Etxean bertan bizi izaten, gauzez edo orduka lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketak lanak egiteko prest. Soziosanitario ikasketak ditut eta esperientzia handiko emakumea naiz. 633 12 85 30

Arrasate. Gaztea lan ezberdinetarako prest: zerbitzu teknikoak, zaintza lanak, garbiketak eta tabernari lanak. Dokumentazio guztia egunean daukat. 687 08 45 52

Bergara. Burdiñate. Garajea erosiko nuke Burdiñaten edo inguruan. 667 68 94 12

Debagoiena. Orduka, umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketak lanak egiteko prest nago. Telefonoa: 672 95 00 91

Debagoiena. Asteburuetan pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 658 95 79 51

Debagoiena. Astelehenerik ostiralera nagusiak zaintzeko eta garbiketak lanak egiteko prest dagoen emakumea. Soziosanitario titulua dut. Na-

gusien egoizetan aritu izanaren esperientzia dut. 685 46 91 11

Debagoiena. Astelehenerik ostiralera zaindu eta garbiketak zaintzen, garbiketak egiten edo bestelako lanetan lan egingo nuke. Gauzez etxean edo ospitalean nagusiak zainduko nituzke. Beharrezkoa den ordutegira moldatu naiteke. Soziosanitario ikasketak ditut. 602 80 15 38

Debagoiena. Emakumea gertu etxeko langile moduan, garbiketetan eta umeak zainduko nituzke. Beharrezkoa den ordutegira moldatu naiteke. Soziosanitario ikasketak ditut. 632 19 08 26

Debagoiena. Emakumezkoa prest, pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko nahiz garbiketak lanetarako. Esperientziaduna. 603 26 66 18. Erika

Debagoiena. Etxeak, lantegiak, elkartek eta bestelakoak garbitzeko prest dagoen gizonetzkoa. Esperientzia dut ospitaleen eta enpresa industriaren garbiketetan. Ordu-tegi aldetik malgutasuna daukat. 645 72 92 87

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo bestelako lan egingo nuke. Nagusiak zaindu eta garbiketak lanak egiteko prest. Telefonoa: 642 05 31 91

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo bestelako lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zaindu, garbiketak lanak egiteko prest dagoen mutila. Telefonoa: 602 42 64 84

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo bestelako lan egingo nuke. Nagusiak zaindu eta garbiketak lanak egiteko prest. Soziosanitario ikasketak ditut. 632 34 22 25

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. Nagusiak zaindu eta garbiketak lanak egiteko prest. Soziosanitario ikasketak egiten ari naiz. 613 77 18 56

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketak lanak egiteko prest. Soziosanitario ikasketak ditut. 631 64 25 54

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke astelehenerik osti-

ralera. Nagusiak zaindu edo garbiketak lanak egingo nituzke. Esperientzia eta soziosanitario titulua ditut. 685 30 33 27

Debagoiena. Garbiketak lanak eta nagusiak zaintzeko prest dagoen emakumea. Legezko agiriak eta soziosanitario ikasketak ditut. Orduka lan egingo nuke. Telefonoa: 631 25 26 67

Debagoiena. Garbiketak lanak eta umeak edo nagusiak zainduko nituzke. Arratsaldetan eta aste bukaeretan edozein ordutan lan egingo nuke. Soziosanitario ikasketak egiten ari naiz. Telefonoa: 613 58 64 68

Debagoiena. Garbiketak lanak eta umeak edo nagusiak zainduko nituzke. Arratsaldetan eta aste bukaeretan edozein ordutan lan egingo nuke. Soziosanitario ikasketak ditut. Telefonoa: 613 58 64 68

Debagoiena. Garbiketak lanetan edo pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 611 24 18 98

Debagoiena. Garbiketak lanetan eta pertsona nagusiak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Astelehenerik ostiralera bukaeretan orduka. Telefonoa: 612 56 12 39

Debagoiena. Gauzez etxean bertan bizi izaten edo egunean zehar orduka lan egingo nuke. Kotxea daukat. Soziosanitario ziurtagiria dut. Telefonoa: 678 80 96 01

Debagoiena. Goizez pertsona nagusien zaintza eta garbiketak lanak egingo nituzke. Gauetan pertsona nagusien zaintza lan egingo nuke. 642 37 01 92

Debagoiena. Landa eremuan lan egingo nuke prest dagoen gizonetzkoa. Telefonoa: 612 58 82 68

Debagoiena. Nagusiak edo umeak zaintzen eta denetarik garbiketak egiten lan egingo nuke. Astelehenerik ostiralera edo aste bukaeretan orduka lan egingo nuke. Telefonoa: 632 63 77 38

Debagoiena. Nagusiak zaindu edo garbiketak lanak egingo nituzke. Goeizetan eta aste bukaeretan orduka lan egingo nuke. Soziosanitario titulua dut. 634 94 30 78

Debagoiena. Nagusiak zaindu, garbiketak lanak egin edo bestelakoetan

lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten edo bestelako lan egingo nuke. 632 15 78 12

Debagoiena. Nagusiak zaindu, garbiketak edo bestelako lanak egingo nituzke astelehenerik igandera bitartean, orduka, gauak barne. Telefonoa: 632 19 08 26

Debagoiena. Nagusiak zaintzen 20 urteko lan esperientzia duen emakumea lan bila. Etxean bertan bizi izaten, orduka, aste bukaeretan edo bestelako lan egingo nuke. Soziosanitario titulua dut. 602 64 68 17

Debagoiena. Nagusiak zaintzen edo garbiketak lanetan lan egingo nuke, goiz zehar arratsaldetan edozein ordutegira moldatu naiteke, baita asteburuetan ere. Soziosanitario titulua dut. Telefonoa: 645 37 45 10

Debagoiena. Neska gaztea pertsona nagusiak zaindu, garbiketak eta bestelako lanak egiteko prest. Orduka lan egingo nuke. Malgutasuna. Telefonoa: 624 69 88 81

Debagoiena. Orduka nagusiak pasiatzeko edo konpainia egiteko gertu nago. Baserrietan eta egoizetan ere bai. Autoa daukat. 631 37 49 04

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu edo garbiketak lanak egiteko prest dagoen emakumea. Astelehenerik igandera bitartean orduka egingo nuke lana. Erizaintzako laguntzaile ikasketak ditut. 620 23 58 15

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketak lanak egingo nituzke egunez zehar. Deitu 642 36 70 42 telefono zenbakira

Debagoiena. Pertsona nagusiak zainduko nituzke, eguerdian hasi eta arratsaldeko 20:00ak arte. Esperientzia dut pertsona nagusien zaintza. 641 79 94 18

Debagoiena. Pertsona nagusien zaintza lan egingo nuke etxean bertan bizi izaten, lanaldi osoa edo orduka. Telefonoa: 688 85 46 59

Debagoiena. Pertsona nagusiak zainduko nituzke etxean bertan bizi izaten edo orduka. Soziosanitario titulua dut. Telefonoa: 603 72 59 43

Debagoiena. Soziosanitario agiria duen emakumea lanerako gertu. Etxean bertan bizi izaten, egunean zehar edota gautetan. Deitu 626 91 49 04 telefono zenbakira.

Debagoiena. Soziosanitario titulua eta gomendio gutunak dituen emakumea lan bila. Astelehenerik igandera bitartean lan egingo nuke; aste bukaeretan berriz, edozein ordutegira moldatu naiteke. Telefonoa: 647 31 48 17

Debagoiena. Zaintzaile edo garbiketaren lanetan jarduteko prest nago. Deitu 612 27 68 33 telefono zenbakira.

6. MOTORRA

602. EROSI
Kotxea erosi. Kotxe bat erosi nahiko nuke. Hasi-berri batentzat patatuko bat. Prezio altuena: 1.500 €. Interesa izanez gero deitu edo idatzi: 689 09 09 97 zenbakira. Esker mila!

604. BESTELAKOAK
Arrasate-Gasteiz kotxea partekatu. Kotxea partekatuko nuke Arrasate Gasteizera. Bi turnotan izango litzateke: goiz eta arratsalde. 611 79 92 99

7. ANIMALIAK

703. EMAN
Katakumeak opari. Katakumeak ematen dira opari. 605 77 16 46

ZORION AGURRAK



BERGARA
Maddi Sanchez Agirre
Azaroaren 14an, 5 urte. Zorionak, politxori! Ondo-ondo pasau zure urtebetetzea eta patxo haundi bat, bereziki Aneren partetik!



BERGARA
Garazi Aretxaga Arabolaza
Azaroaren 14an, 9 urte. Zorionak, Garazi! 9 urte jadanik, ze handi ixten zabizen. Patxo handi bat etxeko danon partetik eta ondo-ondo pasau!



OÑATI
Ainhize Arregi Baseta
13an, 13 urte. Itzeleko neskatilla zara, langilea eta lagun laguna. Milla kilo zorion, maitia! Aitako, amatxo eta Ekhi.



ARAMAIO
Aiur Muñoz Lopez de Bergara
Azaroaren 11n, 4 urte. Zorionak, Aiur! Patxo handi bat etxekoen eta familia osoaren partetik eta beste patxo handi bat Marenen partetik! Ospatu eta ondo pasau zure urtebetetze egunean! Pila bat maite zaitugu!



BERGARA
Andde Lazkano Bilbao
Azaroaren 10ean, 6 urte. Zorionak, Andde! Allegau da, 6 urte! Oso ondo pasau zure eguna! Patxo asko danon partetik!



OÑATI
Izadi Garcia Aranburu
9an, 11 urte. Zorionak, txapelndun! Ondo pasau zure urtebetetze eguna! Aste bukaeran familia danakin zelebrauko. Patxo haundi bat.



OÑATI
Hodei eta Izar Iriondo Ugarte
Hodeiki, azaroaren 8an 10 urte, eta Izarrek, azaroaren 10ean 8 urte. Ondo-ondo pasau zure eguna! Ikaragarri maite zaituztegu! Zuen familia osoaren partetik.




BERGARA
Manex Goitia Pagaldai
Azaroaren 7an, 10 urte. Zorionak, txapelndun! Primeran pasau zure urtebetetze egunian. Muxu haundi bat familiaren partetik!




ARRASATE
Sua Arando Balantzategi
Azaroaren 7an, 7 urte. Zorionak, Sua! Etxekuen partetik gozatu zure eguna! Ask maite zaitugu!



ARRASATE
Ane Solis Hernandez
Azaroaren 7an, 5 urte. Zorionak, Ane! 5 urte eta lehenengo egunian bezain bihurri jarraitzen dozu. Patxo eta besarkada potolo bat familiakuen partetik.



ARRASATE
Oihan Viguri Hernandez
Azaroaren 10ean, 5 urte. Zorionak!! Jarraitu zure eguna eta hartu patxo pilla bat maite zaitugunon partetik. Gaur, banastapean lo ittera!



OÑATI
Aiur Biain Ezkibel Hernandez
Azaroaren 11n, 10 urte. Zorionak, Aiur! Ondo-ondo ospatu zure bezalakua izaten, zu modukorik ez dau. Patxo eta besarkada potolo bat familiakuen partetik.



ZORIONTEKO HIRU BIDE

- Goiena.eus-en erabiltzaileak sortu eta Goiena.eus/zorionagurak helbidean sartu.
- Mezua bidali zorionagurak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
- Zatoz Goienara bertara edo delitu 943 25 05 05 telefonora.

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguaztenezko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Korosti
Inmobiliaria

Bergara:
Bidekurutzeta,
55m² erabilgarri,
logela 1, igogailua eta
garaje itxia aukeran.
187.000€


Elgeta:
Salbador, 80m²,
erabilgarri, 3 logela,
eta igogailua.
82.000€


Antzuola: Kalegoi,
126,5m² erabilgarri,
4 logela eta garaje
itxia barne eraikin
berean.
250.000€

Ibargarai 3 BERGARA
Tel.: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

Informazio
gehiago:

ESKER ONA




Javier Belastegi Arribas 


2023ko azaroaren 6an hil zen, 79 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2023ko azaroaren 10ean.

ESKER ONA




Kontxi Agiriano Saez de Zaitegi 


2023ko azaroaren 6an hil zen, 78 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Eskoriatzan, 2023ko azaroaren 10ean.

ESKER ONA



Maria Urrutia Murguiondo 

Anton Otaduy Asola 'Etxexo'-ren alarguna

2023ko azaroaren 4an hil zen, 96 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2023ko azaroaren 10ean.

OROIGARRIA

Javier Belastegi Arribas 

Monika Belastegi lankidearen aita


2023ko azaroaren 6an hil zen, 79 urte zituela.


Bat egiten dugu senideen saminarekin.

goiena

Goiena Komunikazio Taldea.
Bergaran, 2023ko azaroaren 10ean.

OROIGARRIA



Javier Belastegi Arribas 

2023ko azaroaren 6an hil zen, 79 urte zituela.

Beti izango zaitugu gogoan.

Aranzabal senideak, koinatu-koinata eta ilobak.
Bergaran, 2023ko azaroaren 10ean.

Oroilore BABESLEA

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

Gari deitu zuzenean edo, nahizago babesez, jakinarazi zuei aseguru-konpainiari gurekin nahi dituzela agurtu nahi dituzela.

Marioren, Ibanen, Mariboren eta Cristianen partetik, besarkada magikoak zuzentzeko, bihotz sendatze bala dituen horietakoak. Guk baditugu gordetu zuzentzeko, gure beharra dituzenerako.

Marlo, Iban, Maribi eta Cristian

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua ONATI • Tel.: 943 71 66 37

BERRI-ZAKUA

Elkartasuna
Mondravember taldeko ordezkariak errugbi jokalarien babesa jaso zuten, Mojategin. Bibotedunak haraino joan ziren ARTren eta Atletico San Sebastianen arteko partidua ikustera. Talde argazkiak egiteko aprobetxatu zuten.



Ignacio eta Santi
Urriaren 29an, 61 urte bete ziren Ignacio eta Santi ezkondu zirenetik. Familiako guztiek elkarrekin ospatu zuten. "Zorionak familia guztiaren partetik, eta bereziki Ainara, Irene eta Lauraren partetik!"



82ko kintada
Aurreko zapatuan 82ko kintadako ia 70 arrasatear elkartu ziren. 11 urteko etenaren ostean "uztarik onena" batu zen. Garaian bazkaldu eta ostean dantzaldia izan zuten.

ASTEAGOIENA TELEBISTAN

**NOT SCIENTIST TALDEA**

Lyongo taldeak Kooltur Ostegunetan egindako kontzertua osorik entzuteko aukera. Punk, rock eta indie doinuak.

'Kooltur Ostegunak' Egubakoitza, 21:00 eta 23:00

**BEHOBIA-DONOSTIA**

GOIENAKO lantalde batek gertutik jarraituko du domekako proba. Bailerako korrikalarien adierazpenak batuko dituzte.

'Harmailatik' Astelehena, 19:30, 21:30 eta 23:30

**ETXABURU BASERRIKO ARRAUTZAK**

Julen Murua kazetaria Oñatiko Etxaburu baserriraino joango da, hango arrautzak ezagutzera.

'Landara' Astelehena, 18:00, 20:00 eta 22:00

**'BIXI IBILI!' ARRASATEN**

Galdera-erantzunen tribial jokoa Arrasatera eramango du Aitor Agirianok. Zenbat galdera asmatuko dituzte han?

'Bixi ibili!' Martitzena, 19:30, 21:30 eta 23:30

**DANEL PASCUALI ETA ENKO GARCARI ELKARRIZKETA**

Juan Kruz Lakastak elkarrizketatuko ditu Iruñerriko eszenako trabestia eta artista.

'Elkarrizketa' Eguaztana, 21:30 eta 23:30



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 10**OÑATI Euskal Herriko I. Hika Topaketa**

Bi mahai-inguru egingo dituzte. Oñatin, 10:00etan.

ELGETA 'Azken galdera amari' hitzaldia

Manex Beristain Agirre egilea egongo da ekitaldian. Liburutegian, 17:00etan.

ARETXABALETA Haur eta Nerabeen Nazioarteko Eguna
17:30ean, ginkana gaztetxoendako, eta 18:30ean, grafitia. Herriko Plazan.

BERGARA 'Ontzako urrearen truk' erakusketa

Georges Lacomberen bilduma ikusgai egongo da gaurtik abenduaren 1era arte, martitzenetik domekara. Aroztegin, 18:00etan.

BERGARA Laino Beltzak taldea

Movembergara elkarteak gonbidatuta. Venti Gastroitalia jatetxean, 18:20ean.

DEBAGOIENA Debagoieneko berbalagunen afari-merienda
Bingo-jokoa ere izango dute. Espaloian, 18:30ean.

ARETXABALETA Aretxabaletako Sarerren asanblada

Presoen etxeratzearen fase berria, Gabonetarako proposamena eta Giltzak manifestua landuko dituzte. Udaletxe zaharlean, 18:30ean.

ELGETA Ipuin musikatuak
Gabonetako ipuinak eta musika. Ozkarbi elkartearen, 18:30ean.

ARRASATE 'El caso Freyter' dokumentalaren aurkezpena
Jorge Adolfo Freyter Romero Elkarteak aurkeztuko du. Amaia antzokian, 18:30ean.

ARAMAIO Gantzagako jaiak
19:00etan, kanpai-jotzea eta etxafuegoak; eta 19:30ean, Assata taldea. Gantzagan.

ZAPATUA 11**OÑATI Arrikruzera irteera**

Jaturabeko sarrera txikitik sartuko dira, Aloña Mendi Espeleologia taldekoekin, Mendi Hamabostaldian. Jaturabeko aparkalekuan, 09:00etan.

ANTZUOLA Mendi irteera eta baba jana

Trekutz-lurukruzeta-Trekutz mendi ibilaldia egingo dute. Jon Mata, Urko Arregi eta Mikel Iturriotz arituko dira bertsoan bazkarian. Trekutzen, 09:00etan.

ARAMAIO Gantzagako jaiak

09:00etan, kanpai errepikak; 12:00etan, meza; 13:00etan, bermut dantza, eta bingo-jokoa; 17:00etan, mus txapelketa; 17:30ean, XIV. patata tortilla txapelketa; 17:30ean, umeendako tailerrak eta puzgarriak; 19:30ean, tortilla txapelketako sari banaketa eta dastatzea; 23:00etan, dantzaldia Akordek girotuta. Gantzagan.

OÑATI Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikora bisita gidatua

10:00etan euskaraz, eta 12:00etan gazteleraz. Artxiboan.

BERGARA Movember: topaketa Elorregin

Bailerako kideek egingo dute topaketa. Elorregin, 12:30ean.

LEINTZ GATZAGA Gatzagarren erretratu ateratzeko deia

2024ko egutegia osatzeko. Ostean, pintxo-poteoa. San Migel plazan, 17:00etan.

ARRASATE 'Cluedo' jokoa, bitzta errealean
Gaztetxoendako. Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

BERGARA Arrazakeriaren aurkako erronkak eta estrategiak hizpide
Hajar Samadik egingo du berba Jabekuntza Eskolako emakume

migratuentzako topalekuan, Luciana Alfarak gidatuta. Ehunduren bulegoan, 18:00etan.

ESKORITZA Ardo dastatzea
Atxorrotx Kultura Elkartearen eskutik. Fernando Eskoriatza plazan, 18:30ean.

ANTZUOLA Gaztaina-erre jana
Landatxopekoen eskutik. Erretiratuen elkartearen, 18:30ean.

ARRASATE Euskadiko tronpetajotzaileen topaketa
Debalde. Juan Arzamendi Musika Etxean, 19:00etan.

OÑATI 'Vivir en Villa Titiritaina' antzezlan

Pake Lekuko Ikusi Makusi antzerki taldekoekin. Sarrerak, bost euro. Santa Ana antzokian, 19:00etan.

BERGARA '100 urte kantuan' kontzertua

Musikarekin eta bideoekin osatutako bidaia eskainiko du Bergarako Orfeoia. Sarrerak, hamabi euro. Pilotalekuan, 19:30ean.

DOMEKA 12

ARAMAIO Gantzagako jaiak
09:00etan, kanpai errepikak eta etxafuegoak; 11:15ean, Arrasate Musikaleko txistulari bandaren kontzertua; 12:30ean, txirindulari igoera; 13:00etan, poteoa eta bingo-jokoa; eta, 17:00etan, tute txapelketa. Gantzagan.

LEINTZ GATZAGA Sanmilixanak
Artisau azoka egingo dute. San Migel plazan, 10:00etan.

BERGARA Euskal Herriko 45. dantza solte txapelketa
Bikote gazteendako txapelketa. Seminarixoan, 12:00etan.

ESKORITZA Sexualitate tertuliak
12-16 urte artekoendako solasaldiak. Gaztelekuan, 17:00etan.



ASSATA

ARRASATE Zirku tailerra
Gaztetxoendako.
Tren geltokiko gaztelekuan,
18:00etan.

OÑATI 'Arestian, egun...!'
emanaldia

Andoni Egaña bertsolaria, Aitor Furundarena soinu-jolea eta Andoni Salamero olerkaria, Oñatiko Musikegunak egitasmoaren baitan. Sarrerak, sei euro.
Santa Ana antzokian, 19:00etan.

ASTELEHENA 13

ARRASATE 'Viktor Frankl y el sentido de la vida' hitzaldia
Jose Domingok egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta.
Kulturaten, 10:00etan.

DEBAGOIENA Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatuko dituzte Antzuolan, Oñatin, Arrasaten eta Bergaran.
Herri horietan, 12:00etan.

ESKORIATZA Zaintzaren gaineko hitzaldia
Tania Cañasek eta bailarako bi sindikalistak egingo dute berba.
Kultura etxean, 18:30etan.

MARTITZENA 14

ARETXABALETA 'Nerabeak eta komunikazioa' hitzaldia
Ikasiz zentzoko Jone Galdosek egingo du berba, Haur eta Nerabeen Nazioarteko Egunaren bueltan.
Arkupen, 18:00etan.

ARRASATE 'Si yo no sé euskera, ¿cómo le puedo ayudar?' hitzaldia
Kike Amonarrizek egingo du berba, 'Haurren aurrean helduok heldu' ekimenaren baitan.
Kulturaten, 18:00etan.

BERGARA 'Etxean energia aurrez dezakezu erosotasunik galdu gabe' hitzaldia
Peio Insaustik egingo du berba Zientzia eta Teknologia Astearen baitan, euskaraz.
San Xoxepe elkartearen, 18:30etan.

ARAMAIO Assata taldea

Gantzaga auzoko jaietako lehen eguna musikaz girotuko du Arrasateko taldeak. Iban, Arkaitz, Jon, Jokin eta Beñat dira taldeko kideak. Bestek beste, *Oasia* diskoko kantuak joko dituzte.
Gaur, egubakoitza, Gantzagan, 19:00etan.

OÑATI Mindfulness eta erlaxazio tailerra

Iturrigorri Elkarlan elkartearen eskutik. Debalde.
Euskaldun Berria gelan, 18:30etan.

OÑATI Komikia solasaldia
Natasha komikiari buruzko saioa, Igor Leturiak gidatuta.
Liburutegian, 18:30etan.

ELGETA Hitez Pitz taldea
Nerea Ibarzabalen *Bar Gloria* liburuaren gaineko saioa.
Liburutegian, 19:00etan.

OÑATI 'Publiko berrien sorrera' mahai-ingurua

Aretoetara geroz eta jende gutxiago joatearen gainean egingo dute berba Matxalen De Pedrok, Xabier Payak eta Amaia Gabilondok, Karoi antzerki jaialdiaren baitan.
Zinema aretoan, 19:00etan.

ARRASATE 'Aisha' pelikularen emanaldia
Frank Berri zuzendariaren lana emango dute martitzenetako zinema-saioan.
Zinema aretoan, 19:00etan.

EGUAZTENA 15

BERGARA Bergarako ikerlari gazteen hitzaldia
Maia Iturrospe Ibarrek, Jokin Labaien Sotok, Gorka Kortabarria Perezek, Maider San Torkuato Labaienek eta Itxaso Calbanok egingo dute berba, Goienagusik gonbidatuta.
Seminarixoan, 10:00etan.

OÑATI Murgialdai baserrira bisita
Hango txakolindegia ezagutzeko, Pake Leku elkartearen eskutik.
Murgialdi baserrian, 10:30etan.

ARETXABALETA Literatura solasaldia: 'La fórmula preferida del profesor'
Yoko Ogawa japoniarraren *La fórmula preferida del profesor* lanaren gaineko saioa, Monica Leivak gidatuta.
Liburutegian, 18:00etan.

OÑATI 'Zaintza: zein prezioetan?' Zaintzaileen eta etxeko langileen eskubideak hitzaldia
Trabajadoras No Domesticadas elkarte kide Liz Quintanak egingo du berba.
Eltzian, 18:00etan.

ARRASATE 'Bertoko eta urrutiko ipuinak' saioa
Nerea Ariznabarretaren eta Mariano Hurtadoren ipuin kontaketa musikatua, 5 urtetik gorako emendako.
Santa Marinako auzo bibliotekan, 18:00etan.

BERGARA Eguaztenetako azoka
Garaiko produktuak erosteko.
Oxirondon, 18:00etan.

ESKORIATZA 'Energia argitu' tailerra
Etxean energia-eraginkortasuna hobetzeko eta faktura elektriko murrizteko azalpenak emango dituzte.
Ibarraundi museoan, 18:30etan.

OÑATI 'Tor' filma eta solasaldia
Silvia Triguerosek Tor des Geants proban zehar egindako filma. 330 kilometroko lasterketan –24.000

metroko desnibel positiboa– eta Italiako Aosta haranaren inguruko 3.000 metrotik gorako altueran dauden pasabideetan egindakoa.
Zinema aretoan, 19:30etan.

BERGARA 'Mou crime' pelikula
Jatorrizko bertsoian eta azpitoluekin. Sarrerak, hiru euro.
Seminarixoan, 20:00etan.

EGUENA 16

BERGARA Moha Gerehourekin topaketa
Jatorri ganbiarra duen Huescako gaztea *Qué hace un negro como tú en un sitio como este* liburuaren egilea da, eta haurtzarotik bizitako hainbat esperientzia partekatuko ditu Ndank Ndank elkarteak gonbidatuta.
Irizar jauregian, 18:00etan.

ESKORIATZA Literatura solasaldia
Ivan Jablonkaren *La títia o el fin de los hombres* liburuaren gaineko saioa, Monica Leivak gidatuta.
Kultura etxean, 18:00etan.

BERGARA 'Suizidio jokabidearen prebentzioaren hainbat gako' hitzaldia
Alex Muela ikertzaileak egingo du berba, Movembergara elkarteak gonbidatuta.
Irizar jauregian, 19:00etan.

ARRASATE 'Mingots eta langarratik' ipuin kontaketa, helduendako
Joxe Aldasororekin.
Kulturaten, 19:00etan.

OÑATI 'Entre las higueras' filma
Erige Sehiri zuzendariaren lana emango dute jatorrizko bertsoian eta zineklubean. Sarrerak, bost euro.
Zinema aretoan, 20:00etan.

ARRASATE Kooltur Ostegunak: Habi
Villabonako bikoteak pop eta rock doinuekin beteko du gaztetxea: Jon Ander Artola bateriarekin eta Yeray Gascon gitarrarekin. Sarrerak, zazpi euro.
Gaztetxean, 22:00etan.

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

O Corno
Domeka eta astelehena: 19:30.

Me he tragado un extraterrestre
Domeka: 12:00.

ARETXABALETA

ARKUPE

Oppenheimer
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua eta domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

Mavka: basoaren zaindaria
Zapatua eta domeka: 17:00.

BERGARA

SEMINARIXOA

Los asesinos de la luna
Domeka eta astelehena: 19:30.

Patrulla canina: la super película
Domeka: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

Los asesinos de la luna
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:30.

Bill Kwai eta museoaren eraso
Zapatua eta domeka: 17:00.

GASTEIZ

FLORIDA

Boo Kwai eta museoaren lapurreta
Zapatua eta domeka: 12:00.

Doraemon. Nobitaren dinosaurio berria
Egubakoitza eta astelehenetik eguenera: 17:00.

El chico y la garza
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00.

El chico y la garza
Egubakoitza: 17:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:30.
Astelehenetik eguenera: 17:15.

El favor
Egubakoitza: 17:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:30.

El maestro que prometió el mar
Egubakoitza: 16:45, 21:00.
Astelehenetik eguenera: 19:30.

The Marvels
Egubakoitza: 17:00, 19:15, 21:45.
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00, 19:15, 21:45.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:45.



AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE

Euskararik gabe herririk ez

Joan den larunbatean, azaroak 4, milaka eta milaka pertsonaren aldarrikapena Bilbon ikusgarria izan zen. Euskaldunok demostratu izan dugu gure izaera eta identitatearen aurkako erasoan aurrean batasunez jokatzeko, behar baino gutxiagotan, halere.

Espainiaren gogoia eta helburua, berriz, beti izan da berea ez dena baztertzea. Antzinatek, Espainia sortu baino lehen, Gaztelako erregea Araba, Bizkai eta Gipuzkoara etortzen zen gure lege zaharrak, Foruak, zin egitera. Gaur egun, ordea, ez bada Madrilgo gobernuak, espainiar epaitegiak dira gure legeak erasotzen dituztenak, behin eta berriz. Bai Gernikako Estatutuari esker daukagun Euskararen Legea eta bai Batzar Nagusietan onartutako foru arauak arriskuan daude epaitegi batean epaile batek azken hitza esaten duelako.

Herriaren burujabetza eta izateko eskubidearen ginetik ari dira euskararen aurka, gure arnasa delako, gure hitza, eta nazio bezala etorkizunaren giltza. Horregatik dira gure hizkuntzaren beldur eta horregatik erasotzen dute euskara. Horregatik da hain garrantzitsua gure eskumenak defendatzea, pauso bakar bat ere atzera eman gabe.

BUKATZEKO



Xabi Urzelai, Kutxa Sari Nagusia jasotzen. LEYRE CARRASCO (TOLOSALDEKO ATARIA)

"Irabazi genitzakeen sari guztiak lortu ditugu"

Esteban Urzelai oñatiarrak zuzentzen duen Suhar korua izan da Tolosako Nazioarteko Abesbatza Lehiaketako garaile. Hala, 2024an Varnan ospatuko den Abesbatza Kantuaren Europako Sari Nagusian parte hartzeko txartela eskuratu du koruak

Miren Arana Pagaldai OÑATI

Esteban Urzelai oñatiarrak zuzendutako Suhar abesbatza taldeak Tolosako 54. Abesbatza Lehiaketan parte hartu ostean, bost sari irabazi ditu. Oñatiarrak adierazi duenez "sinistu ezinik" daude oraindik, baina norbere bizitza "berreskuratu" nahian: "Egun oso politak izan dira; oso exijenteak izan gara gure bu-

ruarekin, eta dena ematera irten ginen arren, ez genuen horren emaitza onik espero. Azken finean, irabazi genitzakeen sari guztiak lortu ditugu".

Historian bigarrenak izan dira Tolosako Abesbatza Lehiaketako bost sariak irabazten; 2013an Suediako koru batek eskuratu ostean, Suhar taldeak irabazi ditu eskuratu zitzaizkeen sari

guztiak: Polifonia eta Folklore saioetako sariak, Publikoaren saria, Euskal Obra baten Interpretazio Onenaren saria, eta txapelketako Kutxa Sari Nagusia. Hori horrela, Varnan ospatuko den Sari Nagusira joateko zuzeneko txartela eskuratu dute.

"Lehenengo euskal korua izan gara sari guztiak lortzen, eta bigarrenak izango gara Europa-

ko Sari Nagusiko txapelketan parte hartzen; bertan, sei koru baino ez dira lehiatzen", azaldu du Esteban Urzelaiak.

Varnako erronka

Oñatiarrak gain, berrogei gizonen osatutako koruan badi-ra debagoiendar gehiago ere: Arrasateko Txomin Maidagan eta Inazio Olalde, Bergarako Aitor Garitano, eta Oñatiko Xabi Mugarza. Zuzendariak Varnako lehiaketan guztiak egotea espero duela aitortu du: "Erronka berria da, eta guztiok gaude ilusioz beterik. Nik denei luzatu diet Varnara joateko gonbita, eta ziur nago guztiok edo ia denok izango garela bertan".

Orain arte hilabete behin egun osoko entseguak egiten zituzten arren, beharbada gauzak aldatu beharko direla aurreikusten du zuzendariak; "esfortzu berezi" bat egin beharko dutela azpimarratu du: "Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa bat irabazteak ematen dizu Abesbatza Kantuaren Europako Sari Nagusian parte hartzeko aukera. Maila handia eskatzen da hor, eta, horrenbestez, entseguen planteamendua ere aldatu beharko dugu ziurrenik, gure esfortzu guztia eman behar baitugu".

Ametsak egia

Oñatiarra ikusle gisa izana da Europako Sari Nagusian, baina ez lehiakide gisa, hala, zuzendariaren ametsa "egia bihurtzen" hasi da: "Inoiz ez da baten burua egoera horretan jartzen; izan ere, horra iristeko lehenengo beste txapelketa batzuk irabazi behar dira; maila handia dago, eta zaila izaten da".

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

BEHOBIADONOSTIA

AZAROAREN 13AN, ASTELEHENEAN,
19:30, 21:30 ETA 23:30
'HARMAILATIK' SAIO BEREZIA



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.

